



HERRITARTASUNAREN, KULTURARTEKOTASUNAREN ETA IMMIGRAZIOAREN ESPARRUAN JARDUTEKO V. PLANA

2018-2020

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES



AURKIBIDEA

Aurkezpena/ 5

1. Oinarriak/ 11

2. Antolaketa, egitura eta helburuak/ 21

3. Metodologia/ 31

4. Jarduketa-proposamenak/ 33

5. Memoria ekonomikoa/ 49

6. Proposamenen deskribapena/ 51

AURKEZPENA

Aurreko mendearen amaieratik eta mende honen hasieratik, ezohiko fenomeno baten lekukoak izaten ari gara Euskadin, garai modernootan: atzerritar jatorriko pertsonak iristen ari dira, batzuk hurbileko leku batzuetatik, baina beste asko, gehienak oso urrunetik, eta, gainera, oso kopuru handian, euskal herritarrek espero zezaketenaren ikuspegitik, behintzat.

Gizarte moduan, bi aurrekari genituen: XIX. mendearen amaieran, euskal gizartearen lehen industrializazioarekin, Espainiatik iritsi zitzaigun immigrazioa; eta geroago, aurreko mendearen erdialdera, aurrekoa bezala Espainiatik iritsitakoa.

Historikoki gizarte pobre eta emigratzailea izatetik gizarte moderno, aberats eta etorkin-hartzailea izatera aldatu gara. Eta, zorionez, itxura guztien arabera, horrelakoak izaten jarraituko dugu, epe laburrean eta ertainean behintzat, eta horrek adierazi behar digu atzerritarren immigrazioa gelditzeko iritsi dela Euskadira eta iristen jarraituko duela; horrenbestez, kultura-dibertsitate gero eta handiago hori (jatorriak, hizkuntzak, kulturak, ohiturak, sozializazioa erlijioa, mundu-ikuskera eta abarrak) ez da unean uneko fenomeno bat, baizik eta etorkizuneko euskal gizartea ezaugarrituko duten funtsezko gako estrukturaletako bat. Immigrazioa egoeraren arabera oldarka sartze bat delako ideia baztertzea aldeztu aurreko oinarriko baldintza da ibilbide luzeko integrazio- eta dibertsitate-estrategiak egiteko, eta gizartean ez sortzeko iragaitzaz dagoen aldi baterako biztanleria bat delako ideia faltsua.

Immigrante gehien-gehienek Euskadin geratu nahi dute. Datuek berretsi egiten dute hori. Alegia, gehiengoaren borondatea lur honetan jarraitzea da. Ez da fenomeno iragankor edo egoeraren arabera bat, egiturazko errealitate bat baizik, eta, horrenbestez, berriz aztertu behar dira indarreko ideiak eta ideia horietatik ondorioztatzen diren erroldatzeko, erregularizatzeko, berrekitzeko eta nazionalizatzeko mekanismo eta prozesuak. Ezinbestean antolatu behar dira gizarteratzea eta dibertsitatearen kudeaketa. Legeek eta neurriek iraute-borondate horretan lagundu behar dute, etorkinak “salbuespenezko” estatus batera kondenatu gabe, gehiago baitagokie bertakoek errealitateaz egiten dituzten interpretazioei eta pertzepzioei, etorkinen eguneroko errealitateari baino.

Behartutako albuespentasun hori agerian gelditzen da, adibidez, egiten diren aurreikuspen demografikoetan esaten denean etorkizunean EAEko biztanleen ehuneko

jakin batek “etorkin-jatorria” izango duela, multzo horretan sartuta bai gaur egun EAEko gizartearen barruan dauden pertsonak, bai etorkizunean gizarte horretan sar daitezkeenak. Ikuspegi horrek administrazio-kategoriak egokitzeko ahalegina egitea eskatzen du, *sine die* ez atzeratzeko eguneroko integrazio-prozesuak. Lege-aurreikuspenek bultzatzaile eta laguntzaile izan behar dute eguneroko izatezko integrazio horretan, eragotzi gabe, praktikan, gainera, ezinezkoa baita.

Egiturazko egitate berri horrek gizarteratzeko oinarritzkoenak eta funtsezkoenak diren alderdiak kudeatzea eskatzen du –kudeaketa materiala–, bai eta harrerako gizartean kultura-dibertsitatea kudeatzea ere, immigrazioa iritsi ahala areagotu egiten baita. Kudeaketa materialak beharrezkoa du Eusko Jaurlaritzak politikoki sartzea agintari zentralekin egiten dituen negoziazio-prozesuetan immigrazioari lotutako kogestio-gaiak, Kataluniako Autonomia Estatutuaren azken idazkeran jasotakoen antzekoak neurri batean, harrerarekin, integrazioarekin eta, oso bereziki, Euskadiko etorkin atzeritarren lan-baimenekin zerikusia duten kontuetan.

Immigrazioa eta dibertsitatearen kulturarteko kudeaketa hain fenomeno poliedrikoa izanda, iritsiera-gune bakoitzean jatorriaren arabera desberdinean zertzen dena, premiazkoa du, halaber, familiak Euskadin berrelkartzen laguntzeko neurriak ezartzea. Xedea da agerian jartzea eta legez arautzea immigrazio-eredu propio bat, latente dagoena.

Etorkinen errealitate material horretan, ematen du beste bi esparru ere ezinbestekoak direla: hezkuntza-esparrua eta lan-esparrua. Hezkuntza-arloak etorkinen gizarteratzea arrakastatsua izateari buruzko kezka gehienak pizten eta biltzen ditu, batez ere etorkizuneko belaunaldiei dagokienez. Hezkuntzak kapital kulturala sortzen du, kapital kulturalak kapital soziala eta bien emaitza da kapital ekonomikoa. Giza kapitala, hitz batean. Immigrazioa kudeatzearen alde egiteak aldi luzea behar du, baina oinarri egokiak abiapuntu hartuta, eta aurrez ondo eginak berriz hartu eta indartuta.

Euskadi, Europako zati handi bat bezala, ziklo demografiko berri batean sartzen ari da, baina ziklo hori areagotuta dago hemen, jaiotza-tasa txikiagoa delako, eta historikoki ez delako familia-politikarik izan aurreko mendearen amaierara arte, baina jadanik mahai gainean dago *Familien eta Haurren aldeko IV. Erakundearteko Plana*, zeina arlo bereko aurreko planen jarraitzailea baita, eta abian jarri eta zehaztu egiten baititu *Familien eta haurren aldeko Euskal Itunak* bildutako oinarritzko jarduera-ildoak.

Prospekzio jakin batzuek nabarmentzen dute gutxi-asko kualifikatutako milaka pertsona “falta” direla, kontuan hartuta egungo lan-ingurunea gero eta konplexuagoa eta aldakorragoa dela, baina, funtsean, horren eragilea da gazteenen adin-tarteak estutu egin direla, eta, horrenbestez, ezin bermatuzkoa dela biztanleria aktiboa azpitik ordezte. Beste kontu bat da zer prestakuntza behar den. Era berean, ekonomia feministak esan bezala, bizitzaren erreprodukzioaren esparruak lanaren eta enpleguaren bereizketa errotik

birplanteatzea eskatzen du, bai eta zaintza-beharrak, familia-beharrak, etxeko lanen banaketa eta abar betetzeko modua birplanteatzea ere. Eta egitura-testuinguru horretan biztanleria zahartua eta gero eta kopurutsuagoa izango dena eta familia txikiak gehitzen baditugu, horrek guztiak atzeritarren beharra sortzen du, eta, praktikan, eredu hori eragin da Euskaditik: nabarmenki feminizatutako immigrazioaren eredua. Hitz batean, hazkunde begetatiboak biztanleria-beharrak konpontzen ez dituenean, ez eta gizarte baten behar materialen zati bat ere, immigrazioa baliatzea beste aukerarik ez dago. Ez da kasualitatea, ezinbesteko ondorioa baizik.

Une hauetan, Mendebaldeko ekonomiak 2008 eta 2013 artean krisian egon eta, horrek eraginda, atzeritik iristen ziren pertsonen kopurua jaitsi ondoren, eta kontuan hartuta hobera egin dutela adierazle makroekonomikoek eta etorkizuna hobe izango dela ematen duela, fenomeno hori berraktibatu egin da, eta 2015etik are berrindartu ere bukatutzat jotzen ziren nazionalitateak edo harrobiak.

Azken hogeitaz urteetan metatutako esperientzia baliagarria izan da EAEko gizarteak mekanismoak, tresnak eta bitartekoak izan ditzan aurre egiteko atzeritar jatorriko pertsona horien helduera eta harrerari. Jarduera-esparru estrategiko hori baztertu gabe, bizikidetzaren oinarria baita, immigrazio-prozesuak egiturazkoak direlako, egungo testuinguruan berebiziko garrantzia hartzen du EAEko gizartearen dibertsitatea honako hauek kontuan hartuta kudeatzeak: herritarrak; eskubideak berdintasunean eskuratzea; euskal kultura berriaren eraikuntza, dibertsitatearen elkarreragin begirunetsuaren ondorioz; eta kulturartekotasuna, egungo eta geroko estrategia eta ekintza-politika moduan.

Dibertsitatearen kudeaketa hori indarreko lege-esparruak mugatuta dago, eta esparru horretan honako hauek azpimarra ditzakegu nazioarteari dagokionez: Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala (1948), Giza Eskubideak Babesteko Europar Hitzarmena (1950) eta Europar Batasuneko Funtsezko Eskubideen Gutuna (2000, 2007); Estatuari dagokionez: 4/2000 Lege Organikoa, Atzeritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzkoa, eta Atzeritar horiek Gizarteratzeari buruzkoa, 8/2000, 11/2003, 14/2003 eta 2/2009 lege organikoen bidez aldatua; eta 557/2011 Errege Dekretua, apirilaren 20koa (Errege Dekretu horren bidez onartu egiten da 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua (...), 2/2009 Lege Organikoa aldatu ondoren; eta autonomia-esparruan, azkenik; 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; 6/2016 Legea, maiatzaren 12koa, Euskadiko hirugarren sektore sozialari buruzkoa; eta 8/94 Legea, maiatzaren 27koa, Euskal Herriko Autonomia Erkidegotik kanpoko erakunde eta euskal etxeekiko harremanak arautzekoa.

Plan hau egiteko prozesuan, abuztuaren 30eko, 200/2002 Dekretuaren 3 c) artikuluan jasotakoaren arabera ekin da eta *Euskal Autonomia Erkidegoko herritar etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa* sortzen da. Aipatutako artikulua arabera, Foroaren

funtzioetako bat Immigrazioaren Euskal Plana egiteko eta berrikusteko proposamenak egitea da.

EAEko gizartearen dibertsitate gero eta handiagoa eta migrazio-prozesuak kudeatzeko ekintzak sistematizatu, antolatu, koordinatu eta gidatzeko, Eusko Jaurlaritzak zenbait plan egin ditu mende honen hasieratik.

Lehenik eta behin, *Immigrazioari buruzko I. Euskal Plana, 2003-2005*; orduko Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak egin zuen, Gizarte Gaietako Sailburuordetzaren barruan, Immigrazio Zuzendaritzan, erantzuna emateko batez ere harrera-beharrei, atzeritar asko iristen ari baitziren, askotan egoera administratibo, sozial eta pertsonal prekarioetan.

Geroago, Eusko Jaurlaritzak immigrazioaren fenomenoari ematen zion erantzuna egokitu beharra sortu zen, eta, horretarako, oraingoan ere Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, Immigrazio Zuzendaritzan, *Immigrazioari buruzko II. Euskal Plana, 2007-2009* egin zuen; garai hartan urtez urte handitzen zen atzerriko etorkinen kopurua, gure ekonomia etengabe, bete-betean haztearekin batera.

Baina krisi ekonomiko handiak gure ongizate-estatuari eragin zion, eta aldi horretako eskakizunen arabera beste plan bat egin behar izan zen: *Immigrazioaren, Herritarren eta Kultura arteko Bizikidetasunaren III. Plana, 2011-2013*; egilea Enpleguako eta Gizarte Politiketako Saila izan zen, Immigrazio eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzaren bidez.

Plan berri horrek, ahaztu gabe immigrazioa fenomeno soziala dela (bizilagun berriak EAEko gizartera iristea), eta uko egin gabe pertsona guztien eskubide eta betebeharrei, jomuga baita (herritartasuna), gure erkidegoan hainbat urte, are batzuetan hamarkada ere, zeramatzaten pertsona guztiengan ere jartzen zuen arreta, gure herri eta auzoetan bizi baitziren, EAEn jaiotako seme-alabak baitzituzten, espainiar nazionalitatea lortua baitzuten gero eta kopuru handiagoan; hitz batean, erkidegoko gainerako biztanleekiko berdintasunean EAEko gizarte-proiektu beraren parte baitziren. Plan horretan, kulturartekotasunaren ikuspegitik lan egiten hasi zen..

Azkenik, *Immigraziorako Euskal Estrategia, 2014-2016* izenarekin sortutako eta Enpleguako eta Gizarte Politiketako Sailak nahiz sail horretako Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzak krisi ekonomikoa oraindik indarrean zegoela eta gure ongizate-estatuaren testuinguruan egindako planak, IV. Planak, areago nabarmentzen zuen dibertsitatea kulturartekotasunaren ikuspegitik kudeatzea, atzeritar jatorriko etorkinen harrera baino, ez azken hori ez delako premiazkoa, badelako, premia arinduta egon arren immigrazio-fluxuen murrizketagatik, bai baitaude mekanismoak harrerari behar bezala aurre egiteko, hobetzeko modukoak izanda ere, baizik eta gure etorkizuneko benetako erronka delako guk gaitasuna izatea gizarte osatzen duten pertsona guztiei, jatorria eta/

edo etorkia edozein izanda ere, eskubideak eta betebeharrak bermatu eta eskatuko dizkien gizarte molde bat eraikitzeko.

Hor kateatzen da Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren bidez egindako *Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan Jarduteko V. Plana 2018-2020* delako hau. Izen-aldaketa ez da apeta hutsa, premia baten ondorioa baizik, izenburutik bertatik adierazi nahi baita zer-nolako kezka sortzen duen EAEko gizartearen bilakaera erabakiko duen egiturazko fenomeno sozial baten kudeaketak, hau da, gure erkidegoaren gero eta dibertsitate handiagoarenak, kudeaketa horretarako oinarriak izanik herritartasuna, eskubideak, tratu-berdintasuna, diskriminaziorik eza, kultura-desberdintasunarekiko errespetua eta gizarte-aldaketa kulturarteko bizikidetzatik, inklusiotik, integraziotik eta kohesio sozialetik abiatuta.

Immigrazioarako Euskal Estrategia, 2014-2016 delakoaren ebaluazioak oso informazio baliotsua eman digu V. plan hau bideratzeko, agerian utzi dituelako orain konpondu nahi ditugun arazo batzuk. Besteak beste, garrantzitsua da plana benetan lan-tresna eraginkorra izatea, baita efikaza eta efizientea izatea ere Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak esku hartzeko estrategia globala diseinatzean eta pertsona kulturalki askotarikoen arteko harremanak bultzatzeko estrategia bereziak garatu eta ezartzean. Hain zuzen ere, estrategia horien asmoa izango da pertsona kolektibo guztiak integratzeko aukera ematea eta, horrekin batera, gizarte gero eta askotarikoagoaren ikuspegi inklusiboa bultzatzea eta gure herri eta auzoetan bizikidetzak hobetzea.

Ebaluazio honek egoeraren diagnostiko argia jasotzen du, eta honako gako hauek atera ditzakegu diagnostiko horretatik:

- Planaren lehentasunetako bat da hizpide dugun gaia dimentsionatzea eta ondo kokatzea gure gizartearen eta gizartea gobernatzen duten pertsonen agenda estrategikoan: dibertsitatearen kudeaketa eta kulturartekotasunaren erabilera, gizartea eraldatzen duten faktoreak baitira, funtsezko herri-proiektua dira.

Testuinguru horretan, ezinbestekoa da *Immigrazioaren aldeko Itun Soziala* delakoari berriz heltzea, adostasun politikoko dokumentua izan dadin eta ezar ditzan esparru honetan “jokatzeko” koordinatuak EAEko gizarte osoari begira, eta, era berean, geroago, Gernikako Estatutuaren babesean, araugintza-garapena egiteko aukera eman dezan, immigrazioari eta herritartasunari buruzko EAEko politikaren oinarriak atzerritar jatorriko pertsonen eskubideen eta betebeharren ikuspuntutik jasota, eta pertsona eta kolektiboek estaldura eta segurtasun juridikoa emanda.

Erronka hori estrategikoa da.

- Horretarako, plan honek adierazten du berreraiki beharreko sistemak zehaztu behar duela zer rol bete behar duen eragile bakoitzak modu koordinatuan sistemaren barruan: Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak; Biltzen-ek; Ikuspegi-k; Hezkuntza Sailak; Lanbide-k; Giza Eskubideen Idazkaritza Nagusiak; aldundiek; udalek; hirugarren sektoreak; Aholku Sareak; Eraberean Sareak; Immigrazioarako Foroak; elkarteak sareak (auzo-, enpresa-, kultura-, kirol-elkarteak...), enpresek, sindikatuek, unibertsitateek, erlijio-kongregazioek, komunikabideek (EiTBk bereziki) eta abarrek.

Eta eragile horiek guztiek lan koordinatua egiteko esparru bat ezarri beharko da.

Antolakuntza-erronka bat da.

- Planak, gainera, honako hauek ere jasotzen ditu: gidari dituen helburu estrategikoak, orokorrak, sektorialak eta espezifikoak; jarduera-esparruak; bakoitzean aurreikusitako ekintzak; eta arreta berezia behar duten kolektiboak.

Lehentasunezko jarduera-esparruak hiru dira: hezkuntza, enplegua eta bizikidetzak. Gainera, bi esparru osagarri identifikatu ditugu, osasuna eta etxebizitza, bai eta arreta berezia behar duten kolektibo batzuk ere.

Esparru horietarako ekintzek hirugarren erronka osatzen dute, programatikoa.

Hitz batean, *Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan Jarduteko V. Plana, 2018-2020* izeneko honek sektorearen eskaera bati erantzun nahi dio, sektoreak nahi baitu Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak bere lidergo-rola sendotzea, eta genero-ikuspegiarekin dinamizatzea, koordinatzea, lerrokatzea, trinkotzea, babestea eta gidatzea sektoreko eragileek herritartasunaren, kulturartekotasunaren, bizikidetzak inklusiboaren eta gizarteratzearen esparruan nahiz eskubideak izateari eta betebeharrak onartzeari dagokienez egiten dituzten lanak.

Azken gogoeta: Euskal Herria bere historian zehar bereizgarri egin duen dibertsitatearen oinarritik abiatuz, zeina pluraltasun kultural eta politiko zabalean, dualismo linguistikoan eta gizarte-portaerako askotariko ohituretan eta mentalitateetan adierazten eta gauzatzen baita, *Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan Jarduteko V. Plana, 2018-2020* izeneko honek, pribilegiatua, errespetuzkoa eta inklusiboa den espazioa eraikitzea proposatzen du, non beren nortasun-ezaugarriak eta kultura espezifikoak lekua izango duen.

1. OINARRIAK

Gizarteratzea eta kulturarteko ikuspegia dira *Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan Jarduteko V. Plana, 2018-2020* izenekoaren bi aurpegiak. Badirudi oso gertagaitza dela kulturarteko politikan aurrera egitea gizarteratzerik gabe, eta argi dago politika hori gizarteratze-oinarri sendoen gainean dagoenean finkatzen eta sendotzen dela.

Gizarteratze terminoa eztabaidatua izan da azken hamarkadetan bere kutsu asimilazionistagatik, eta, nolanahi ere, noranzko-bikotasunaren ikuspegitik ulertzea onartu da, kultura eta jatorri desberdinak dituzten populazioen arteko doitze moduan, beroriek biltzen, bereganatzen eta sintetizatzen dituen kulturarteko ildo berri batean. Plan horren helburuetarako, garrantzitsua da aditzea gizarteratzea modu materialago batean uler daitekeela, halako eran non bertako populazioaren egitura sozialak eta atzerriar jatorriko populazioarenak elkarren artean zenbat eta antzekoagoak izan, eta, are gehiago, epe luzean zenbat eta gehiago bat egin, gizarteak orduan eta kohesio handiagoa izango baitu, eta orduan eta gutxiago diskriminatuko baitu. Ulertu behar da antzekotasunik eza gutxitzea gizarte-mugikortasuna bermatzeko ezarritako neurrien arrakastaren emaitza dela.

Immigrazio-ereduak botere publikoen jardunaren edo jardunik ezaren emaitza dira. Beti dago bat, normalean dekantazioz eta fluxuak denboran irautearen ondorioz ezaugarri batzuk hartuz joaten dena, eta, geroago, sareek eraginda, bere burua birsortu ohi duena. Kontrol zorrotzeko politikarik gabe, eta are kontrol horiek izanda ere, migrazioaren mekanismoa izugarri erraza da: aurrez finkatutako norbaitek beste migratzaile potentzial baten presentzia eskatzen du, zeina normalean jatorri berekoa baita, are jatorriko familia-ingurune berekoa ere, oso antzeko beharrak konpontzeko kokapen berriko gizartean.

Egoera ekonomikoa goranzkoa bada, fluxu hori azkartu eta hazi egin ohi da. Beheranzkoa bada, moteldu eta mehetu egiten da, edo, oso azkar desagertzen.

Berrogeita hamarreko eta hirurogeiko hamarkadetan, Euskadiko industriak langileak behar zituen, eta horregatik iritsi ziren gizon asko Espainiako gainerako lekuetatik, geroago, alde batetik, senideei eta lagunei deitu zietenak, eta, bestetik, familiak osatu. Egungo immigrazioan, familiak eta zerbitzuen sektoreek eskatzen dituzte langile horiek, eta, horregatik, emakume gehiago iristen dira, beste emakume batzuei deitzen dietenak eta, geroago, familiak berrelkartzen dituztenak. Garai bakoitzean, fluxuek premia desberdinak betetzen dituzte, eta fluxuen osaera ere desberdina izaten da, jatorriari dagokionez bezala sexuari dagokionez ere, azken bi mendeetako euskal esperientziak berak erakutsi bezala.

EAEko egungo immigrazio-eredua fluxuen feminizazio erlatiboan dago oinarrituta, eta etorkina, gehienbat, latinoamerikar jatorriko emakume bat da, elkarri txanda hartzen dioten herrialde batzuetakoa, eta, herrialde horien artean, garrantzitsuenek aurrekoen emakumeportzentajea handitzen dute, jatorriko herrialdeak ordezteaz bat. Oso adierazgarria izan da, oraindik orain, nikaraguar jatorriko immigrazioa, hamar pertsonatik bederatzi emakumeak baitziren.

Horrenbestez, arrazoi horregatik eta beste batzuegatik, plan honetan oso presentzia handia izan behar du emakumeentzako neurrietan jarritako arretak. Emakumeen kasuan (latinoamerikarrak batez ere, baina beste jatorri batzuk dituztenak ere bai), arreta berezia jarri beharko da familia-berrelkartzean. Emakumeen kasuan (Ipar Afrikakoak eta, nola ez, beste jatorri batzuetakoak), halaber, mekanismo oinarrizkoagoak aipatuko ditugu, hala nola gizarteratzearen sustapena alfabetatzearen bidez, gizartean erabateko parte-hartzea izateko oinarriak jarri ahal izateko.

Estrukturaliki, Euskadiko atzeritar jatorriko biztanleak kualifikazio txiki eta ertainekoak dira, kualifikazio hori izan behar baita eskaintzen zaizkien enpleguak betetzeko, eta enpleguok merkatu dualaren parametroen barruan kokatzen dituzte, baina epe luzeko estrategia bat asimilazio segmentatu beldurgarriagoari aurre egiten zentratu behar da, eta, horregatik, plan honetan garrantzi berezikotzat hartzen da prestakuntza-esparrua. Soldata-egitura jadanik duala eta prekariora izanik, arduragabea litzateke hezkuntza-neurririk ez hartzea, neurri horien bidez jatorriko aldeak arintzeko, berriz ez sortzeko eta ez areagotzeko, eta azkenean ez izateko gure inguruko beste herrialde batzuetan ikusi ahal izan duguna: gizarte-zatiketa. Bestela esanda, oraina kudeatu behar da, baina etorkizuna behar bezala prestatu, eta etorkizun hori dira ikasgeletan dauden atzeritar etorki, jatorri eta/edo nazionalitateko ia 40.000 ikasleak.

Aurreko immigrazio-prozesuetan, eta, horretarako, Espainiaren kasua paradigmaticoa iruditzen zaigu, zenbait hamarkadatan, 60ko hamarkadatik gaur egun arte, goranzko

mugikortasunak ahalbidetu du hiru belaunalditan nekazaritzan ziharduten aitona-amonetatik, industrian aritzen ziren gurasoetara eta unibertsitatean ikasten ari diren seme-alabetara aldatzea. Ereduaren erreplika egitea da hezkuntza-sistemari dagokion helburua. Horretan arrakasta izanda, posible izango da bigarren belaunaldiaren lan-gorakada eta -hobekuntza, ezinbestean kondenatuta egon gabe EAEko gizartearen saihetseko bidetik ibiltzera.

Egun, bereziki kezkatzen dute ikastetxe jakin batzuetan gertatzen ari diren atzeritar-jatorriko ikasleen multzokatze etnikoek, baina garrantzitsuagoa iruditzen zaigu ezkutatzen dutena: hezkuntza-sareen banaketa gizarte-estratifikazioari dagokionez. Garrantzi txikiagoa eman behar zaie kontzentrazioei, eta handiagoa gertatzen diren desparekotasunei. Zenbakizko datuetatik harago begiratu behar dugu, eta hezkuntza-bizikidetzan zentratu, segregazioak interakzioa galarazten duelako, ez duelako kulturartekotasunik sortzen, estereotipoak eta aurreiritziak elikatzen dituelako, mesfidantza sortzen duelako eta abar.

Etorki eta/edo jatorri immigranteko biztanleriaren zati batek batez ere nabarmenki lan-arlokoak diren ibilbideak hautatzea, zeina bertako ikasleen zati batekin ere gertatzen baita, aurrea hartzea da bestela, konponbiderik ez dugulako, edo konpontzen zailak direlako, atzeratzen diren egoeren konponketan, noiz eta gure ingurunean migrazio-esperientzia handiagoa duten herrialdeak esparru horretan neurri batean ustekabeak diren gizarteratze-arazoak izaten ari direnean, jomugako gizartean jaiotako belaunaldiak dituztela.

Hitz batean, lan-merkatuaren araberakoa izango da neurri handi batean lehen belaunaldiaren gizarteratzea; bigarrenarena, berriz, argi eta garbi programa daiteke, edo, hein batean behintzat, zuzendu.

Aurreko helburuek gobernuarteko arkitektura handia behar dute sail, zuzendaritza eta erakundeen artean, batera eta osoki heltzeko elkarren artean barrutik lotutako helburu sorta horri. Nahitaezkoa da Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, Hezkuntza Sailak, Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak eta, bereziki, zerikusi zuzena duten zuzendaritzek eta erakundeek parte hartzea.

Kulturarteko bizikidetzarako egoera egokia sortzea plan honen hiru lehentasunezko ardatzetako beste bat da, hezkuntza- eta lan-ardatzekin batera, eta xenofobia instituzionalaren murrizketan gauzatzen da, edo kontra egitean egitura instituzionalaren luze-zabal osoan dauden mota guztietako diskriminazio-adierazpide sotil eta irekiei, bai eta zigorgabetasun-esparruak sortzen dituzten jardunbideei ere. Helburu horrek premiazkoa du EAEko egitura instituzional osoa ahaldundzea, indar berezia jarrita toki-korporazioetan, berorietako teknikari espezifiko bidez, edo laguntzako langileak antolatuta, eta premiazkoa du, halaber, langile guztiak prestatzea eta sentiberatzea, ikuspegi inklusiboa

eta kulturartekoa izan dezaten herritarren eskubide eta betebeharretan, bai eta etorkin atzerritarren gizarteratzeaz eta kultura-dibertsitatea errespetatzeaz den bezainbatean ere.

Beste erakunde batzuk ere estrategikoak dira, atzerritar jatorriko biztanleekin duten harremanaz den bezainbatean: Osakidetza, Ertzaintza, EiTb, Hizkuntza Normalizazioa, Kirolak, Kultura, Justizia, Unibertsitatea... Erabakigarria da zuzendaritzaren, sailaren eta Eusko Jaurlaritzaren komunikazio instituzionalean kulturarteko ikuspegia onartu eta bistaratzea. Dibertsitatea aipatutako adierazpideetan ohiko parte-hartzea izanda onartzeak kulturartekotasun-ikuspegia normalizatzen du.

Beste horrenbeste egin daiteke EAEko gizarte osoan, kanpaina informatiboak eginez komunikabideetan eta beste bitarteko batzuetan, hala nola hirugarren sektoretik edo ekimen sozialetatik sortzen direnetan; besteak beste, zurrumurruen aurkako sarea erabiliz.

Azken zehaztapen bat beste kontu batzuei heldu aurretik: jarduera-plan hau egiteko, oso kontuan hartu ditugu planarekin zerikusi zuzena duten beste plan batzuk. Zehazki, honako plan hauekiko koherentzia eta osagarritasuna lortzen saiatu gara:

- Euskadi 2020. XI. Legegintzaldiko Gobernu Programa (2016-2020)
- Immigrazioari buruzko I. Euskal Plana, 2003-2005
- Immigrazioari buruzko II. Euskal Plana, 2007-2009
- Immigrazio, Herritartasun eta Kulturarteko Bizikidetzari buruzko III. Plana, 2011-2013
- Immigraziorako IV. Euskal Estrategia, 2014-2016
- Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana 2017-2020
- Eusko Jaurlaritzaren jarduera-programa bizikidetzaren sustatzeko Euskadiko komunitate islamikoekin lankidetzan
- Giza Eskubideetan, Bizikidetzan eta Lankidetzan Hezteko Programa Osagarria, 2017-2020
- (H)ABIAN Gizartea eraldatzeko hezkuntza-estrategia
- 2016-2020ko eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana

- Sasoikako Lanaren Arretarako IV. Plan Integrala (2017-2020)
- Declaration of the Intercultural Cities' Milestone event. Lisboa 2017
- IV. Gizarteratzeko Euskal Plana 2017-2021 (egiten ari da)
- Ijito Herriarekiko Euskal Estrategia XI. Legegintzaldia (egiten ari da)
- 2017-2020rako Enplegu Plan Estrategikoa
- Etxebizitza Plan Gidaria
- Familien eta Haurren aldeko Euskal Ituna
- Aniztasuneko Bizikidetzarako Foru Plana (Gipuzkoako Foru Aldundia)
- Herritartasun eta Integrazio Plan Estrategikoa (PECI)
- Zaragozako Adierazpena. Integrazioari buruzko Europako Ministro-konferentzia (Zaragoza, 2010eko apirilaren 15a eta 16a)
- Hirugarren herrialdeetako nazionalen integraziorako europar agenda COM(2011) 455 final
- Hirugarren herrialdeetako nazionalen integraziorako ekintza-plana. COM(2016) 377 final
- Ebazpena, Europako Parlamentuarena, 2016ko uztailaren 5koa, iheslariei buruzkoa: gizarteratzea eta lan-merkatuan sartzea, 2015/2321(INI)
- Garapen jasangarrirako Nazio Batuen 2030 Agenda
- Eusko Jaurlaritzaren 2030 Agenda

1.1. Xedea

Bat etorrita *Euskadi 2020. XI. Legegintzaldiko Gobernu Programa (2016-2020)* izenekoaren 2. oinarriarekin, zeinaren gaia *Giza garapena, integrazio soziala, berdintasuna eta kalitateko zerbitzu publikoak* baita, laugarren ardatzean, *Integraziorako eta berdintasunerako agenda soziala* izenekoan, *Kohesioa eta elkartasun soziala, bizikidetzaren eredu gisa* eta *Aniztasuna eta integrazioa errespetatu* aldarrikatzen direnean, plan honen xedea honela definitzen da:

- *Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan Jarduteko V. Plana, 2018-2020* izeneko dokumentuak Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren nahiz sail horretako Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren lanak gidatu nahi ditu hurrengo urteetan, esku-hartze publikoa koordinatuta kulturartekotasunari eta immigrazioari dagokienez, herritartasun inklusiboaren ikuspuntutik. *V. Plan* honen xedea da tresna egokia izatea kulturartekotasunaren eta immigrazioaren gaia EAEko politikaren erdian birkokatzeko egungo eta geroko herri-proiektua izateko bokazioarekin.

Plana bat dator Garapen Jasangarrirako Nazio Batuen 2030 Agendak berriki ezarritako garapen jasangarriko helburuekin: Zehazki, lotura estu-estua du 1. zenbakiarekin: Pobreziaren amaiera; 4. arekin: Hezkuntza inklusiboa; 5. arekin: Genero-berdintasuna; 11. arekin: Hazkunde ekonomikoa eta enplegua; 14. arekin: Desparekotasuna murriztea; 16. arekin: Bakea eta justizia; eta 17. arekin: Aliantzak/Garapenerako lankidetzak.

Eta, era berean, lotura du Gobernuaren 2017-2020rako Gobernu Programako 15 herri-helburuekin (*Agenda Euskadi Basque Country 2030. Euskal Ekarpena Garapen Jasangarrirako 2030 Agendari*, 80. orrialdea), bat etorrita Nazio Batuen 2030 Agendaren helburuekin.. Zehazki, zeharkako honako helburu hauetara eramaten gaitu: pobrezia-tasa % 20 gutxitzea; jaiotza-tasa handitzea; eskola-uztea % 8tik beherakoa izan dadin lortzea; langabezia % 10etik beherakoa izatea; eta 20.000 gaztek izatea lan esperientzia.

1.2. Ikuspegia

Ikuspegiari dagokionez:

- “Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan Jarduteko V. Plana, 2018-2020 delakoak lehentasunezko jarduera-ildo batzuk ezartzen ditu, egungo eta geroko euskal gizarteak honako hauek izan ditzan: berdintasuna, herritarrek eskubideak izateari dagokionez; Euskadin bizi diren pertsona guztientzako aukera-berdintasunaren sustapena; gizarte-trinkotasuna, eta elkartasun handiagoa gizarte-kolektibo behartsuenekin; begirunea pertsona eta kultura guztien dibertsitatearekin; eta gizarte-interakzioaren aldeko testuinguruaren sustapena”.

1.3. Kontzeptuak

Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan Jarduteko V. Plana, 2018-2020 delako hau izena ematen dioten hiru kontzeptu nagusietan oinarritzen da.

- Herritartasuna: dokumentu honen oinarrian dagoen herritartasun-kontzeptua ulertzeko, *Immigrazioari buruzko II. Euskal Plana, 2007-2009* delakoaren zati batzuk ekarri ditugu hona (61. or. eta hur.): “... herritartasun inklusiboaren ikuskera biltzea ahalbidetuko du, eta ikuskera horrek Estatuko ordenamendu juridikoan bildutako nazionalitate-kontzeptu klasikoa birformulatuko du EAEn eskumenen eremuan. (...) Ezinezkoa da egiaz integratzea etorkin egoiliarrei herritarrak direla eta, horren ondorioz, herritartasunak EAEn ematen dituen eskubide eta betebeharrak guztien titularrak direla, berdintasunez, aintzat hartu gabe. (...) Herritartasun berria lortzeko eskatzen den lotura bizitokia da. (...) Herritartasun inklusiboak erabateko berdintasun-irizpidea eskatzen du”. Eskubide-berdintasuna etorkinen eta nazionalen artean aldeztu da, baina nazionalizatu gabeko pertsonen artean, genero desberdinekoen artean eta abarren artean ere bai.

Dokumentu honek Giza Eskubideei ere jarraitzen die, Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren *Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana 2017-2020* delakoan jaso bezala (33. or. eta hur.). “Giza eskubideekiko eta pertsonen duintasunarekiko errespetua, arraza, generoa, jatorria, sinesmena edo beste edozein baldintza pertsonal edo sozial bereizi gabe, gure printzipio politikorik oinarritzakoa da”.

- Kulturartekotasuna: ñabardura batzuekin, geure egiten dugu *Immigrazio, Herritartasun eta Kulturarteko Bizikidetzari buruzko III. Plana, 2011-2013* delakoan eman zen definizioa (13. or.). “Gaur egungo gizarteak askotarikoak eta pluralak dira, eta gizarte-errealitate hori aukeratzat eta erronkatzat har daiteke, aldi berean. Aukerari erreparatuta, konturatuko gara gizarte aberatsenak askotarikoenak direla. Erronkari dagokionez, aniztasuna modu inklusiboan kudeatzeko tresnak eta printzipioak eskuratu behar ditugu, aniztasun hori esfera publikoan onartu eta egokitu dadin bultzatuz, bai erakundeetatik, bai gizarte-erakundeetatik. Aniztasunaren kudeaketa inklusiboan desberdintasunak onartu eta errespetatu egin behar dira eta, aldi berean, elkarren arteko lotura, elkarrizketa kritikoa eta interakzioa bilatu, oinarritzako balio partekatuetan oinarrituta (kulturarteko politika). Interakzio horren eraginez, kultura-errealitate berriak sortzen dira, gizartearen egoera eta gizabanakoak aldatzen dituzten errealitateak. Ildo beretik, konfiantza eta jakintza indartu nahi dira herritar guztien artean, giro integratzailea lortzen laguntzeko errespetua eta elkar aberastea abiapuntu hartuta”.

Kulturartekotasunaren politikak berekin dakar dibertsitatearen kudeaketa positiboa eta inklusiboa egitea, helburutzat hartuta oraingo gizartea aldatzea, eta kultura berri bat sortzea subjektu kulturalki desberdinen arteko interrelazioen eta interakzioen ondorioz. Atal honetan ere geure egiten dugu, behar diren egokitzapenekin, *Intercultural Cities* sareak kulturarteko gizarteaz (hiriaz) daukan nozioa (ikus *Kulturarteko Hiriaren Definizioa* hemen: *Kulturarteko Hiri urratsez*

urrats, 5. or.). “... kulturarteko gizarteak askotariko biztanleak ditu, hainbat nazionalitate, jatorri, hizkuntza, erlijio, sinesmen, mundu-ikuskerak eta abarretako pertsonak. Herritar gehienek onartzen dute kultura guztiak aldatu egiten direla eremu publikoan bat egiten dutenean. Agintariek publikoki egiten dute gizartearen dibertsitatea eta nortasun plurala errespetatzearen alde. Gizarteak aktiboki egiten du aurreiritziaren eta diskriminazioaren aurka, eta aukera-berdintasuna bermatzen du pertsona guztientzat, askotariko biztanleriaren beharretara egokituz bere egitura, erakundeak eta gobernamentu-zerbitzuak, eta printzipio hauei traizio egin gabe: giza eskubideak, demokrazia eta zuzenbidezko estatua. (...) Kulturarteko gizarteak politikak eta ekintzak garatzen ditu taldeen artean interakzio handiagoa sustatzeko. Konfiantza-maila eta gizarte-kohesioa handiak izateak gatazkei eta indarkeriari aurrea hartzen laguntzen du. Politiken eraginkortasuna handitzen dute, eta gizarteak erakargarri bihurtzen, bai pertsonentzat, bai inbertsioetarako”.

- Immigrazioa: dokumentu honetan, dibertsitatearen kudeaketa da funtsezko elementua, eta horretarako ikuspegia eraldaketa da, bai eta egungo eta geroko euskal gizartearen eredu berri bat sortzea ere; hau da, kulturartekotasuna. Ez dugu horregatik ahaztuko migrazio-mugimenduak funtsezko fenomeno bat direla, gure gizarteak eraikitzearen prozesu sozialak moldatzen eta baldintzatzen ari dena gaur egun. Mende honetako lehen hamar urteetan, ikusi dugu etorkin atzeritar asko eta askotarikoak iritsi direla, eta errotik eta estrukturalki aldatu dutela EAEko gizarteak. 2008ko krisiak migrazio-fluxuak moteldu besterik ez zuen egin, baina indartu egin dira azken urteetan, ekonomiaren susperraldi mediatikoaren babesean. Ondorioa argia da, agerikoa: aldatu horiek gelditzeko iritsi dira, eta immigrazio-fluxuek, partikulariki, eta pertsonen mugikortasun gero eta handiagoak, oro har, etorkizuneko euskal gizarteak zizelkatuko dute hurrengo hamarkadetan. Migrazio-mugimendu horiek ongi kudeatzeko gure gaitasunak baldintzatuko du arrakasta, eta, horretarako, herritartasun berria onartzeak eta pertsona eta talde sozial guztien goranzko mugikortasun soziala ahalbidetzeak: “... gizarteak oro har bere giza oinarriaren eta oinarri demografikoaren behin betiko handiagotzetzat hartu behar du etorkinen presentzia, bai eta gizarte-mugigarritasun handiago baten adierazgarritzat ere” (*Immigrazioari buruzko II. Euskal Plana, 2007-2009, 61. or.*).

Immigrazioaz ari garenean, besteak beste gizarteratzea eta gizarte-inklusioa ere aipatu behar dira. Lehendabizikoaekin, kultura desberdinak dituzten pertsonak gizarte-testuinguru berean suertatzen direnean abian jartzen diren elkarrekiko noranzko biko integrazio-prozesuak aipatu nahi ditugu. Gizarteratzeaz mintzatzean, ezin ditugu soilik aipatu etorkinak egokitzearen prozesuak, ezin dugu esan asimilazio-prozesu hutsa denik. Gorago aipatutako kulturartekotasun-konzeptua dela eta, gizarteratzea euskal gizarteak osatzen duten pertsona guztien arteko prozesu dialektiko eta interaktibo bat dela esan behar dugu.

Era berean, gizarte-inklusioa alderdi anitzeko ikuspegi batetik ulertzen dugu, aurpegi asko dituen prozesu konplexu baten moduan, ondo dioen bezala Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren IV. *Gizarteratzeko Euskal Plana 2017-2021* delakoaren zirriborroak (40. or. eta hur.). “Plan honen abiapuntuan aktibazio inklusiboko edo herritartasun aktiboko eredu bat hartzeko beharra dago, hain zuzen ere, inklusioaren alderdi-aniztasuna eta dauzkan inplikazioak aitortzeko. Eta horretarako eraiki beharreko gizarteratze-ereduak, lehentasunez enplegu normalizatuaren lorpenean zentratuta egon behar badu ere, gizartean balioetsitako beste jarduera batzuetara ere irekita egon behar du”.

1.4. Oinarrizko printzipioak

Eusko Jaurlaritzaren beste plan batzuekin bat etorrira, dokumentu honek oinarrizko lau printzipio espezifiko eta bi printzipio transbertsal ditu jarraibide eta gidari. Espezifikoak hauek dira:

- Berdintasunaren, giza eskubideen eta diskriminaziorik ezaren printzipioa. Aurreko planetako gogoetei heltzen diegu berriz ere. Kasu honetan, geure egiten dugu osorik printzipio hau, indar osoa duelako; gainera, *Immigrazio, Herritartasun eta Kulturarteko Bizikidetzari buruzko III. Plana, 2011-2013* bera ere argitzen zuen (12. or. eta hur.). “Berdintasun-printzipioak giza eskubideen titulartasuna albait zabalen izatea dakar, EAeri dagozkion eskumenen eremuan. Eta eskubide zibilez ez ezik, gizartearen, ekonomiaren eta kulturaren arloko eskubideez ere ari gara eta bertan bizi diren guztientzat orokortzen dira eskubide horiek, haien nazionalitatea kontuan izan gabe; eskubide politikoez ere mintzo gara, autonomia- eta toki-ordenamendu juridikoan txerta daitezkeen neurrian. Bestalde, eskubide eta betebeharren berdintasun formalarekin batera, berdintasuna sustatzeak bi alderdi biltzen ditu: alde batetik, tratu-berdintasuna, eskubideen bazterketa eta diskriminazio mota oro debekatuz pertsonen ezaugarri fisikoak, ideiak, kultura, sexu-orientazioa, posizio ekonomikoa eta abar direla-eta; eta bestetik, aukera-berdintasuna, pertsona guztiek gizartean aukera berak izateko eskubidearekin eta ekitatearekin loturik, aurreiritzi errotuen eraginpean dauden talde jakin batzuen gizarte-desabantailako egoera orekatzeko neurriak hartzeko aginduz botere publikoei”.
- Interakzio-printzipioa: kulturartekotasunaren pedagogia urbanoaren giltzaria da. Kontaktuaren teoriaren laguntzarekin, interakzioa da egoera egokia sortzea eguneroko bizitzako elkartze positibo eta eraikitzaileko, kultura, generoa, sexu-identitatea, adina, estatus sozioekonomikoa eta abar askotarikoak diren testuinguruetan.

- Gizarte-kohesioaren printzipioa: Eskubide-berdintasuna, tratu-berdintasuna eta aukera-berdintasuna ezinbestekoak dira gizarte-kohesiorako, ulertuta hori justizia sozialaren adierazpide bat dela, hau da, "... elkarrekin bizitzeko modu bat..., baliabideak partekatzeko eta gizartean dauden desberdintasunak errespetatzeko. Ideia horrek eskatzen du arreta berezia jartzea inklusioa sustatzen duten politika publikoen garapenean, bai eta kalitatezko gizarte zerbitzu irisgarriak bermatzea ere" (*Euskadi 2020. XI. Legegintzaldiko Gobernu Programa. 2016-2020*, 82. or)
- Elkartasun-printzipioa: jarduera-plan hau guztiz bat dator Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak *Bizikidetza eta Giza Eskubideen Plana 2017-2020* delakoarekin (34. or. eta hur.), gidatzen duen elkartasun printzipioa ulertzeaz den bezainbatean: "Gizarteak eta erakunde publikook berdintasunean eta elkartasunean oinarrituta dauden eta integrazioa, kohesioa eta justizia xede dituzten politika sozialak bultzatu behar ditugu. Politika publiko horiek hezkuntzaren, osasunaren edo oinarritzko gizarte-prestazioen unibertsaltasunaren alde egin behar dute irmo, eskubideen, betebeharren eta aukeren berdintasuna ahalbidetzen duen gizarte kohesionatu bat izan dezagun".

Printzipio transbertsalak hauek dira:

- Genero-ikuspegiaren printzipioa: plan hau genero-ikuspegiak osorik eta zeharka kutsatuta dauka, atzerritar etorki, jatorri eta/edo nazionalitateko emakumeek askotariko diskriminazio-egoera anitzi egin behar dietelako aurre: emakumeak izateagatik, etorkin atzerritarrek izateagatik, langileak izateagatik, batzuetan dokumentazio arauturik ez izateagatik, gure hizkuntza ez jakiteagatik eta abar. Horregatik, plan honetan ez dago emakumeentzako esparru espezifikorik, baina genero-ikuspegia esparru guztietan dago. *Immigrazio, Herritartasun eta Kulturarteko Bizikidetzari buruzko III. Plana, 2011-2013* lanak (14. or.) ezarritako ildoari jarraitzea da kontua, genero-ikuspegia sartu baitzituen bere printzipio nagusien artean, eta hau esaten baitzuen: "Genero-harreman berrien bultzadarekin eraiki behar dugu gure gizartea, bertan emakume etorkinek dagozkien eskubide eta askatasun guztiak izan ditzaten". Printzipio hori bistatik ez galtzeko, planak Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saileko Berdintasun-teknikariaren laguntza du.
- Euskararen printzipioa: hemen ere ez dugu nabarmendu nahi izan atzerritar etorki, jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonen artean euskara sustatzearekin eta pertsona horiek euskara ikastearekin zerikusia duten ekintzak biltzeko esparru espezifiko bat. Izan ere, esparru guztietan du garrantzi berezia gure hizkuntzak, euskara eta gaztelania, ikasi eta ondo erabiltzeak, sarbidea delako prestakuntza eta enplegurako, elkarbizitzarako, gizarteratze eta inklusiorako, egungo eta etorkizuneko belaunaldien gizarte-mugikortasunerako; hitz batean, kulturartekotasunaren prozesu orokorrerako.

2. ANTOLAKETA, EGITURA ETA HELBURUAK

Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan Jarduteko V. Plana, 2018-2020 izenekoa gauzatzeak eta Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren ekintza gero eta ugariagoek argi uzten dute berrantolatu behar direla Eusko Jaurlaritzaren egungo instantzia, zerbitzu eta tresnak, behar bezala erantzuteko kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruan hurrengo urteetan azaleratuko diren erronkei.

Plan honetan deskribatutako helburuak eta ekintzak zentzuz ulertzeko eta testuinguruan jartzeko, lehenik eta behin, sektorean lan egiten duten eragileak antolatzeko gure proposamena deskribatu behar dugu, eta azaldu zen den oro har jarduera-planaren egitura.

2.1. Sektoreko eragileen antolaketa

Badirudi berriz antolatu behar direla kulturarteko bizikidetzaren eta immigrazioaren esparruan lan egiten duten Eusko Jaurlaritzaren mendeko eragileen rola, diputazioekin eta udalekin, haien eskumen-esparruak errespetatuta, eta EAEko gizartearekin eta elkarteekin sarearekin koordinatuki lan egingo duen sistema bat berreraikitzeke.

- Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak honako hauek egin beharko lituzke: gidatzea, erakundeen artean loturak ezartzea, lantalde bateratuak zuzentzea, gainerako eragileen ekimenak koordinatzea, jarduera-plana gauzatzeaz

arduratzea, planaren jarraipena eta ebaluazioa egitea, diruz laguntzeko lerroak kudeatzea eta kudeaketa administratiboa eta instituzionala zaintzea.

- Biltzen-en lana, bazter utzi gabe jarduera-plan honen ekintzetako bat, hain zuzen ere, azterketa zehatza egitea izateko aukera, hau izan liteke: pertsonekin eta taldeekin esku hartuz, profesionalak prestatuz, esparru sektorialetan eragileei lagunduz, kultura-kolektiboekin harremana izanez, proiektu berritzaileak garatuz eta abarren bidez lortutako ezagutza praktikoa eta testuinguruan jarria sistematizatzea, kalitateko informazioa eman dezan, jardun politikorako erabakiak hartzeko.
- Ikuspegi-ren eginkizunak, bazter utzi gabe jarduera-plan honen ekintzetako bat, hain zuzen ere, azterketa zehatza egitea izateko aukera, Zuzendaritzak erabakiak hartzeko informazioa izateko beharretara bidera litezke gehiago, eta honako hauek direla esan liteke: informazio adierazgarria ematea jardun politikorako; dokumentu exekutibo monografikoak egitea, diskurtso sozial eta politikoa sortzeko; ikerketak egitea; eta informazioa eta laguntza ematea sektorean lan egiten duten eragileei.
- Aholku Sarearen eginkizun nagusiak hauek lirateke: kalitateko laguntza juridikoa ematea atzeritar jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsonen; esparru juridiko honetan lan egiten duten eragileak elkartzeko eta koordinatzeko gunea izatea; eta arloan izan daitezkeen kontsultei erantzutea eta aholkua ematea.
- Eraberean Sarearen eginkizunek diskriminazioaren aurkako eta tratu-berdintasunaren aldeko borrokari lotutakoak izaten jarraituko lukete, baina, beharbada, baliteke berriz aztertu eta zehaztu behar izatea zer eginkizun betetzen duen lurralde-mailan sortzen ari diren beste ekimen batzuekin koordinatuta ezartzen den sistemaren barruan. Etorkizunean, diskriminazioaren aurkako behatoki bat har lezake barruan, arreta berezia jarrita diskriminazio instituzionalean.
- Immigraziorako Foroa: nabarmen aldatu gabe elkartzeko, informazioa trukatzeko, gogoeta egiteko eta eztabaidatzeko gune gisa betetzen duen eginkizuna, foroko batzordeen lanaren barruan jarduera-plan honetan bakoitzaren gai-arlorako jasotako ekintzen jarraipenarekin zerikusia duten egiteko batzuk har litzake. Era berean, ematen du une egokia dela batzorde horiek berraztertzeko, eta plan honetako jarduera-esparru programatikoen ildoan jartzeko, bai eta etorkizuneko kulturarteko gobernantza-eredua aztertzeko ere.

1. eskema Sektoreko eragileak



Sektoreko beste eragile garrantzitsu batzuk hauek dira:

- Udal-teknikariak: kulturartekotasunaren, bizikidetzaren eta immigrazioaren esparruan lan egiten duten udal-teknikariez ari gara. Uste dugu koordinazio-loturak ezar daitezkeela, batzuen zein besteen jarduerak hobetzeko, bakoitzaren eskumenak eta lan independentea errespetatuta. Plan honek Zuzendaritzaren eta udalen ahalegin komunak hobeto koordinatzeko eta komunikatzeko ekintzak jasotzen ditu.
- Elkarteen sareak, boluntario-erakundeak eta hirugarren sektorea delakoa osatzen duten hainbat erakunde eta koordinakundek, bai eta sindikatuak, enpresa-erakundeak, unibertsitateak eta alderdi politikoak ere, sistema honetan inplikaturik egon beharko lukete, sistemaren parte izan, eta informazioa eman beharko lukete, gogoetetan parte hartu, aholkatu, eztabaida sortu eta plan honetako ekintzak abian jartzen lagundu, ahal duten neurrian, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko Legearen zioen azalpenean jaso bezala: “Erakunde horiek pertsona edo

kolektibo hauen alde lan egiten dute: adinekoak, haurrak eta nerabeak, gazteak, emakumeak, indarkeria matxista sufritzen ari diren edo sufritu duten pertsonak, desgaitasunak dituztenak edo mendekotasunean daudenak, gaixotasunen bat dutenak, etorkinak, langabeak, bazterketa sozialeko egoeran edo arriskuan daudenak, beste pertsona edo kolektibo batzuk, edo biztanleria oro har”.

- Diputazioak: era berean, ematen du bidezkoa dela diputazioekin eta, diputazioen barruan, sektore honetan lan egiten duten teknikariekin komunikatzeko eta koordinatzeko bide sistematikoak ezartzea, elkarren eskumenak errespetatuz eta sinergia eta interes komunak baliatuz.
- Eusko Jaurlaritzako beste sail eta instantzia batzuk: badirudi bereziki egokia dela lankidetzaren protokolo iraunkorrak ezartzea Zuzendaritzaren eta esparru mugakideetan edo Zuzendaritzaren esparruekin teilkatuta dauden beste batzuetan lan egiten duten Eusko Jaurlaritzako sail, zuzendaritza eta instantzia batzuen artean. Besteak beste, hauek azpimarra ditzakegu: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila bera; Hezkuntza Saila; Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia; eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Ahaztu gabe, Osasun Saila, Etxebizitza Saila edo Landa Garapeneko Zuzendaritza, etb.

2.2. Planaren egitura


Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan Jarduteko V. Plana, 2018-2020 hau ez da bakarrik lan-plan bat legegintzaldia amaitu arteko urteetarako (jasotzen dituen ekintza guztiei ezingo zaie heldu epe horretan), bai eta biltzen duen estrategiaren eta xede dituen mugarren alde Zuzendaritzak egindako epe ertain eta luzeko apustu bat ere.

Hiru atal handitan antolatuta dago, eta atal bakoitzean hiru neurri mota daude: estrategikoak, antolaketakoak eta programatikoak.

1. Neurri estrategikoak: neurrien helburua da immigrazioaren hasierako esparrua birkokatzea, orain herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren kontzeptuzko gune zabalagoa bihurtuta, eta jardun politikoaren arreta- eta lan-foku nagusietako bat izanda.

Atal honetan, guztira, hamaika ekintza identifikatu ditugu, eta haien ezarpen eta garapenak funtsezko ekarpena egin behar du herri-proiektuaren eraikuntzan, herritar guztien eskubide- eta betebeharrak berdintasunean oinarrituta, desparekotasunak murrizteko eta gizarte-kohesioa sustatzeko estrategia moduan.

2. eskema Neurri motak



2. Antolaketako neurriak: herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruan lan egiten duten eragile, instantzia eta erakunde guztiak biltzeko sistema bat sortu, abian jarri eta garatzeko neurriak dira, hori guztia modu antolatuan, sistematikoan, koherentean eta xede komunekin egin dezaten. Sistema honetan, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak rol protagonista izango du, normala denez bere eskumen-esparrua eta aldundiena eta udalena errespetatuta.


Atal honetan koka daitezkeen hamabost ekintza identifikatu ditugu.

3. Neurri programatikoak: neurri zehatzak dira, Zuzendaritzaren lanaren lehentasunezko hiru ekintza-esparruetan sailka daitezkeenak: hezkuntza-esparrua (zazpi neurri), enpleguaren eta prestakuntzaren esparrua (hamahiru neurri) eta bizikidetzaren esparrua (hemeretzi neurri). Lehenengo bietan, jarduketak, hurrenez hurren, Hezkuntza Sailak eta Lanbidek gidatu behar dituzte, baina Zuzendaritzak jokabide aktiboagoa, proaktiboa eta konprometitua izan behar du. Hirugarrenean, udalen lana da funtsezkoa.

Gainera, Zuzendaritzaren beste hiru jarduera-esparru osagarri batzuk ere identifikatu ditugu: osasunaren esparrua (hiru neurri), etxebizitzarena (bost neurri) eta juridikoa (hiru neurri).

Azkenik, Zuzendaritzak, bereziki zaurgarriak direlako, edo baztertuta gelditzeko arrisku handiagoa edo marjinazioa jasateko aukera handiagoa dutelako, kontu handiz zaindu behar dituen kolektibo espezifiko batzuetarako jarduera-esparru berezi batean bildutako ekintza batzuk ere aipatu nahi izan ditugu (hogeita sei neurri).

3. eskema Jarduera-eremuak



Jarduera-neurri programatikoak hiru esparrutan daude bilduta:

- lehentasunezko jarduera-esparruak: ekintza hezkuntza-esparruan; enpleguarenean eta enplegurako prestakuntzarenean; eta tokian tokiko bizikidetza-esparrua.
- esparru osagarriak: osasunaren esparruan, etxebizitzarenean eta juridikoan garatuko diren ekintzak.
- esparru bereziak: kalteberatasun-egoera berezian egoteagatik arreta behar duten kolektiboekin nagusiki esku hartzeko esparruei buruzkoak direlako ematen zaie izen hori: atzeritar jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonak, hala nola adingabeak dituzten emakumeak, emakume musulmanak, etxeko emakumezko langileak, mendekotasuna duten pertsonak zaintzen dituztenak, prostituzioan dihardutenak, lagundu gabeko adingabe eta gazte atzeritarrak, etorkinen seme-alabak.

Neurri guztietan, estrategikoak, antolaketa-esparrukoak edo programatikoak izan, genero-berdintasuna eta hizkuntza-normalizazioa zeharkako presentzia duten printzipioak dira, bai ekintza espezifikoetan, bai beste esparru batzuetako xede espezifikoak dituzten beste batzuetan sartuta daudenetan.

2.3. Helburuak

Planaren helburu orokorra:

- “Oinarriak jartzea, herritar guztien eskubide- eta betebehar-berdintasunaren inguruan kohesionatutako etorkizuneko euskal gizartea eraikitzeko, kultura-dibertsitate gero eta handiagoa errespetatuta, eta bizikidetza sustatuta kulturartekotasunaren ikuspegitik”.

Neurri multzoen helburu sektorialak:

- Neurri estrategikoak:
 - “Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren eginkizuna indartzea kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruan lan egiten duten eragileen artean”.
 - “Diskurtso politikoa sortzea eta kulturartekotasunaren eta immigrazioaren kudeaketa birkokatzea agenda eta jardun politikoaren leku zentral eta estrategiko batean, etorkizuneko euskal gizartea eraikitzeko giltzarri moduan (Herri Proiektua)”.
 - “Ahalduntzea eta ezagutza sortzea esparru honetan lan egiten duten eragileen artean”.
- Antolaketa-neurriak:
 - “Herritartasunaren kulturartekotasunaren eta immigrazioaren sektorean lan egiten duten eragileen sistemaren koordinazioa eta sinkronizazioa hobetzea”.
 - “Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren gidari-rola indartzea sistema horretan”.
- Neurri programatikoak hezkuntza-eremuan:
 - “Ikasle guztien garapen osoa eta eskola-arrakasta bermatzea, inklusio-, ekitate- eta bikaintasun-printzipioak errealitate bihurtuta”.
 - “Oreka handiagoa, gizarte-kohesioa, kulturartekotasuna eta bizikidetza lortzea gure ikastetxeetan eskolatze inklusiboaren bidez”.

- › “Esparru honetan lan egiten duten eta elkarri eragiten dioten kolektiboak sentiberatzea eta prestatzea kulturartekotasunaren kudeaketarekin zerikusia duen orotan”.
- Neurri programatikoak enplegu-eremuan:
 - › “Esparru honetan lan egiten duten eta elkarri eragiten dioten kolektiboak sentiberatzea eta prestatzea kulturartekotasunaren kudeaketarekin zerikusia duen orotan”.
 - › “Atzerritar jatorri eta/edo etorkiko pertsonentzako lanerako orientazio-prozesu eta -protokoloetan atzerritar jatorriko pertsonak duten sarbidea hobetzea, enpleguaren aktibazioa sustatzeko”.
 - › “Atzerritar jatorri eta/edo etorkiko pertsonak lan-merkatuari dagokionez daukaten sarbidea hobetzea, eta aurre egin behar dieten oztopoak gutxitzea”.
 - › “Atzerritar jatorri eta/edo etorkiko pertsonak prestatzeko eta birziklatzeko prestakuntza-eskaintza zabaltzea eta hobetzea”.
- Neurri programatikoak bizikidetza-eremuan:
 - › “Atzerritar jatorriko pertsonen harrera egiteko laguntzak finkatzea”.
 - › “Presentzia areagotzea udal-esparruan, eta udalbatzei laguntzea, udal-teknikarien sarea mantentzen, eta kulturarteko bizikidetza hobetzeko ekintzak finantzatzen”.
 - › “EAEko gizarte osoa sentiberatzea kulturarteko konpetentziak eskuratzearekin zerikusia duen orotan, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokan, diskriminazioaren eta atzerritar jatorriko pertsonenganako aurreiritzi eta estereotipoen aurkakoan eta hizkuntza-dibertsitatean”.
 - › “Neurri eta ekintza proaktiboak prestatzea, EAEko gizartearen kulturartekotasuna bistaratzeko eta gure gizartearen kultura-dibertsitatea ulertu eta errespetatzeko”.
- Neurri programatikoak osasun-eremuan:
 - › “Esparru honetan lan egiten duten eta elkarri eragiten dioten kolektiboak sentiberatzea eta prestatzea kulturartekotasunaren kudeaketarekin zerikusia duen orotan”.

- › “Zaintzea atzerritar etorki, jatorri eta/edo nazionalitateko biztanleek sarbidea dutela osasun-arretan, kulturarteko ikuspegitik, eta EAEko gainerako biztanleen baldintza beretan”.
- Neurri programatikoak etxebizitza-eremuan:
 - › “Esparru honetan lan egiten duten eta elkarri eragiten dioten kolektiboak sentiberatzea kulturartekotasunaren kudeaketarekin zerikusia duen orotan”.
 - › “Atzerritar etorki, jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonen etxebizitza EAEko gainerako biztanleen baldintza beretan eskuratzeko aukera izan dezaten bideratzea”.
 - › “EAEko Administrazioak sustatutako eraikin sozialetan eta/edo promozioetan bizitegi-metaketak, -segregazioak eta -ghettoak sor ez daitezen lortzea”.
- Neurri programatikoak eremu juridikoan:
 - › “Doako eta kalitateko laguntza juridikoa ematea atzerritar etorki, jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonen, dauzkaten eskubide eta betebeharre dagokienez”.
 - › “Laguntza juridikoa ematea Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzari Atzerritarrei buruzko Legeaz eta atzerritar jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonen herritar-eskubide eta -betebeharre dagokienez”.
 - › “Bermatzea atzerritar etorki, jatorri eta/edo nazionalitateko herritarrek benetan eskura ditzaketela bitarteko sozialak EAEko gainerako biztanleen baldintza beretan”.
- Arreta bereziko kolektiboentzako neurri programatikoak:
 - › “Atzerritar jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonen kolektibo edo taldeetan ezagutzea eta deskribatzea arazo handienak dituztenak integrazio eta inklusio sozialaren ikuspegitik, familia-arazo handienak dituztenak, lan-merkatuan sartzeko arazo handienekoak eta gizartetik kanpo geratzeko arriskurik handiena dutenak”.
 - › “Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren aginduen bidez finantza-laguntza ematea egoera bereziki arazotsuetan dauden atzerritar jatorri eta/edo nazionalitateko kolektiboekin lan egiten duten erakundeei; kolektiboak, besteak beste, hauek dira: adingabeak dituzten emakumeak, emakume

musulmanak, etxeko emakumezko langileak, prostituzioan diharduten emakumeak, lagundu gabeko adingabe atzerritarrak, lagundu gabeko gazte atzerritarrak, etorkin atzeritarren seme-alabak, indarkeria matxistaren emakumezko biktimak, ijito errumaniarrak”.

- “Kalitateko informazioa izatea egoera bereziki arazotsuetan dauden atzeritar jatorri eta/edo nazionalitateko kolektibo batzuez; kolektiboak, besteak beste, hauek dira: adingabeak dituzten emakumeak, emakume musulmanak, etxeko emakumezko langileak, prostituzioan diharduten emakumeak, lagundu gabeko adingabe atzerritarrak, lagundu gabeko gazte atzerritarrak, etorkin atzeritarren seme-alabak, indarkeria matxistaren emakumezko biktimak, ijito errumaniarrak”.
- “Kontsulatu atzeritarrekin akordioak egiteko aukera aztertzea, azkarrago erantzun dezaten ohiz kanpoko kalteberatasun berezia duten pertsonen kasuetan”.

Ekintza bakoitzaren helburu espezifikoak: ekintza bakoitzaren deskribapen xehatuan, bosgarren atalean, ekintza zehatz bakoitzaren helburu espezifikoak adierazten dira.

2.4. Planaren jarraipena eta ebaluazioa

Planaren hedapenaren jarraipena eta amaierako ebaluazioa egiteko, bi prozesu desberdin eta elkarren osagarri proposatzen ditugu:

1. Jarraipena: planaren garapenaren jarraipena egiteko eta, horren ondorioz, egokituz gero, neurri zuzentzaileak ezartzeko, helburu berriak jartzeko, ekintza berriak erabakitzeke, plan honetan jasotakoak aldatzeko eta abar, planaren garapenaren egoeraren urteko berrikuspina proposatzen dugu. Kontuan hartuta, alde batetik, Foroko batzordeek, besteak beste, bakoitzari dagozkion ekintzen jarraipena egin beharko dutela, eta batzorde bakoitzean Zuzendaritzako pertsona bat dagoela; bestetik, sistemaren antolaketa berrian Zuzendaritzaren eta aldundien nahiz udal-teknikarien arteko aldizkako bilerak ezartzen direla; eta, azkenik, halaber, planak zehazten duela nolakoa izango den Zuzendaritzaren eta Eusko Jaurlaritzako beste sail eta instantzia batzuen arteko elkarlana, baliteke aski izatea urtean jarraipen-bilera bat egitea, eta bilera horretara prozesu hauekin zerikusia duten Zuzendaritzako pertsona guztiak joatea.
2. Planaren ebaluazioa: planak ezarritako epea amaitu ondoren, planean jasotako ekintzei zer neurritan heldu zaien ebaluatzeke txosten bat egingo da, ekintza bakoitzean ezarritako adierazleak oinarri hartuta.

3. METODOLOGIA

Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan Jarduteko V. Plana, 2018-2020 hau egiteko, *Immigraziorako Euskal Estrategia, 2014-2016* ebaluatzeko txostena kontuan hartu da; bereziki, txostenaren ondorioak eta gomendioak. Era berean, estrategia parte-hartzaile eta partaidetu bat garatu da, errealitatearen diagnostiko oso eta ahalik eta objektiboena den batean oinarrituta, zeinean sektorean lan egiten duten eragile guztiek parte hartu baitute.

Lehen fasean (2017ko urria-abendua), eta zegoen dokumentazioa bildu eta aztertu ondoren, sektore honetan lan egiten duten xede-publikoetara jo genuen, zer iritzi zuten jakiteko, eta berorien elkarlana izateko:

- herritartasunaren, dibertsitatearen eta immigrazioaren esparruan lan egiten duten zenbait erakunde eta elkartetako 40 pertsonari sakonean egindako elkarrizketa pertsonalak.
- 12 bilera (*focus group*) *Euskal Autonomia Erkidegoko herritar etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroak* dituen sei batzordeekin, esparru akademikoko eta enpresa pribatuko adituekin, hirugarren sektoreko erakundeekin, udal-esparruan lan egiten duten teknikariek, eta Biltzeneko eta Ikuspegiko langileekin.

Geroago (2018ko urtarrila-martxoa), jarduera-plan hau landu eta idatzi zen, aurretiko dokumentazioa oinarri hartuta, zeinaren zirriborroa erkatu egin baitzen lehen aipatu taldeekin egindako bilera monografikoetan.

- 12 bilera (*focus group*) *Euskal Autonomia Erkidegoko herritar etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroak* dituen sei batzordeekin, esparru akademikoko eta enpresa pribatuko adituekin, hirugarren sektoreko erakundeekin, udal-esparruan lan egiten duten teknikariek, eta Biltzeneko eta Ikuspegiko langileekin.

Guztira, bi bilera izan dira Foroko batzordeetako kideekin (Baliabide Sozialak eta Etxebizitza, Osasuna, Hezkuntza, Berme Juridikoak eta Giza Eskubideak, Laborala, eta Herritarren Partaidetza, Kultura eta Sentsibilizazioa) plana bere osotasunean hausnartzeko helburuarekin baina batez ere, bere jardun-esparru espezifikoaren inguruan hausnartzeko.

Jarraian, erkatzearen ondoriozko zirriborro berria zabaldu egin zen, eta bidali Eusko Jaurlaritzako sail batzuetara (Lehendakaritza, Segurtasuna, Etxebizitza, Enplegu eta Gizarte Politikak- Enpleguko, Gazteria eta Lanbideko Zuzendaritza-, Osasuna, Garapen Ekonomikoa, Emakunde, Kultura eta Kirola), hiru foru diputazioetara eta Eudelera baita beste erakunde batzuetara ere, haien ekarpenak eta iradokizunak ere jasotzeko.

Guztira, gutxienez, 120 pertsona inguruk lagundu dute:

Gainera, prozesu osoan bi erkatze-taldek parte-hartze aktiboa izan zuten, prozesu osoan zehar sortuz joan den dokumentazio osoa aztertu baitzuten, eta hileroko lan-bilerak izan baitzituzten, jarduera-planaren prestaketaren jarraipena egiteko. Taldeetako bat Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saileko Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren arduradunek osatu zuten (bi pertsonak), eta bestea, Zuzendaritzako bertako teknikariek (8 pertsonak).

Behin Planaren azken bertsioa idatzi ondoren, *Euskal Autonomia Erkidegoko Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa* deituko da honen berri emateko.

4. JARDUKETA- PROPOSAMENAK

Atal honetan, labur aipatuko dugu *Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan Jarduteko V. Plana, 2018-2020* honetan proposatutako 102 ekintzetako bakoitza, hiru atal handitan banatuta:

Ekintza horien guztien artean, batzuk erreaktiboak dira, hau da, egoera arazotsu bat konpondu edo, behintzat, arindu nahi dute; beste batzuk, berriz, proaktiboak, edo, gauza bera dena, bizikidetza eta kohesio sozialeko giro berriak sortu nahi dituzte, EAEko askotariko herritarren eskubideen eta betebeharren berdintasun-printzipioan oinarrituta.

4.1. Neurri estrategikoak

Helburua: “Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren eginkizuna indartzea kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruan lan egiten duten eragileen artean”.

- 4.1.1. Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza finkatzea, zerbitzu-burutza bat sortuta, Zuzendaritzaren ekintzak koordina ditzan immigrazio- eta kulturarteko bizikidetza-arloan.
- 4.1.2. Geroko legegintzaldi batean, Herritartasun, Kulturartekotasun eta Immigrazio Zuzendaritza berreskuratzea Eusko Jaurlaritzaren egitura egonkorren barruan.

- 4.1.3. Egungo lantaldeak indartzea, eta lantalde berriak ezartzea maila politikoan eta teknikoan Zuzendaritzaren eta Eusko Jaurlaritzako beste zuzendaritza eta/edo instantzia batzuen artean, bereziki nabarmenduta Hezkuntza Saila, Lanbide, Giza Eskubideen Idazkaritza Nagusia eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.

Helburua: “Diskurtso politikoa sortzea eta kulturartekotasunaren eta immigrazioaren kudeaketa birkokatzea agenda eta jardun politikoaren leku zentral eta estrategiko batean, etorkizuneko euskal gizartea eraikitzeke giltzarri moduan (Herri Proiektua)”.

- 4.1.4. Lan-mahai espezifikoko bat sortzea lege-esparrua aztertzeke, aukera eman dezan eskumen autonomikoen gehienera iristeko immigrazioaren, atzerriartasunaren eta bizikidetzaren esparruan, arreta berezia jarrita sustraitzeke baldintzei, lan-baimenei, bizileku-baimenei, familia-berrelikartzeari, harrerarako eskumenari eta abarri dagokien guztian.
- 4.1.5. *Euskadiko Immigrazioari buruzko Itun Soziala* berriz indartzea. *Bizikidetzaren aldeko Konpromisoa*, parlamentuko eta indar politiko nahiz gizarte-eragile guztien kulturarteko itun bidez, joko politikoaren mugak eta arauak ezar daitezzen esparru honetan.
- 4.1.6. Diskurtso politiko positiboa indartzea esparru honetan, eta diskurtso hori herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren inguruan kokatzea: harreratik integratzera eta dibertsitatearen kudeaketara.
- 4.1.7. 271/2012 Dekretua eguneratzea: gizartean esku hartzeke ekintza boluntarioa eta elkarteen parte-hartzea sendotzeke, pertsona, familia, talde eta erkidegoekin gizartean esku hartzeke jardueretarako eta gizartean esku hartzeke ezagutza kudeatzeko jardueretarako finantza-laguntzak esleitzeko irizpideak finkatzen ditu.
- 4.1.8. EAEn eta Espainiako Estatuan hizpide dugun lan-eremuan ezarritako politiken eta diskurtso politikoen diagnosi-azterketa bat egitea.

Helburua: “Jabekuntza sustatzea eta ezagutza sortzea esparru honetan lan egiten duten eragileen artean”.

- 4.1.9. Prestakuntza-plan bat egitea, bereziki Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzako teknikarientzat, eta, oro har, Enpleguako eta Gizarte Politiketako Sailarentzat.
- 4.1.10. Elkarleen sarea sendotzea herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruan, migratutako pertsonen kolektiboek gobernantzaren ikuspuntutik daukaten ordezkartza-gaitasuna eta mintzaidetza sozial eta politikorako gaitasuna indartzea, eta laguntza ematea nahiz harremanak eta aliantzak sustatzea eragile euskaltzaleen eta dibertsitatearen arlokoen artean.
- 4.1.11. Txostenak, materialak, zuzentzarauak, jardunbide oneko eskuliburuak (euskara eta dibertsitatea lotzen dituztenak barne) aztertzea, biltzea, itzultzea, egitea..., herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruan garrantzitsuak diren gaiei dagokienez (erlijio-ikurren erabilera, erlijio-guneen irekiera, eremu publikoen erabilera, erlijioaren eta genero-berdintasunaren arteko dialektika eta abar).

4.2. Antolaketa-neurriak

Helburua: “Herritartasunaren kulturartekotasunaren eta immigrazioaren sektorean lan egiten duten eragileen sistemaren koordinazioa eta sinkronizazioa hobetzea”.

- 4.2.1. Sistema bat berreraikitzea bizikidetzaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruan, bertan honako hauek sartu eta koordinatuta: Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza, Biltzen, Ikuspegi, Aholku Sarea, Eraberean sarea, Eusko Jaurlaritzako beste instantzia batzuk (Hezkuntza Saila, Lanbide, Giza Eskubideen Idazkaritza Nagusia, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza...), diputazioak, udalak, elkarleen sarea (edo hirugarren sektorea), beste erakunde batzuk (unibertsitateak, administrazioak, erakunde pribatuak eta abar), Immigraziorako Foroa eta Espainiako Gobernuako Ordezkaritza eta azpiordezkaritzak.
- 4.2.2. Biltzen-en helburuak aldatzea eta berriz zehaztea, eta berorren jarduna Zuzendaritzaren etorkizuneko ildo estrategikoen bidean jartzea.
- 4.2.3. Ikuspegi-ren helburuak aldatzea eta berriz zehaztea, eta berorren jarduna Zuzendaritzaren etorkizuneko ildo estrategikoen bidean jartzea.

- 4.2.4. Immigraziorako Foroa eta berorren sei batzordeak berrorientatzea, bai eta egokitzat jotzen diren beste batzuk ere, egitekoak bereganatuta planaren garapen eta ezarpenaren jarraipenari dagokionez.
- 4.2.5. Gizarte sustraitze-txostenen, etxebizitza egokitze-txostenen eta udal-esparruan integratzeko ahalegin-txostenen lanketa kokatzeko modurik egokiena aztertzea, udal-politikei lotuta egon dadin.
- 4.2.6. Online prestakuntza-eskaintza bat garatzea zenbait xede-publikorentzat (hezkuntza-langileak, osasun-langileak, segurtasun-langileak, gizarte-eragileak, enpresen sarea, hirugarren sektoreko erakundeak eta abar), presta eta sentibera daitezen prestatzaile-talde propioen eta/edo kanpokoek bidez.
- 4.2.7. Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren web-orriko edukiak eguneratzea herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruan.

Helburua: “Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren gidari-rola indartzea sistema horretan”.

- 4.2.8. Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren zuzentze- eta gidatze-eginkizuna finkatzea aurreko puntuko 4.2.1. ekintzan aipatutako sisteman.
- 4.2.9. Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak Lanbideko langileekin gidatu eta koordinatutako lantalde bat eratzea, lana eta ekimenak indartzeko atzeritar jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonak laneratzeko prestakuntzaren eta enpleguaren esparru espezifikoan.
- 4.2.10. Lantaldea finkatzea, Hezkuntza Saileko langileek gidatu eta koordinatuta, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren parte-hartzearekin, hezkuntza-esparruan atzeritar etorki, jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonen dagokienez gauzatzen ari diren lana eta ekimenak indartzeko.
- 4.2.11. Lantalde bat sortzea, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak gidatu eta koordinatuta, Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiko langileekin, arrazoi ekonomikoengatik, politikoengatik, humanitarioengatik edo ingurumenari lotuta daudenengatik migratutako pertsonen esparru espezifikoan lana eta ekimenak indartzeko, asiloa eta aterpea eskatzen dituzten pertsonak ahaztu gabe.

- 4.2.12. Lantalde bat sortzea, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak gidatu eta koordinatuta, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako langileekin, atzerriar jatorriko biztanleen artean euskara ikasi eta erabiltzea sustatzearekin zerikusia duten ekimenak eta lana sendotzeko.
- 4.2.13. Lantalde bat sortzea, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak gidatu eta koordinatuta, udaletako immigrazioko eta gizarte-zerbitzuetako teknikariekin, toki-esparruan atzerriar etorki, jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonentzat garatzen ari diren ekimenak eta lana sendotzeko.
- 4.2.14. Lantalde bat sortzea Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren eta hiru aldundietako immigrazioko teknikarien artean, eskubideak eskuratzeko esparruan, kulturartekotasunean eta immigrazioan garatzen ari diren ekimenak eta lana sendotzeko.
- 4.2.15. Lantalde bat finkatzea, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak gidatu eta koordinatuta, Segurtasun Saileko langileekin, segurtasun-indarretako eta udaltzaingoetako kideak kulturarteko ikuspegitik sentiberatzeko eta prestatzeko garatzen ari diren ekimenak eta lana sendotzeko.

4.3. Neurri programatikoak

4.3.1. Hezkuntza-eremua

Helburua: “Ikasle guztien garapen osoa eta eskola-arrakasta bermatzea, inklusio-, ekitate- eta bikaintasun-printzipioak errealitate bihurtuta”.

- 4.3.1.1. Zuzendaritzaren laguntza familiak prestatzearen eta ikastetxeetan inplikatzearen aldeko gune komunitarioen sorreran.
- 4.3.1.2. Zuzendaritzak laguntzea, udalekin eta diputazioekin batera, eta Hezkuntza Sailaren adostasuna izanda, boluntariotza baten erakundearteko sustapenean, mentoretza moduan indar dezan eskolaz kanpoko jardueren eta hezkuntza-ekimen ez-formalen esparrua bere hurbileko ingurunean, aldi baterako hezkuntza- eta gizarte-beharrak dituzten ikasleen artean.

Helburua: “Oreka handiagoa, gizarte-kohesioa, kulturartekotasuna eta bizikidetzaren lortzea gure ikastetxeetan eskolatze inklusiboaren bidez”.

4.3.1.3. Zuzendaritzak laguntzea *2016-2020ko eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana* ezartzeko eta garatzeko, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko langileekin batera.

4.3.1.4. Zuzendaritzak laguntzea atzeritar etorki, jatorri eta/nazionalitateko adingabeen artean euskara ikastea sustatzeko neurrien ezarpenean.

Helburua: “Kulturartekotasunaren kudeaketarekin zerikusia duen orotan lan egiten duten eta elkarri eragiten dioten kolektiboak sentiberatzea eta prestatzea”.

4.3.1.5. Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak laguntzea, prestakuntza-taldeak prestatzearen bidez, kulturartekotasunari buruzko gogoeta eta prestaketa sartzeko zuzendaritza-taldeak prestatzeko planean.

4.3.1.6. Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak laguntzea jardunaldi bat antolatzen ikasle guztien artean “kulturarteko konpetentzia” garatzeari buruz, sailen arteko lankidetzaren esparruaren barruan, *Euskal Autonomia Erkidegoko herritar etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroan* parte hartzen dutenen laguntzarekin, jardunaldi irekia izanda eskola-komunitate osoarentzat, batez ere zuzendaritza-taldeentzat.

4.3.1.7. Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren laguntza, familien prestakuntzan eta parte-hartzean jardunbide onak hautatu eta zabaltzeko.

4.3.2. Enplegu- eta prestakuntza-esparrua

Helburua: “Esparru honetan lan egiten duten eta elkarri eragiten dioten kolektiboak sentiberatzea eta prestatzea kulturartekotasunaren kudeaketarekin zerikusia duen orotan”.

4.3.2.1. Lanbideko eta lagundutako erakunde espezifikoetako orientazio-teknikariak sentiberatzea eta prestatzea, Eusko Jaurlaritzako Enplegu- eta Gizarte Politiketako Saileko prestakuntza-taldearen prestaketaren bidez, ikuspegi inklusibo

eta kulturartekoari, herritar-eskubide eta -betebeharrei eta etorkin atzerritarren gizarte-inklusioari dagokienez.

- 4.3.2.2. Erreferente diren atzerritar etorki, jatorri eta/edo nazionalitateko profesionalei buruzko komunikazio- eta sentsibilizazio-kanpaina bat garatzea EAEko gizartean.

Helburua: “Atzerritar jatorri eta/edo etorkiko pertsonentzako lanerako orientazio-prozesu eta -protokoloetan atzerritar jatorriko pertsonen duten sarbidea hobetzea, enpleguaren aktibazioa sustatzeko”.

- 4.3.2.3. Zuzendaritzak laguntzea etorkin atzerritar helduen artean (HHE) hizkuntzen ikaskuntza berrikusi eta sustatzeko, integratu eta prestakuntza eta enplegua lortzeko bidea delako, arreta berezia jarrita emakumezko eta gizonezko gazteengan.
- 4.3.2.4. Zuzendaritzak laguntzea lan-orientaziorako material informatiboak (enplegurako prestakuntza) zenbait hizkuntzatan egiteko.
- 4.3.2.5. Zuzendaritzak laguntzea prestatzeko eta laneratzeko laguntzen deialdien berrikuspenean: gauzatze-epeak egokitzea, laneratzeko baldintzak eta abar.

Helburua: “Atzerritar jatorri eta/edo etorkiko pertsonen lan-merkatuari dagokionez daukaten sarbidea hobetzea, eta aurre egin behar dieten oztopoak gutxitzea”.

- 4.3.2.6. Zuzendaritzak laguntzea ikasketa-tituluak atzerrian homologatzeko prozesua hobetzen eta arintzen: bigarren mailako ikasketak, profesionalak, unibertsitate-tituluak eta abar.
- 4.3.2.7. Zuzendaritzak laguntzea konpetentziak aitortzeko plan bat egiten administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonentzat.
- 4.3.2.8. Zuzendaritzak ekarpena egitea informazio-kanpaina bat egiteko profesionaltasun-ziurtagiriei, lanbide-esperientzia aitortzeari eta atzerriko tituluak homologatu eta baliozkotzeari buruz.

- 4.3.2.9. Zuzendaritzak ekarpena egitea sentiberatze-modulu bat sartzeko enplegurako prestakuntza-ibilbideetan ez diskriminatzeari, tratu-berdintasunari eta dibertsitateari buruz.
- 4.3.2.10. Zuzendaritzak ekarpena egitea prestakuntza-espezialitate bat aktibatzeko dibertsitatearen kudeaketa-arloan, enpresen eskura dagoen etengabe prestatzeko katalogoaren barruan.

Helburua: “Atzerritar jatorri eta/edo etorkiko pertsonak prestatzeko eta birziklatzeko prestakuntza-eskaintza zabaltzea eta hobetzea”.

- 4.3.2.11. Zuzendaritzak laguntza ematea sarbidea bideratzeko atzerritar jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonentzako alfabetatze digitalerako prestakuntza-eskaintzan
- 4.3.2.12. Zuzendaritzak laguntza ematea atzerritar jatorri eta/edo nazionalitateko etorkinen prestakuntzaren eta birziklatze-prozesuen azterketan: enplegurako aktibatzeko orientazioa eta prestaketa.
- 4.3.2.13. Zuzendaritzak laguntza ematea arazo bereziak dituzten eta gizartetik baztertuta geratzeko arrisku handiena duten kolektiboentzako prestakuntza-katalogo espezifikoa egiteko: adingabe atzerritar lagundu gabeak, emakumezko heldu musulmanak, kualifikazio txikiko Saharaz hegoaldeko gizonak, magrebtarren kolektiboa eta abar.

4.3.3. Bizikidetza-eremua

Helburua: “Atzerritar jatorriko pertsonen harrera egiteko laguntzak mantentzea eta hobetzea”.

- 4.3.3.1. Sailarteko eta erakundearteko lantalde bat sortzea, etorkinei, nazioarteko babesaren eskatzaileei, iheslariei, emigranteei eta itzulitakoei arreta emateko eta harrera egiteko eskualde zerbitzuak aztertu eta ezartzeko, edo EAEko Harrera Eredua.
- 4.3.3.2. Etorkin atzerritarrei harrera egiteko laguntzak mantentzea, berrikustea eta berrantolatzea, planaren lehentasunezko ildoekin bat etorrira.
- 4.3.3.3. Atzerritar gazteentzako gizarteratze-ibilbideak zabaltzea hirugarren sektoreko erakundeen bitartez.

Helburua: “Presentzia areagotzea udal-esparruan, eta udal-korporazioei laguntzea, udal-teknikarien sarea mantentzen, eta kulturarteko bizikidetzak hobetzeko ekintzak finantzatzeko”.

- 4.3.3.4. Elkarlanean aritzea EAEko udalekin, atzerriko etorkinen gizarte-inklusioan eta herritar-eskubide eta -betebeharren esparruan lan egiteko udal-teknikarien sare bat mantentzeko.
- 4.3.3.5. Laguntza ekonomikoa EAEko udalei, jarduerak gara ditzaten atzerriko etorkinen gizarte-inklusioan eta herritar-eskubide eta -betebeharren esparruan
- 4.3.3.6. EAEko udalek herritartasunaren, kulturarteko bizikidetzaren eta immigrazioaren esparruan egiten duten lanean esku hartzeko eta laguntzeko hiru talde sortzea, bat lurralde historiko bakoitzeko, udaletako (udalak edo mankomunitateak) teknikarien parte hartzearekin (espezifikoa kulturartekotasunean, edo ez-espezifikoa gizarte-ekintzan), Zuzendaritzaren estrategia EAEko lurralde osora irits dadin.
- 4.3.3.7. Laguntza ekonomikoa Euskadiko udalei (EUEDEL), itzulpen- eta interpretazio-lanak egin daitezen komunikazioa errazteko hizkuntza-arazoak dituzten atzerriko etorkinekin.

Helburua: “EAEko gizarte osoa sentiberatzea kulturarteko konpetentziak eskuratzearekin zerikusia duen orotan, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokan, diskriminazioaren eta atzerriar jatorriko pertsonenganako aurreiritzi eta estereotipoen aurkakoan eta hizkuntza-dibertsitatean”.

- 4.3.3.8. EAEko gizarte eta kolektiboak, elkarteak eta abar sentibilizatzea eta prestatzea hitzaldien, mintegien, komunikabideetan esku hartzearen eta abarren bidez, ikuspegi inklusibo eta kulturartekoari, herritar-eskubide eta -betebeharrei eta etorkin atzerriarren gizarte-inklusioari dagokienez.
- 4.3.3.9. Migratzaileen elkarten sarea prestatzea hitzaldien, mintegien, komunikabideetan esku hartzearen eta abarren bidez, ikuspegi inklusibo eta kulturartekoari, herritar-eskubide eta -betebeharrei eta etorkin atzerriarren gizarte-inklusioari dagokienez.
- 4.3.3.10. Zuzendaritzak diskriminazioaren aurka eta eskubideak eta zerbitzuak lortzean pertsona guztiek, atzerriar etorki, jatorri eta/edo nazionalitatea dutenak barne, tratu-berdintasuna izatearen alde egiten duen lana finkatzea, gogoetaren, azterketaren eta Eraberean sareak betetzen duen eginkizuna hobetzearen bidez.

- 4.3.3.11. EAEko segurtasun-arloko langileak (Ertzaintza eta udaltzaingoak) sentiberatzea eta prestatzea, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko prestakuntza-taldeek prestatketaren bidez), ikuspegi inklusibo eta kulturartekoari, herritar-eskubide eta -betebeharrei eta etorkin atzerritarren gizarte-inklusioari dagokienez.
- 4.3.3.12. Laguntza ekonomikoa ZAS Zurrumurruen Aurkako Sarearentzat, borroka egiten baitu atzerritar etorki, jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonen kolektiboek buruzko gezurrezko estereotipo eta aurreiritzien aurka, bai eta diskurtso arrazista, xenofobo eta diskriminatzaileen aurka ere, eta gizarte berdinezaleagoa izatearen alde egiten baitu.
- 4.3.3.13. Kulturartekotasunaren ikuspegia bistaratzea eta txertatzea Zuzendaritzaren, Sailaren eta Eusko Jaurlaritzaren komunikazio instituzionalean.
- 4.3.3.14. Jardunbide onen katalogo bat egitea, euskara eta hizkuntza-aniztasuna lotzen dituztenei buruzkoak barne, udal-esparruan, auzo-mailako esperientzia positiboekin, eta eragina izanik herrietako eta hirietako kulturarteko bizikidetzaren hobekuntzan.
- 4.3.3.15. Jardunbide onei buruzko akordio bat sinatzea komunikabideekin, generoaren gaian egindakoaren antzera mugak ezar daitezkeen herritartasunaren, kulturarteko bizikidetzaren eta immigrazioaren esparruan, iritzi publiko informatua, begirunezkoa eta eskubide eta betebeharren berdintasunean oinarritua eraikitzeari dagokionez.

Helburua: “Neurri eta ekintza proaktiboak prestatzea, EAEko gizartearen kulturartekotasuna bistartzeko eta gure gizartearen kultura-dibertsitatea ulertu eta errespetatzeko”.

- 4.3.3.16. Zuzendaritzaren ekarpena, goreneko agintari publikoak egon daitezkeen atzerritar etorki, jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonen kolektiboentzat seinalatuak diren egunetan, kultura-, kirol-, gizarte-adierazpideetan eta abarretan.
- 4.3.3.17. Udalerrietan edo auzoetan osatzen dituzten kolektiboek arteko interakzioa sustatzen eta eremu partekatuak sortzen dituzten ekintza proaktiboak hautematea, zerrendatzea eta sustatzea, euskara atzerritar etorkiko biztanleengana hurbiltzen duten eta hizkuntza-aniztasunaren eta bizikidetzaren inguruan gizarte-elkarguneak sustatzen dituzten ekintza guztiak barne.

- 4.3.3.18. Zuzendaritzaren ekarpena, atzerritar etorki, jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonak alderdi politikoan, administrazioen, erakunde publiko eta pribatu, kirolaren, euskal kulturaren, osasun-langileen, hezitzaileen eta abarren ordezkariak publikoan egon daitezkeen,
- 4.3.3.19. Erlijio-dibertsitatea kudeatzeko araudiak, dokumentuak eta tresnak berrikustea eta egituratzea.

4.3.4. Osasun-eremua

Helburua: “Esparru honetan lan egiten duten eta elkarri eragiten dioten kolektiboak sentiberatzea eta prestatzea kulturartekotasunaren kudeaketarekin zerikusia duen orotan”.

- 4.3.4.1. Osasun-arloko nahiz osasunetik kanpoko langileak sensibilizatzea eta prestatzea, Osakidetza prestatze-taldearen prestatzearen bidez, ikuspegi inklusibo eta kulturartekoari, herritar-eskubide eta -betebeharrei, kulturarteko konpetentziei eta etorkin atzerritarren gizarte-inklusiari dagokienez.
- 4.3.4.2. Osasunaren zientzien arloko ikasleak (medikuntza, odontologia, erizaintza, fisioterapia, farmazia eta abar) sensibilizatzea eta prestatzea, Osakidetza prestatze-taldearen prestatzearen bidez, ikuspegi inklusibo eta kulturartekoari, herritar-eskubide eta -betebeharrei, kulturarteko konpetentziei eta etorkin atzerritarren gizarte-inklusiari dagokienez.

Helburua: “Zaintzea atzerritar etorki, jatorri eta/edo nazionalitateko biztanleek sarbidea dutela osasun-arretan, kulturarteko ikuspegitik, eta EAEko gainerako biztanleen baldintza beretan”.

- 4.3.4.3. Elkarlanean aritzea Osasun Sailarekin, elkartearen sarearekin eta unibertsitateekin, atzerritar jatorri eta/edo etorkiko pertsonen osasun-arretan sartzeko aukera bera dutela adierazten duten datuak aurkitzeko, edo, bestela, horretarako neurri zuzentzaileak aztertzea.

4.3.5. Etxebizitza-eremua

Helburua: “Esparru honetan lan egiten duten eta elkarri eragiten dioten kolektiboak sentiberatzea kulturartekotasunaren kudeaketarekin zerikusia duen orotan”.

- 4.3.5.1. Zuzendaritzak ekarpena egitea EAEko etxebizitzari buruzko egungo araudien azterketan, eta kulturarteko ikuspegia jaso dezaten aldaketa egokiak egiteko proposamena aurkeztea leku egokietan.
- 4.3.5.2. Higiezinaren sektoreko profesionalak sentiberatzea eta prestatzea, ikuspegi inklusibo eta kulturartekoari, herritar-eskubide eta -betebeharrei, kulturarteko konpetentziei eta etorkin atzerritarren gizarte-inklusioari dagokienez.

Helburua: “Atzerritar etorki, jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonen etxebizitza EAEko gainerako biztanleen baldintza beretan eskuratzeko aukera izan dezaten bideratzea”.

- 4.3.5.3. Zuzendaritzak ekarpena egitea EAEko etxebizitzari buruzko material informatiboak egiteko zenbait hizkuntzatan, araudia EAEko gizartea osatzen duten kolektiboetara hurbiltzeko.
- 4.3.5.4. Zuzendaritzak ekarpena egitea Etxebizitzaren Behatokiak azterketa soziologikoak egiten dituenean ikusteko etxebizitza lortzeko aukera bera dutela EAEko gizartea osatzen duten kolektibo guztiek (edo, bestela, argitara ateratzeko egoera diskriminatzaileak eta/edo etxebizitza berdintasunean lortzeko oztopoak), arreta berezita jarrita atzerritar etorki, jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonengan.

Helburua: “EAEko Administrazioak sustatutako eraikin sozialetan eta/edo promozioetan bizitegi-metaketak eta -segregazioak sor ez daitezen lortzea”.

- 4.3.5.5. Zuzendaritzak ekarpena egitea Etxebizitza Sailak etxebizitza sozialak esleitzeko irizpideak (egokituz gero) aldatzea aztertzen eta proposatzen duenean, atzerritar etorki, jatorri eta/edo nazionalitateko pertsona gehiegi meta ez dadin eraikin, urbanizazio eta/edo hiri-eremu jakin batzuetan.

4.3.6. Esparru juridikoa

Helburua: “Doako eta kalitateko laguntza juridikoa ematea atzerritar etorki, jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonen, dauzkaten eskubide eta betebeharrei dagokienez”.

- 4.3.6.1. Zuzendaritzak atzerritar etorki, jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonentzako laguntza eta aholkularitza juridikoaren arloan egiten duen lana finkatzea, gogoetaren, azterketaren eta Aholku Sareak betetzen duen eginkizuna hobetzearen bidez.

Helburua: “Laguntza juridikoa ematea Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzari Atzerritarrei buruzko Legeaz eta atzerritar jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonen herritar-eskubide eta -betebeharrei dagokienez”.

- 4.3.6.2. Biltzen-en aholkularitza juridikoko zerbitzua mantentzea.

Helburua: “Bermatzea atzerritar etorki, jatorri eta/edo nazionalitateko herritarrek benetan eskura ditzaketela bitarteko sozialak EAEko gainerako biztanleen baldintza beretan”.

- 4.3.6.3. Txosten bat egitea aztertzeke zer baldintza eskatzen diren gizarte-bitartekoak eskuratzeko eta zer-nolako oztopo diren baldintza horiek atzerritar jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonentzat, eskubide horiek berdintasun-egoeran benetan izatea eragozten duten neurrian.

4.3.7. Arreta bereziko kolektiboak

Helburua: “Atzerritar jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonen kolektibo edo taldeetan ezagutzea eta deskribatzea arazo handienak dituztenak integrazio eta inklusio sozialaren ikuspegitik, familia-arazo handienak dituztenak, lan-merkatuan sartzeko arazo handienekoak eta gizartetik kanpo geratzeko arriskurik handiena dutenak (lurraldeka bereizita ahal denean)”.

- 4.3.7.1. Segmentazioko diagnosi-azterketa, kalteberatasun-, baztertuta geratzeko arrisku- eta/edo marjinazio-egoera berezietan dauden atzeritar jatorri eta/edo nazionalitateko etorkin-kolektiboak aurkitzeko.

Helburua: “Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren aginduen bidez finantza-laguntza ematea egoera bereziki arazotsuetan dauden atzeritar jatorri eta/edo nazionalitateko kolektiboekin lan egiten duten erakundeei; kolektiboak, besteak beste, hauek dira: adingabeak dituzten emakumeak, emakume musulmanak, etxeko emakumezko langileak, prostituzioan diharduten emakumeak, lagundu gabeko adingabe atzeritarrak, lagundu gabeko gazte atzeritarrak, etorkin atzeritarren seme-alabak, indarkeria matxistaren emakumezko biktimak, ijito errumaniarrak”.

- 4.3.7.2. Sailaren laguntza ekonomikoa, ardurapeko adingabeak dituzten emakumezko etorkin atzeritarrekin espezifikoki lan egiten duten erakundeentzat.
- 4.3.7.3. Sailaren laguntza ekonomikoa, gizarteratze eta inklusiorako arazoak dituzten eta adinekoak diren emakumezko etorkin atzeritar musulmanekin espezifikoki lan egiten duten erakundeentzat.
- 4.3.7.4. Sailaren laguntza ekonomikoa, EAEko etxeetan mendekotasuna duten pertsonak (adingabeak eta adinekoak) zaintzen lan egiten duten emakumezko etorkin atzeritarrekin espezifikoki jarduten duten erakundeentzat.
- 4.3.7.5. Sailaren laguntza ekonomikoa, prostituzioan diharduten emakumezko etorkin atzeritarrekin espezifikoki lan egiten duten erakundeentzat.
- 4.3.7.6. Sailaren laguntza ekonomikoa lagundu gabeko adingabe atzeritarrekin (18 urtetik beherakoak) espezifikoki lan egiten duten erakundeentzat.
- 4.3.7.7. Sailaren laguntza ekonomikoa, prestakuntza-ibilbide eta- programa bereziak egiteko lagundu gabeko adingabe atzeritarrentzat (18 urtetik beherakoak).
- 4.3.7.8. Sailaren laguntza ekonomikoa lagundu gabeko gazte atzeritarrekin (18 urtetik gorakoak) espezifikoki lan egiten duten erakundeentzat.
- 4.3.7.9. Sailaren laguntza ekonomikoa indarkeria matxistaren biktima diren emakumezko etorkin atzeritarrekin espezifikoki lan egiten duten erakundeentzat.

Helburua: “Kalitateko informazioa izatea egoera bereziki arazotsuetan dauden atzeritar jatorri eta/edo nazionalitateko kolektibo batzuez; kolektiboak, besteak beste, hauek dira: adingabeak dituzten emakumeak, emakume musulmanak, etxeko emakumezko langileak, prostituzioan diharduten emakumeak, lagundu gabeko adingabe atzeritarrak, lagundu gabeko gazte atzeritarrak, etorkin atzeritarren seme-alabak, ijito errumaniarrak (lurraldeka bereizita ahal denean)”.

- 4.3.7.10. Ardurapean adingabeak dituzten emakumezko etorkin atzeritarren egoera eta beharrak deskribatzeko azterketa.
- 4.3.7.11. Gizarteratzeko eta inklusiorako arazoak dituzten eta adinekoak diren emakumezko etorkin atzeritar musulmanen egoera eta beharrak deskribatzeko azterketa.
- 4.3.7.12. EAEko etxeetan mendekotasuna duten pertsonak (adingabeak eta adinekoak) zaintzen lan egiten duten emakumezko etorkin atzeritarren egoera eta beharrak deskribatzeko azterketa.
- 4.3.7.13. Prostituzioan diharduten emakumezko etorkin atzeritarren egoera eta beharrak deskribatzeko azterketa.
- 4.3.7.14. Lagundu gabeko (18 urtetik beherako) adingabe atzeritarren egoera eta beharrak deskribatzeko azterketa.
- 4.3.7.15. Lagundu gabeko (18 urtetik gorako) gazte atzeritarren egoera eta beharrak deskribatzeko azterketa.
- 4.3.7.16. Etorkin atzeritarrek dauzkaten EAEn jaiotako edo lau urte bete aurretik berrelkartutako seme-alaben (bigarren belaunaldi izen okerra hartzen dutenen) egoera eta beharrak deskribatzeko azterketa.
- 4.3.7.17. EAEn erlijio musulmanaren jarraitzaile direnen kolektiboaren egoera deskribatzeko azterketa: imajinario sozial eta sinbolikoa, estereotipoak diskurtsoetan, aurreiritziak EAEko gizartean.
- 4.3.7.18. Iragaitzazko migrazio-egoeran dauden migratzaileen kolektiboaren egoera deskribatzeko azterketa: egoera, beharrak, aukerak, ibilbideak eta abar.
- 4.3.7.19. Familiak berrelkartzeko prozesuak deskribatzeko azterketa, arreta berezia jarrita berrelkartutako adingabeengan: nazioz haraindiko berrelkartzea (jatorrian) eta harrera (helmugan).

- 4.3.7.20. Jardunbide onen eta txarren azterketa herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruan, Espainiako Estatuan, Europan eta beste herrialde batzuetan.
- 4.3.7.21. Atzerritar etorki, jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonen egoeren deskribapen- eta diagnosi-azterketak, azterketa-esparruen arabera: sarrera prestakuntzan eta enpleguan, etxebizitza eskuratzea, bizitegi-egoera, osasun-arreta eta abar.
- 4.3.7.22. Errumaniar jatorriko ijitoen kolektiboaren egoera deskribatzeko azterketa: egoera, beharrak, aukerak, ibilbideak eta abar.
- 4.3.7.23. Erroldatzearen azterketa eta analisia: erroldaren alde onak eta txarrak eskubideak eta/edo zerbitzuak izaten laguntzen duen tresna moduan; sistemaren okerbideak; hobekuntza-proposamenak; ondorio juridikoak; sarrera zaileko kolektiboak; eta abar.
- 4.3.7.24. Migrazio-prozesuetan lan- edo sexu-esplotaziorako salerosten diren emakumeei buruzko azterketa.
- 4.3.7.25. Atzerritarren immigrazioak EAEko ekonomian duen eragin sozioekonomikoari buruzko azterketa.

Helburua: “Kontsulatu atzerritarrekin akordioak egiteko aukera aztertzea, azkarrago erantzun dezaten ohiz kanpoko kalteberatasun berezia duten pertsonen kasuetan”.

- 4.3.7.26. Harremanak EAEn dauden kontsulatuekin.

5. MEMORIA EKONOMIKOA

Uste dugu, Planean proposatutako neurriak abordatzeko, garatzeko eta ezartzeko aurrekontu esleipena, planaren hiru ekitaldietarako -2018-2020- honako hau izan daitekeela, kontuan izanda Zuzendaritzako kontu-sail handien kontzeptuak gaur egungo aurrekontu-bereizketan.

1. taula. Zuzendaritzaren kontu-sail handien banaketa (2018-2020)¹

Kontzeptuak	2018-2020
Zuzendaritza	1.586.509
Bizikidetza, kulturartekotasuna, ITND	2.420.876
Ikerketa eta Behaketa	763.182
Atzerriartasunaren alorreko aholkularitza juridikoa	2.122.638
Tokian tokikoa	2.834.580
Harrera	1.463.285
Beste jarduerak Hirugarren sektoreko erakundeak	1.725.136
Bestelakoak	479.033
Guztira	13.395.239

Goiko taulan islatutako ekintzak aurrera eramateko, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak honako zerbitzu hauek ditu (i) Integraziorako eta Kulturen arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzua -BILTZEN-; (ii) Aholku Sarea, (iii) Immigrazioaren Euskal Behatokia -IKUSPEGI-, eta (iv) ERABEREAN sarea, erreminta hauek guztiak,

¹ Kontu-sailetan eragina duten beste aldaketa batzuez gain, aipatutako hirurtekoaren guztizko kopuruak kalkulatzeko garaian, 2019 eta 2020ko ekitaldietarako %3 eta %2ko igoerak estimatu ditugu hurrenez hurren, 2018an kontu-sail horien aurrekontu-esleipena oinarri hartuta.

Eusko Jaurlaritzako, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saileko, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren menpe daudenak.

Plan honetan proposatutako neurriak lantzeko, garatzeko eta ezartzeko aurrekontuko diru-izendapena, gure ustez, honako hau izan daiteke, kontuan hartzen baditugu Zuzendaritzaren kontu-sail handietako kontzeptuak egungo aurrekontu-desagregazioan.

6. PROPOSAMENEN DESKRIBAPENA

Jarraian, proposatutako neurri bakoitza xehatzen da, labur deskribatuta ekintza bakoitza, ekintzaren berariazko helburu edo helburuak, prozesua (plana betetzea) ebaluatzeko adierazleak, emaitzak ebaluatzekoak (ekintzaren eraginkortasuna), saila, zuzendaritza, ekintzaren ardura duen zerbitzua edo erakundea, eta lehentasuna.

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

Ekintza	4.1.1. Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza finkatzea, zerbitzu-burutza bat sortuta, Zuzendaritzaren ekintzak koordina ditzan immigrazio- eta kulturarteko bizikidetza-arloan.
Deskribapena	Immigrazio-politiken agerikotasuna eta egonkortasuna, hala nola <i>Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan Jarduteko V. Plana, 2018-2020</i> honetako ekintzen estrategiaren arrakasta, Zerbitzu Burutzaz arduratuko den pertsona sortu eta izendatuta sendotzen da; haren ardura izango da Zuzendaritzaren jarraibideak koordinatzea eta gauzatzea, aurreikusitako ekintzei dagokienez bezala, Zuzendaritza osatzen duten teknikariak koordinatzeari dagokionez ere. Burutzak taldea egonkortzen du, ekintzak osorik edo partzialki koordinatzen ditu, kasu bakoitzeko eskumenen arabera, eta Zuzendaritzak, Sailak eta, oro har, Eusko Jaurlaritzak herritartasun-, kulturartekotasun- eta immigrazio-arloan diseinatutako ildoez eta politikez arduratuko den talde egonkorra sendotzen du. Sistema lehengoratzeari jasotzen du plan honek, eta talde tekniko fidagarri, sendotu eta iraunkor bat izatea da lehengoratzeari horren egituraren oinarria. Gainera, zerbitzuburuaren beharra du, lehengoratzeari lortzeko lanak koordina ditzan, Zuzendaritzaren jarraibideak kontuan hartuta.
Helburua	Herritartasun-, kulturartekotasun- eta immigrazio-arloko politika finkatzea
Prozesuaren ebaluazioa	Zerbitzu Burutza sortzea Zerbitzuburua izendatzea
Emitzen ebaluazioa	Zerbitzu Burutzak egindako lanak
Arduraduna	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2019ko lehen sei hilekoa

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

Ekintza	4.1.2. Geroko legegintzaldi batean, Herritartasun, Kulturartekotasun eta Immigrazio Zuzendaritza berreskuratzea Eusko Jaurlaritzaren egitura egonkorren barruan.
Deskribapena	Aurreko neurrian bezala, zeinaren osagarria baita bigarren hau, Eusko Jaurlaritzaren egitura egonkorren barruan eta herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruan Zuzendaritza espezifiko bat berreskuratzea, zuzendaritza hori edozein sailetan egonda ere, funtsezko beste zutabea da kulturartekotasun- eta immigrazio-politika onbideratzeko, eta esparru horren agerikotasuna finkatzen du, plan hau eta etorkizuneko jardueraplanak aurreikusi bezala landu eta garatzeko aukera emateaz gain. Zuzendaritza egotea oso adierazgarria da, argi uzten baitu nolako garrantzia ematen dion Eusko Jaurlaritza osoak dibertsitatearen eta immigrazioaren kudeaketari. Esparru honetarako zuzendaritza bat sortzeak sektoreko eragile gehien-gehienek luzatu gabe konpondu beharreko gabeziatzat jotzen dutena zuzentzen du. Zuzendaritza eta Zerbitzu Burutza ezinbestekoak dira egungo errealitatearen tratamenduan –herritartasuna, kulturartekotasuna eta immigrazioa–, egiturazkoa izango baita EAEko gizartearen etorkizunean. Esparru honetan, komeni da, alde batetik, ez erreparatzea immigrazioaren fenomenoari behin-behinekotasunaren ikuspegitik, eta, bestetik, gidaritza hartuta aurrea hartzea gure kulturarteko eta askotariko etorkizuna ezaugarrituko duten harrera- eta integrazio-politikei. Bizikidetzat, Kulturartekotasun eta Immigrazio Zuzendaritza berri horren eginkizunak hauek dira: gidatzea, erakundeen artean loturak ezartzea, lantalde bateratuak zuzentzea, gainerako eragileen ekimenak koordinatzea, jardueraplan gauzatzeaz arduratzea, planaren jarraipena eta ebaluazioa egitea, diruz laguntzeko lerroak kudeatzea eta kudeaketa administratiboa eta instituzionala zaintzea.
Helburua	Arloa indartzea jardueraplan hau garatu ahal izateko.
Prozesuaren ebaluazioa	Herritartasun, Kulturartekotasun eta Immigrazio Zuzendaritza sortzeko proposamena. Zuzendaritzaren behin betiko sorrera.
Emitzen ebaluazioa	Jardueraplanaren garapen-maila Udaleko eta lurraldeko teknikarien urteko bilera Foroaren urteko bilera
Arduraduna	Sailburua
	Gizarte Politiketako Sailburuordetza
Lehentasuna	Handia
Data	2021etik aurrera

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

Ekintza	4.1.3. Egungo lantaldeak indartzea, eta lantalde berriak ezartzea maila politikoan eta teknikoan Zuzendaritzaren eta Eusko Jaurlaritzako beste zuzendaritza eta/edo instantzia batzuen artean, bereziki nabarmenduta Hezkuntza Saila, Lanbide, Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.
Deskribapena	Immigrazio-fenomenoaren zeharkakotasunak eta integrazio- eta kulturartekotasun-arloko egungo eta etorkizuneko eskakizunek premiazkoa dute lantalde finkatuak sendotzea eta/edo sortzea Eusko Jaurlaritzako gainerako sailekin interes komunez gaiei heltzeko. Jarduteko plan honetan, bai eta sailen arteko lotura honetan ere, bi sail/eremu estrategiko daude, etorki immigrantezko pertsonak gizartean integratzeko: lan-esparrua eta hezkuntza-esparrua. Lan-esparruak lotura estuagoa du lehen belaunaldiarekin, bai eta, jakina, bigarren belaunaldiarekin edo EAEn jaio denarekin ere. Hezkuntza-esparruak helburu-sorta zabala du, baina oinarritzat da bigarren belaunaldiak gizartean gora egiteko eta mugikortasuna izateko mekanismo moduan. Era berean, bizikidetzaren esparruak, katalogo bat izan baino areago, premiazkoa du giza eskubideen ardatz-ikuspegi eta -esparrua txertatzea immigrazioarako eta dibertsitatearen tratamendurako politika guztietan, kulturarteko matrize bat ahalbidetzeko, eta, horregatik, euskara ere ezinbestekoa da. Talde horiek, kasuan kasuko gai-arloa zein den, alde bikoak edo alde anitzekoak izango dira, eta Zuzendaritzak, inplikaturako gainerako sailekin batera, egingako ekarpen edo emandako laguntza moduan planteatuko dira. Talde horiek sendotzeaz gain, zeinetako batzuk gaur egun eratuta baitaude, Sailean bertan edo beste batzuetan, beste batzuk ere eratu beharko dira (adibidez, Hizkuntzako Politikarako Sailburuordetzarekin), ahal bada egonkorak eta iraunkorak, nola teknikoak hala politikoak, integrazio- eta kulturartekotasun-erronka eta -aukera berriak sortzen diren neurrian.
Helburua	Herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruaren zeharlerrotasuna bermatzea
Prozesuaren ebaluazioa	Lantaldeak sendotzea Talde berriak sortzea Jarraipen-bilerak egitea
Emaitzen ebaluazioa	Aldizkakotasun aldakorreko bilerak Eusko Jaurlaritzako beste zuzendaritza eta instantzia batzuekin
Arduraduna	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2019ko lehen seihilekoa

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

Ekintza	4.1.4 Lan-mahai espezifikoa bat sortzea lege-esparrua aztertzeke, aukera eman dezan eskumen autonomikoen gehienera iristeko immigrazioaren, atzerriartasunaren eta bizikidetzaren esparruan, arreta berezia jarrita sustraitzeko baldintzei, lan-baimenei, bizileku-baimenei, familia-berrelkartzeari, harrerarako eskumenari eta abarri dagokien guztian.
Deskribapena	Lan-mahai hau Zuzendaritzako pertsona batek gidatzen du, eta immigrazio- eta atzerriartasun-arloan adituak diren pertsonak eta juristak ditu kide, bai Eusko Jaurlaritzakoak bai kanpokoak. Mahaiaren xede nagusia da aztertzea zein diren indarreko lege-esparruaren mugak eta aukerak, EAEen bai subsidiarioki, bai eskuordetuta, bai osorik hartu ahal izateko gaur-gaurkoz eta legez estatu zentralari dagozkion ekimenak. Mahaiak hainbat helburu garrantzitsu ditu, EAEko immigrazio- eta kulturartekotasun-politikak nolakoa izan behar duen aurrez irudikatzen dutenak. 1) Gobernu zentralarekin negoziatu beharreko eskumen-esparrua egitea. Eusko Legebiltzarrean egungo autonomia-estatutuaz egiten ari den eztabaida-, azterketa-, debate- eta berrikuspen-prozesua erabakigarria da, eta plan hone-tako neurriekiko nahikidea. 2) Immigrazio- eta atzerriartasun-arloko eskumenen erakundearteko banaketa aztertzea, arreta berezia jarrita Euskadiko Tori Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen garapenean. 3) Aztertzea zein diren familiak berrelkartzeko eskumenak legez garatzeko mu-gak eta aukerak. 4) Immigratutako pertsonen lehen harrera-arloko eskumen eskusiboaz jabet-zea, aldi berean jarduketa soziosanitarioak eta orientazio-arlokoak ere barne hartuta. 5) Lan-harremana Euskadin duten atzerriarren lan-baimen arloko eskumen be-tearazlea lortzea. Eskumen hori nahitaez baliatu behar da Estatuari atzerri-tarren sarrera- eta egoitza-arloan dagokionarekin koordinatuta, eta honako hauek hartzen ditu barruan: a) Norberaren edo besteren konturako hasierako lan-baimenen tramitazioa eta ebazpena. b) Aurreko a) letran aipatzen diren espedientei dagokienez aurkeztu-tako errekurtsuen tramitazioa eta ebazpena, eta ikuskapen- eta zeha-pen-araubidearen aplikazioa. 6) Eusko Jaurlaritzak Euskadientzat garrantzi berezia duten immigrazioari buruzko Estatuaren erabakietan parte hartzen duela bermatzea.
Helburua	Lege- eta arau-esparru bat egitea, EAEko immigrazio- eta kulturartekotasun-politika prestatzeko
Prozesuaren ebaluazioa	Immigrazio- eta atzerriartasun-politikako aditu-talde bat eratzea Txosten juridikoak egitea
Eraitzen ebaluazioa	Agintari zentralekin negoziatzea Dekretu bat egitea Lege-alderdiak sartzeko Autonomia Estatutuan
Arduraduna	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2019ko lehen seihilekoa

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

Ekintza	4.1.5. Euskadiko Immigrazioari buruzko Itun Soziala berriz indartzea. Bizikidetzaren aldeko Konpromisoa, parlamentuko eta indar politiko nahiz gizarte-eragile guztien kulturarteko itun bidez, joko politikoaren mugak eta arauak ezar daitezen esparru honetan.
Deskribapena	<i>Euskadiko Immigrazioari buruzko Itun Soziala. Bizikidetzaren aldeko Konpromiso bat</i>, sentsibiltate desberdina duten eta EAEko korrante ideologiko guztiak ordezkatzen dituzten pertsonen egina, elkargune politiko bat da EAEko gizarte osoarentzat, “joko”-koordinatuak ezartzen baititu bizikidetzaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruan. EAEko gizarteak herritartasun plural eta inklusiboaren bidean aurrera egitea du helburu, guzti-guztion askatasunak, eskubideak eta funtsezko betebeharrak, praktikan, bizilekua bertan dugulako gertaera komunaren inguruan ardatz ditzan, eta ez batzuk nazionalak eta beste batzuk atzeritarak izatearen inguruan. Euskadi askotariko herri plurala izan da beti, erlijio, hizkuntza eta kultura desberdinak bizi izan baitira elkarren ondoan historian zehar. Etorkinek ekarritako dibertsitate berriek ez dituzte harritu behar EAEko herritarrak. Dibertsitatea gure historiaren eta nortasun kolektiboaren funtsezko zatia da. Euskal herriaren esperientzia historikoari esker, erantzun hobea eta egokiagoa eman beharko genioke bizikidetzari, beti ezaugarri izan dugun dibertsitate handian oinarrituta. Ez dago integratzaile pertsona guztien eskubideak aitortu eta bermatu gabe. Ituna Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean oinarritzen da, berdintasunaren idealean, eta diskriminaziorik ezaren printzipioan. Eskubideak eta askatasunak pertsonen jatorriaren arabera legez murriztearen aurka egiten du, eta berdintasunaz hornitzen diren eta dibertsitatea zorrotz errespetatzen dituzten politika publikoak sustatzen ditu. Immigrazioari buruzko Itun Soziala zentzu-esparru bat taxutzen du, oinarritzeko konpromiso bat hainbat printzipio eta balioen inguruan, baina, hala ere, jardutera bultzatzen duen ituna ere izan nahi du, itun performatibo bat. Izenpetzen duten erakundeek printzipio eta balio horiek aplikatzen ahalegindu beharko lukete, zeinek bere esparruan, eta autoebaluazio-elementu moduan erabili beharko lituzkete, immigrazioarekin eta dibertsitatearekin zerikusia duen orotan zer funtzionamendu duen aztertzeko. Era berean, izenpetzen duten erakundeak eta instituzioak konprometitu egiten dira aktiboki gaitzestera immigrazioa estigmatizatzen duten diskurtsoak, aurreiritziaren eta gehiegizko orokortzearen gainean eraikita baitaude, eta EAEko gizarte deitzen dute arrazismo eta xenofobiaren adierazpen argiak eta sotilak borrokatzea, bai eta zigorgabetasun-esparruak salatu eta indargabetzea ere. Immigrazioak eta berorri lotutako dibertsitate berriek aukera eta pizgarri izan behar dute, berriz ere kolektiboki pentsatzeko zer-nolako gizarte nahi dugun EAEn gu guztiontzat eta etorkizuneko belaunaldientzat. Epe laburrean, errealitate berri hori arazo-iturri izan daiteke. Ez dugu hori ezkutatu behar, aitortu baikiz, eta normaltzat hartu gizarte aldatzen den prozesu orotan. Beharrezkoa da zailtasun horien adierazpenari kasu egitea, eta zailtasun horiei jarraitzea, aurre egin ahal izateko, eta modu eraikitzailean gainditzeko. Hitz batean, garrantzi berezia du immigrazio- eta integrazio-politikan eragirik ez izateak hauteskunde-gorabeherak, eta ez egotea gehiengo parlamentarioen mende. Ituna sinatzen duten erakundeek konpromisoa izango da politika irmoak sustatzea arlo honetan, genero-indarkeriaren edo antzekoen aurkako borrokan erabilitakoak bezain irmoak.
Helburua	Itun politiko erakundearteko eta parlamentario handi bat lortzea, itunaren dokumentuan jasotako printzipioetan oinarrituta.

Prozesuaren ebaluazioa	2012 Dokumentuaren berrikuspena, sentsibiltate berriak jasota Dokumentua onartzea maila instituzional guztietan Dokumentua onartzea Eusko Legebiltzarrean
Eraitzen ebaluazioa	Legebiltzarrak <i>Euskadiko Immigrazioari buruzko Itun Soziala</i> onartzea. <i>Biziki- detzaren aldeko konpromisoa</i>
Arduraduna	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2018ko bigarren seihilekoa

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

Ekintza	4.1.6. Diskurtso politiko positiboa indartzea esparru honetan, eta diskurtso hori herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren inguruan kokatzea: harreratik integratzia eta dibertsitatearen kudeaketara.
Deskribapena	Europako eta munduko egungo egoeran, oso zabaldua dago immigrazioaren eta dibertsitatearen aurkako diskurtso sozial errektiboa, eta diskurtso hori atzera-egite etniko estatalera itzultzea suspertzen ari da, eta atzerritarra arbuiazen duten jardunbide xenofoboak sustatzen. Bat etorrita 4.1.5. eta 4.1.6. neurriekin, herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruan diskurtso politiko positiboak egitea sustatuko da, dibertsitatearen ekarpena eta atzerritar etorkiko biztanleen presentzia balioets ditzaten, adituen, unibertsitateen, elkarteen munduaren, hirugarren sektorearen, hedabideen eta arlo honetako beste eragile estratagiko batzuen laguntzarekin. Diskurtsoak, lehen harrera ez ezik, ondorengo integrazio-prozesu erabakigarria eta, azkenik, dibertsitatearen ezinbesteko kudeaketa ere baloratu behar ditu. Hari ikusezin batek lotzen ditu prozesu horiek guztiak: ondoriozko immigrazioa eta kulturartekotasuna egiturazko prozesua da EAEko gizartean. Era berean, ez da pentsatu behar fase horiek etapa independente eta elkarren ondokoak direnik, etengabeko jario dialektikoan dauden prozesuak baizik. Diskurtsoa prestatzean, zenbait maila, publiko eta behar desberdinak kontuan hartu behar dira. Eta diskurtsoak koherentea izan behar, alde batetik, Eusko Jaurlaritzaren jarraibide estratagikoekin, eta, bestetik, egokia da diskurtsoa bat etortzea Europar kultura-dibertsitate gero eta handiagoa kudeatzeko estratagia moduan kulturartekotasuna sustatzen eta babesten ari diren diskurtso, mugimendu eta sareekin. Beste zenbait neurriren artean, diskurtso sozial eta politikoa aztertu eta eraikitzeke azterlan bat egiteko aukera azter daiteke (ikus 4.1.8. ekintza).
Helburua	Herritartasun inklusiboari buruzko diskurtso positiboak indartzea
Prozesuaren ebaluazioa	Dauden bitartekoak hautematea Diskurtso alternatiboak egitea Herritartasun inklusiboaren aldeko esparrua sortzea
Emitzen ebaluazioa	Komunikabideetan dauden diskurtso politikoak
Arduraduna	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
	Biltzen, Ikuspegi, Hirugarren Sektorea
Lehentasuna	Handia
Data	2020ko bigarren seihilekoa

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

Ekintza	4.1.7. Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituen 271/2012 Dekretua eguneratzea.
Deskribapena	271/2012 Dekretua honako alderdi hauetan eguneratzea proposatzen da: • Proiektuak ebaluatzeko irizpideak berrikustea • Eman daitezkeen gehieneko zenbatekoak berrikustea • Berrikustea eta zehaztea zer lerrok jasoko dituzten laguntzak, eskaera kasu bakoitzean zuzendu behar den lerroranzko orientazioa doitzeko. Helburua da dekretua eguneratzea, diruz lagundu daitezkeen lerroak, irizpideak eta gehieneko zenbatekoak argitzea, eta disfuntzio inplizitu batzuk konpontzea
Helburua	Lerro berean jartzea esku-hartze sozialaren esparruko hirugarren sektoreko erakundeentzako finantza-laguntzak eta plan honetako lehentasunezko jardueraren eremu estrategikoak
Prozesuaren ebaluazioa	Dekretuaren berrikuspena abian jartzea Irizpideak eta gehieneko zenbatekoak finkatzea (teilakatzeak saihestuta) Finantza-laguntza jaso ohi duten lerroak argitzea
Eraitzen ebaluazioa	Dekretu berria edo egungoa aldatzea
Arduraduna	Gizarte Politiketako Sailburuordetza
	Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2019ko bigarren sei hilekoa

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

Ekintza	4.1.8. EAEEn eta Espainiako Estatuan hizpide dugun lan-eremuan ezarritako politiken eta diskurtso politikoen diagnosi-azterketa bat egitea.
Deskribapena	4.1.7. neurriaren oinarri eta neurri osagarri gisa, Ikuspegik diskurtso-azterketa bat egingo du, eginda dauzkan azterketetan oinarrituta, bai eta egitea egokitzen jotzen duen azterketa osagarrietan oinarrituta ere, zeinean Euskadin eta Espainian immigrazioari buruz nagusi diren diskurtso sozialak eta politikoak jasoko baitira. Era berean, diskurtso politiko xenofoboei aurre egiteko ezarritako neurri motak katalogatuko ditu, eta, azkenean, Euskadiko eta Espainiako adituekin egindako Delphi azterketa baten bidez, EAEko gizarteko eragile sozial eta politikoen artean eta instituzioetan hegemonikoa izateko diskurtso politiko bat egiten lagunduko du. Diskurtso horrek, itunarekin eta sentsibilizatzeko eta prestatzaileak prestatzeko prozesuekin, bai eta zurrumurruen aurkako estrategiekin ere, aukera eman behar du desagerrarazteko eta/edo ahalik gehiena murrizteko atzeritar etorki-ko biztanleen eta dibertsitatearen aurkako onespenguneak, eta sareak eratzen lagundu behar du, herritartasun inklusiboa eta kulturartekotasuna indartzeko, berezkoak baititu edozein gizartek; EAEkoak, bereziki.
Helburua	Atzeritarren immigrazioaren aurkako diskurtso nagusien azterketa
Prozesuaren ebaluazioa	Diskurtso-politikoen diagnosi-azterketa Diskurtso eta jardunbide xenofoboaren aurka ezarritako neurrien katalogazioa Kontradiskurtso inklusibo bat prestatzea
Emaitzen ebaluazioa	Atzeritarren immigrazioaren aurkako diskurtsoen diagnosi-azterketa osoa
Arduraduna	Ikuspegi
	Biltzen
Lehentasuna	Handia
Data	2019ko bigarren seihilekoa

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

Ekintza	4.1.9. Prestakuntza-plan bat egitea, bereziki Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzako teknikarientzat, eta, oro har, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarentzat.
Deskribapena	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak gehienbat Biltzenen bidez eta neurri txikiagoan Ikuspegiren bidez egiten duen sentsibilizazio-lanaren barruan, sailarteko prestakuntza-plan bat egingo da. Immigrazio-fenomenoaren errealitatea, dibertsitatea eta kulturartekotasunaren etorkizuna EAEko gizartean kokatzea du berariazko helburu prestakuntza horrek. Esan dezagun gizarte on baten zimenduak etxetik beretik hasten direla. Funtsezkoa da Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko langile guztiek ikuspegi egokia izatea fenomeno horiei buruz, immigrazio-erronkari erantzuteko politika egokia prestatu eta ezartzeko. Immigrazioa egiturazkoa dela eta gizartea kulturarteko bidera lerratuko dela jakinaraztea da kontua, gertaera horiek ez baitira alditsuak, oso garrantzi handikoak baizik, eta EAEren geroa taxutuko baitute azkenean. Onartutako gertaera baten gainean soilik ezar daitezke gertaeraren arabeko politikak. Prestakuntza-programa hori iraunkorra izango da, eta orotariko ikastaroak izango ditu herritartasunaz, kulturartekotasunaz eta immigrazioaz, bai eta aldiakako mintegi monografikoak ere, unean uneko problema edo kontuetan oinarrituta.
Helburua	Sailarteko prestakuntza immigrazio- eta kulturartekotasun-gertaeran
Prozesuaren ebaluazioa	Prestakuntza-programa eta -agenda Eskainitako ikastaroen eta mintegien kopurua
Emitzen ebaluazioa	Parte-hartzaile kopurua Bertaratutakoen ordu-kopurua
Arduraduna	Biltzen
	Ikuspegi, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2018ko bigarren seihilekoa

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

Ekintza	4.1.10. Elkarteen sarea sendotzea herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruan, migratutako pertsonen kolektiboek gobernantzaren ikuspuntutik daukaten ordezkartza-gaitasuna eta mintzaidetza sozial eta politikorako gaitasuna indartzea, eta laguntza ematea nahiz harremanak eta aliantzak sustatzea eragile euskaltza-leen eta dibertsitatearen arlokoen artean.
Deskribapena	Etorkinen elkarteen sarea oso ahula da zenbait arrazoiengatik, eta sendotze-prozesu baten beharra du, egitura sendoagoak ezartzeko, bai erakundeetan, bai koordinakundeetan. Oso xede handiusteak ezartzeko asmorik gabe, kontua litzateke laguntza materiala eta ahalduztze-ikastaroak ematea, lehen fasean gaur egun jardun ertaina edo handia duten erakundeak sendotzeko, eta, bigarrenean, parte hartzeko birtarteko egiturak sortzeko, dela elkarreak batuta, dela koordinakunde tematikoen bidez, dela jatorriaren arabera, edo, bestela, egingarria den beste edozein egitura sortzeko. Era berean, Foroaren bitartez, agerikotasuna eman behar zaie sendotze-prozesu horiei, eta, epe ertainean, migratuak ordezkatzeko eta mintzatzeko bide osagarriak eta egonkorragoak bilatu behar dira, azkenean sortzen den gobernanta-ereduak barruan har dezan herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruarekin zerikusia duten elkarteen sare osoa. Eredu horrek ez ditu ordeztu behar egungo mekanismoak; aitzitik, bidea eman behar du kolektiboek eta taldeek osagarriro eta bat-banaka edo kolektiboki antolatu eta ezagutarazi ahal izateko dauzkaten eskakizunak.
Helburua	Etorkizuneko gobernanta-ereduaren oinarriak ezartzea
Prozesuaren ebaluazioa	Esparruko elkarteen munduaren katalogoa Haien ahulezia- edo indar-mailaren azterketa Mintzaidetza- eta gobernanta-eredu pilotu bat sortzea
Emitzen ebaluazioa	Dauden erakundeen jarduera-maila 2019-2020 aldiko erakundeen kopuruaren bilakaera
Arduraduna	Biltzen
	Ikuspegi
Lehentasuna	Ertaina
Data	2019ko bigarren seihilekoa

4.1. NEURRI ESTRATEGIKOAK

Ekintza	4.1.11. Txostenak, materialak, zuzentarauak, jardunbide oneko eskuliburuak (euskara eta dibertsitatea lotzen dituztenak barne) aztertzea, biltzea, itzultzea, egitea..., herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruan garrantzitsuak diren gaiei dagokienez (erlijio-ikurren erabilera, erlijio-guneen irekiera, eremu publikoen erabilera, erlijioaren eta genero-berdintasunaren arteko dialektika eta abar).
Deskribapena	Dibertsitatearen kudeaketak eta pluralizatzeko demokratikoak nahitaezkoa dute arreta jartzea gune publikoetan, gizarte-mailan, sor daitezkeen lehia-, gatazka-, elkarlan- eta norgehiagoka-esparru ugarietan. Dibertsitateak ez ditu ezinbestean ekartzen lankidetzaz-estrategiak, eta gizarte-egitura berdintasunezko eta egonkorrik izan ezean, askotan mesfidantza- eta gatazka-iturri da. Era berean, litezkeen gatazka-iturri ugariak ezagutu eta kudeatzeko, esperientzia handia metatu da hainbat lekutan, eta, horregatik, beharrezkotzat jotzen da landu baino lehen, aukera hori ere baztertzeko ez bada ere, dibertsitateari pluralizatzeko demokratikoaren ikuspegitik aurre egiteko dauden jardunbide onak eta lege- nahiz gizarte-zuzentarauak jasotzen dituzten materialak berraztertzea, biltzea, katalogatzea eta itzultzea. Sozialagoak izan daitezkeen jardunbide on horiei dibertsitatea arautzen duten legezko oinarri konstituzionaletatik ere heldu behar zaie, ezezagun handiak izan arren, eta iruditutako arren <i>ex novo</i> hasten dela esparru nagusiki kultural edo erlijiosoan gatazka bat sortzen den bakoitzean. Lehen soiltze-lan horrek eta lan horren geroagoko gizarte-hedapenak (gida tematiko moduan, bai toki-erakundeetan, bai gizarte osoan, edo kudeaketa politikoaren esparruan bertan) arazoak konpontzeko katalogo praktikoa batean amaitu behar dute. Quebecen egindako Bouchard-Taylor Txostena Euskadin berdintzea hurrengo planetarako fase landuagoa eta anbiziotsuagoa da, txosten hark zentzuzko egokitzapenak bezala itun sozialak ere proposatzen zituelako
Helburua	Kulturartekotasunaren esparruan metatutako esperientzia jasotzea
Prozesuaren ebaluazioa	Inbentariatuak materialen kopurua Jasotzen dituen dokumentu bat egitea Dokumentua zabaltzea eragileen artean eta EAEko gizartean
Emitzen ebaluazioa	Erakunde hartzaileen kopurua
Arduraduna	Ikuspegi
	Biltzen
Lehentasuna	Handia
Data	2020ko lehen seihilekoa

4.2. ANTOLAKETA-NEURRIAK

Ekintza	4.2.1. Sistema bat berreraikitzea bizikidetzaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruan, bertan honako hauek sartu eta koordinatuta: Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza, Biltzen, Ikuspegi, Aholku Sarea, Eraberean sarea, Eusko Jaurlaritzako beste instantzia batzuk (Hezkuntza Saila, Lanbide, Giza Eskubideen Idazkaritza Nagusia, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza...), diputazioak, udalak, elkarten sarea (edo hirugarren sektorea), beste erakunde batzuk (unibertsitateak, administrazioak, erakunde pribatuak eta abar), Immigrazioarako Foroa eta Espainiako Gobernuako Ordezkaritza eta azpiordezkaritzak.
Deskribapena	Xedea da herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren sektorean lan egiten duten eragileak koordinatzea eta lerrokatzea. Hasteko, beharrezkotzat jotzen dugu Zuzendaritzaren ekintza-batasuna indartzea, eta, horretarako, talde osoa hilean behin biltzea proposatzen dugu, informazioa partekatzeke, zertzen diren jardueren jarraipena egiteko, sartzen den lan-zama banatzeko, taldearen helburuak eta ekintzak lerrokatzeke eta talde-lana sustatzeko. Badirudi Zuzendaritzak Biltzen eta Ikuspegi tresna zuzenekin batera egiten duen lana ere indartu behar dela. Hiru hilean behin biltzea proposatzen dugu, aurreko paragrafoan azaldutakoen antzeko helburu batzuekin. Biler horietara, gutxienez, honako hauek joango lirateke: Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzako arduraduna, Zerbitzu Burutzako arduraduna eta Biltzen eta Ikuspegiko arduradunak. Diputazioekin eta udal-teknikariekin biltzea ere proposatzen dugu. Agendak gehiegi ez betetzeko, uste dugu diputazio batzuek udal-teknikarien biltzeko dauzkaten dinamika baliagarria daitezkeela. Aski izan liteke urtean lurraldeko bi bilerak egitea. Horretarako izendatutako Zuzendaritzako kide bat joango litzateke bilerara. Gainera, hiru lurraldeetako diputazioetako eta udaletako teknikari guztiekin urtero beste bi bilerak egitea proposatzen dugu. Biler horien xedea izan liteke zenbait eragileren proiektuak partekatzea, ekimen komunak aurkeztea, baterako lanaren jarraipena egitea eta abar. Nolanahi ere, bilerok eduki eta helburu argiak izan behar dituzte. Foroari dagokionez, batzordeak berriz zehaztu ondoren, hala egokituz gero, batzorde bakoitzeko urteko bizpahiru bilerarekin eta Foro osoaren urteko bilerak batekin jarraituko du. Eraberean eta Aholku Sarea sareek, egokituz jotzen diren aldaketekin, bilerak aldizka egiten jarraituko dute. Haien berri emango dute Zuzendaritzako taldeak hilero izango dituen bileretan joandako Zuzendaritzako arduradunek. Zuzendaritzarekin harreman estrategikoak dituzten Eusko Jaurlaritzako sailei dagokionez, beste ekintza batzuetan esan dugu egokia dela lan-mahaiak sortzea, bereziki lehentasunezkoetat jotako esparruetan; hau da, Hezkuntza Sailarekin, Lanbiderekin, Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiarekin eta Hizkuntza Politikako Sailburuordetzarekin. Gure ustez, funtsezkoa da bitarteko material eta giza baliabide garrantzitsuak sortzea edo, sortuta daudenen kasuan, erabiltzea talde horietarako, haietan presentzia proaktiboa izatea eta eginkizun aktibo eta dinamikoak betetzea. Horretarako, berriaz zehaztu behar da zer helburu lortu nahi diren talde horietan parte hartuz, beste eragileei jakinarazi behar zaizkie, eta eragile horiekin ikuspegi komun bat partekatzea iritsi behar da. Talde horiek beren barne-funtzionamenduaren idatzizko protokoloak izan behar dituzte, Zuzendaritzako arduradunak edo ordelari batek ordezkatu behar ditu, eta Biltzenen eta Ikuspegiren ordezkariek ere izan beharko dituzte.

Deskribapena	Beste sail batzuekin ere, hala nola Segurtasun, Etxebizitza eta Osasuneko sailekin (besteak beste, gehiago ere izan baitaitezke), lantaldeak sortuko dira, baina, esparru osagarriak izanda, denbora eta baliabide gutxiago bideratuko zaizkie. Haietan Zuzendaritzako pertsona batek esku hartuko du, eta, egoki izanez gero, Biltzenen eta Ikuspegiren ordezkariak ere bertaratu ahal izango dira. Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren barruan, mekanismo egokiak ezarriko dira, Saileko Berdintasuneko teknikariarekin batera bermatzeko genero-ikuspegi egokia erabiltzen dela abian jartzen diren jarduketetan. Beste entitate, erakunde edo instantzia batzuei dagokienez, Zuzendaritzak ezartzen dituen harremanak eta aliantzak izango dira.
Helburua	Zuzendaritzaren jardun politiko eta programatikoaren oinarriak ezartzea
Prozesuaren ebaluazioa	Harremanak ezartzea Arduradunen izendapena Bilerak egitea
Emaitzen ebaluazioa	Zuzendaritzaren urteroko ebaluazio-bilera (kualitatiboa)
Arduraduna	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2018ko bigarren seihilekoa eta 2019ko lehen seihilekoa

4.2. ANTOLAKETA-NEURRIAK

Ekintza	4.2.2. Biltzen-en helburuak aldatzea eta berriz zehaztea, eta berorren jarduna Zuzendaritzaren etorkizuneko ildo estrategikoen bidean jartzea.
Deskribapena	Gogoeta egin behar da Biltzenen helburuez eta egungo egituraz, tresna hori egungo testuingurura eta beharretara egokitzeko. Lan horretaz arduratuko den talde bat sortzea proposatzen dugu. Taldeko ki-deak Zuzendaritzako pertsona bat (prozesuaren dinamizatzailea), Biltzeneko bat, Ikuspegiko bat eta udal-esparruko beste bat izan daitezke. Hasiera batean, eta lerro hauek aurrez erabaki gabe gogoeta-prozesua, pentsa daiteke Biltzenen ahaleginen eta ekintzen xedeak hau izan behar duela: pertso-nekin eta taldeekin izandako esku-hartzetik abiatuta lortutako ezagutza praktikoa eta testuinguruan jarria sistematizatzea; profesionalak prestatzea; lagun egitea esparru sektorialetako eragileei; kultura-kolektiboekiko harremana; proiektu berritzaileen garapena; eta abar. Horretarako, eta aipatu lantaldeak azter dezan, Biltzenen, erkidego-mailan, bizikidetzarako hiru esku-hartze talde (lurraldeko bana) eratzea proposatzen dugu. Bakoitzak Ikuspegiko pertsona baten laguntza edo izendapen espezifiko izan lezake, sostengu dokumentala eta tekniko eman diezaion ikerketaren eta/edo ezagutzaren esparruan. Talde horien lana, beste esparru batzuetakoa bezala, urtero planifikatuko litzateke bitartekoak udal- eta toki-beharretara egokitzeko, kontuan hartuta udal-teknikarien banaketa geografikoa eta tokian tokiko behar zehatzak. Biltzenek eta Ikuspegik jokaleku sendo bat sortu beharko lukete, zertarako eta, alde batetik, ezagutzaren kudeaketa finkatzeko, dokumentazioa, prestakuntza, dibulgazioa eta abar konbinatuta, eta, bestetik, aholkuak eta laguntza emateko erakundeei eta eragileei haien ekimenen orientazioan eta aktibazioan.
Helburua	Berriz bideratzea Biltzenen helburuak eta egitura
Prozesuaren ebaluazioa	Lantaldea sortzea
Emitzen ebaluazioa	Biltzenen egitura berriari buruzko txostena
Arduraduna	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2018ko lehen sei hilekoa

4.2. ANTOLAKETA-NEURRIAK

Ekintza	4.2.3. Ikuspegi-ren helburuak aldatzea eta berriz zehaztea, eta berorren jarduna Zuzendaritzaren etorkizuneko ildo estrategikoen bidean jartzea.
Deskribapena	Beharrezkoa da gogoeta egitea Ikuspegiren egungo helburuez eta egituraz, tresna hori egungo testuingurura eta beharretara egokitzeko (besteak beste, azterketaren xedea migrazio guztietara zabaltzearen egokitasuna planteatu daiteke). Lan horretaz arduratuko den talde bat sortzea proposatzen dugu. Taldeko kideak Zuzendaritzako pertsona bat (prozesuaren dinamizatzailerak), Ikuspegiko bat, Biltzeneko bat eta udal-esparruko beste bat izan daitezke. Hasiera batean, eta lerroko gogoeta-prozesua aurrez erabaki gabe, pentsa daiteke Ikuspegiren ahaleginen eta ekintzen xedek hau izan behar duela: * txosten betearazle monografikoak egitea, erabaki sozialak eta politikoak hartzen laguntzeko * laguntza dokumentala eta informazioa ematea sektorean lan egiten duten eragileei (Zuzendaritza, Biltzen, udal-teknikariak, hirugarren sektorea, beste eragile batzuk), gaur egun egiten ari den bezala. * Zuzendaritzaren helburu estrategikoekin bat datozen garrantzi handiko ikerketak eta dokumentuak egitea eta zabaltzea (kongresuak, mintegiak, argitalpenak, txostenak, liburuak eta abar), gaur egun ere egiten den bezala Horretarako, eta aipatutako lantaldeak azter dezan, ikertzeko eta aztertzeko “<i>express</i>” metodologia bat ezartzea proposatzen dugu, gutxienez lau monografiko egiteko Zuzendaritzak behar duen gaiari buruz, eta aukera emateko, alde batetik, diskurtso politikoa sortu eta finkatzeko, eta, bestetik, zalantzak gutxitzeko jardun politikoan erabakiak hartzean. Ikuspegik toki- eta udal-esparrua babesteko egiten duen lanari dagokionez, urtero planifikatu beharko da, Biltzenen lanarekin koordinatuta, baliabideen erabilera zentzuzkoagoa izateko. Ikuspegik eta Biltzenek jokaleku sendo bat sortu beharko lukete, zertarako eta, alde batetik, ezagutzaren kudeaketa finkatzeko, dokumentazioa, prestakuntza, dibulgazioa eta abar konbinatuta, eta, bestetik, aholkuak eta laguntza emateko erakundeei eta eragileei haien ekimenen orientazioan eta aktibazioan.
Helburua	Berriz bideratzea Ikuspegiren helburuak eta egitura
Prozesuaren ebaluazioa	Lantaldea sortzea
Emitzen ebaluazioa	Ikuspegiren egitura berriari buruzko txostena
Arduraduna	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2018ko lehen sei hilabeteak

4.2. ANTOLAKETA-NEURRIAK

Ekintza	4.2.4. Euskal Autonomia Erkidegoko herritar etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa eta berorren sei batzordeak berrorientatzea, bai eta egokitze jotzen diren beste batzuk ere, egitekoak bereganatuta planaren garapen eta ezarpenaren jarraipenari dagokionez.
Deskribapena	Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan Jarduteko V. Plana, 2018-2020 hau zehaztu ondoren, badirudi egokia dela berriz pentsatzea Foroa bereizita dagoen egungo sei batzordeen kopuruaz eta zer-nolakoaz, lerrotuta egon daitezen jarduteko ildo eta esparru estrategikoetan. Zuzendaritzako arduradunek erabaki bitartean, badirudi zentzuzkoa dela Hezkuntza, Enplegu, Etxebizitza, Osasun eta Zuzenbide batzordeak mantentzea. Egungo seigarren batzordea bitan banatuko litzateke: bata harreraren eta bizikidetzaren esparru espezifikoan zentratuko litzateke; besteak, berriz, euskarari eta kulturari erreparatuko lieke gehiago. Azkenik, beste batzorde bat sortzea proposatzen dugu, emakumeen esparruan lan egin dezan, gai-arlo horrek garrantzi berezia duelako planean. Puntu honetan, bidezkoa izan daiteke gogoeta egitea Foroaren helburuez eta eginkizunaz: ea dauzkan kontsulta-eginkizunekin eta gogoeta egiteko gune moduan utzi behar den, edo, bestela, ea gehitu behar diren planaren jarraipena egiteko eginkizunak; are gehiago, beste batzuk planteatu ere bai. Alde horretatik, halaber, badirudi egokia dela eztabaidatzea beharrezkoa edo komenigarria den aldatzea plana gaur egun arautzen duen dekretua.
Helburua	Foroko batzordeen lana planeko jarduera-ildo eta -esparru estrategikoetara egokitzea.
Prozesuaren ebaluazioa	Gogoeta-gunearen arduradunaren izendapena
Emitzen ebaluazioa	Batzorde berriak proposatzea
	Batzorde berriak sortzea
	Kide diren erakundearen izendapena
Arduraduna	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
Lehen tasuna	Ertaina
Data	2019ko lehen seihilekoa

4.2. ANTOLAKETA-NEURRIAK

Ekintza	4.2.5. Gizarte sustraitze-txostenen, etxebizitza egokitze-txostenen eta udal-esparruan integratzeko ahalegin-txostenen lanketa kokatzeko modurik egokiena aztertzea, udal-politikei lotuta egon dadin.
Deskribapena	Ekintza honen xedea da aztertzea zein den modurik egokiena udal-esparrura itzultzeko gizarte sustraitze-txostenak, bizigarritasun-txostenak eta udal-esparruan integratzeko ahalegin-txostenak egiteko ardura. Gizarte sustraitze-txostenak eta etxebizitza egokitze-txostenak eskumen autonomikoak izan arren, toki-korporazioak igorritakoak izan daitezke, hala ezartzen bada eta jakinarazi bazaio Immigrazio eta Emigrazio Estatu Idazkaritzari. Jakinda ere, eskumenen ikuspegitik, integrazio-ahaleginari buruzko txostena, ez dela udal-ardura izan daitekeen eginkizunen barruan, bidezkoa dela ematen du aztertzea bideragarria den txostena udal-esparruaren barruan egitea, erantzukizuna eskumen-esparru autonomikoan mantenduta. Kasu horretan, nahi izatekoa litzateke Eusko Jaurlaritzak jarraibide batzuk erabakitzea, aipatu txostenak behar bezain homogeneoak eta estandarrak izan ahal izateko. Iraganean, sustraitze-txostenak eta etxebizitza egokitze-txostenak udalek berek egiten zituzten eta, horren ondorioz, hobeto egokitzen zituzten elkarren artean etorkin atzerritarrak hartzeko eta administratiboki erregularizatzeko prozesuak eta udal- eta gizarte-politikak eta -bitartekoak. Badirudi egokiagoa dela txosten horiek udal-esparruan egitea, aukera ematen duelako harrera eta erregularizatzeko dokumentala egiteko prozesuetan esku hartzen duten eragileen eta bitartekoen koordinazioa, efikazia eta efizientzia handiagoa izateko. Ekintzak Zuzendaritzako kargu politikoek esku hartzearen beharra du, udalekin (EUDEL) negoziatzeko lan-eskualdatze hori egiteko eta ahaleginak konpentsatzeko modurik onena.
Helburua	Harrera egiteko eta dokumentuak erregularizatzeko prozesuak arrazionalizatzea
Prozesuaren ebaluazioa	Prestakuntza-bileren, agertu direnen eta landutako gaien kopurua
Eraitzen ebaluazioa	Txostenak egiten dituen erakundea
Arduraduna	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2019ko bigarren sei hilekoa

4.2. ANTOLAKETA-NEURRIAK

Ekintza	4.2.6. Online prestakuntza-eskaintza bat garatzea zenbait xede-publikorentzat (hezkuntza-langileak, osasun-langileak, segurtasun-langileak, gizarte-eragileak, enpresen sarea, hirugarren sektoreko erakundeak eta abar), presta eta sentibera daitezen prestatzaile-talde propioen eta/edo kanpoko bidez.
Deskribapena	Kontua da online prestakuntza-eskaintza bat egitea zenbait xede-publikorentzat, administrazio publikoetan lan egiten duten langileekin hasita, pertsona gehiagorengana heldu ahal izateko kulturarteko konpetentziei lotutako sentsibilizazioan eta prestakuntzan. Biltzenek, esperientzia metatua baitu prestakuntzaren esparruan, eta Ikuspegiaren laguntza izanda, prestakuntza-katalogoa egiteko ardura izango luke, Zuzendaritzaren irizpideen arabera, bai eta prestakuntza horren edukien ardura ere. Online tresna horiek lagungarriak izango lirateke prestaketa-taldeen prestakuntzan eta kolektibo espezifiko batuen zuzeneko prestakuntzan.
Helburua	Administrazio publikoetako langileen online prestakuntza ahalbidetzea
Prozesuaren ebaluazioa	Telematikoki egin daitezkeen ikastaroen kopurua
Emaitzen ebaluazioa	Onlineko ikastaroen erabiltzaileen kopurua
Arduraduna	Biltzen
Lehentasuna	Handia
Data	2018ko bigarren seihilekoa

4.2. ANTOLAKETA-NEURRIAK

Ekintza	4.2.7. Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren web-orriko edukiak eguneratzea herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruan.
Deskribapena	Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan Jarduteko V. Plana, 2018-2020 delakoa onartu ondoren, haren web-orriaren edukiak planteamendu berrietara, helburuetara, antolaketara eta jarduteko lehentasunezko ildoetara egokitu behar dira. Zuzendaritzako pertsona baten ardura izango da web-orri berrian antolatu beharreko edukiak eta arkitektura (zuhaitza) identifikatzea.
Helburua	Komunikazio instituzionala plan berrira egokitzea, eta haren ildoan jartzea
Prozesuaren ebaluazioa	Zuzendaritzaren web-orriko informazioa aldatzea eta eguneratzea
Emitzen ebaluazioa	Web-aren edukiak planaren edukiekin identifikatzea
Arduraduna	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
	Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saileko Komunikazio Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2018ko bigarren seihilekoa

4.2. ANTOLAKETA-NEURRIAK

Ekintza	4.2.8. Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren zuzentze- eta gidatze-eginkizuna finkatzea aurreko puntuko 4.2.1. ekintzan aipatutako sisteman.
Deskribapena	Ekintza ez-espezifiko samarra da, herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruan batera eta modu koordinatuan lan egiten duen sistema bat muntatzearekin zerikusia duten gainerako ekintzak garatu eta gauzatzetik ondorioztatu daitezkeen eraginak biltzen dituelako. 4.2.1. ekintzan deskribatutako sistemaren sorreraren ondorioz, Zuzendaritzak bere lanaren esparruan betetzen duen zuzentze- eta gidatze-eginkizuna finkatu behar da.
Helburua	Zuzendaritza gidaritza-rolen kokatzea
Prozesuaren ebaluazioa	Lantaldeak sortzea Jarraipen-bilerak egitea
Emitzen ebaluazioa	Zuzendaritzaren, Biltzenen eta Ikuspegiren urteko bilera Udaleko eta lurraldeko teknikarien urteko bilera Foroaren urteko bilera
Arduraduna	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2018ko bigarren sei hilekoa eta 2019ko lehen sei hilekoa

4.2. ANTOLAKETA-NEURRIAK

Ekintza	4.2.9. Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak Lanbideko langileekin gidatu eta koordinatutako lantalde bat eratzea, lana eta ekimenak indartzeko atzeritar jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonak laneratzeko prestakuntzaren eta enpleguaren esparru espezifikoan.
Deskribapena	Zuzendaritzako lehentasunezko hiru lantaldeetako bat da, Eusko Jaurlaritzaren barruan, Hezkuntzakoarekin eta Giza Eskubideetakoarekin batera. Xedea lantalde bat antolatzea da Lanbidek lagunduta, herritartasunarekin, kulturartekotasunarekin eta immigrazioarekin zerikusia duten hainbat konturi heltzeko. Lantalde horrek estaldura politikoa behar du, hau da, bi zerbitzu edo instantzietako arduradunek eta egungo Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, aipatu bi horiek subsumitzen baititu, babestu eta bermatutako talde bat da. Barne-funtzionamenduko protokolo bat ere izango du. Lantalde horretan Zuzendaritzako pertsona batek (zuzendariaren ordelaria) eta Biltzen eta Ikuspegiko ordezkariak parte hartuko dute. Taldeak azkenean izango duen formatua zertu bitartean, Zuzendaritzaren tresna garrantzitsua izango da, ekintza eraginkorrak lortzeko atzeritar etorki, jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonak laneratzeko prestakuntzaren eta enpleguaren esparruan. Lantaldean parte hartuta lortu nahi diren urteko helburu espezifikoak erabaki eta partekatuko ditu Zuzendaritzak. Talde horretan, Zuzendaritzaren jardunak proaktiboa, konprometitua eta anbiotsua izan behar du.
Helburua	Mugarri espezifikoak lortzea enpleguaren eta laneratzeko prestakuntzaren esparruan
Prozesuaren ebaluazioa	Lantaldea sortzea Helburu zehatzak ezartzea Lantaldearen parte-hartzea eta jarduera
Emitzen ebaluazioa	Helburu zehatzak lortzea
Arduraduna	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2018ko bigarren sei hilekoa eta 2019ko lehen sei hilekoa

4.2. ANTOLAKETA-NEURRIAK

Ekintza	4.2.10. Lantaldea finkatzea, Hezkuntza Saileko langileek gidatu eta koordinatuta, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren parte-hartzearekin, hezkuntza-esparruan atzerriar etorki, jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonen dagokienez gauzatzen ari diren lana eta ekimenak indartzeko.
Deskribapena	Zuzendaritzako lehentasunezko hiru lantaldeetako bat da, Eusko Jaurlaritzaren barruan, Lanbidekoarekin eta Giza Eskubideetakoarekin batera. Hezkuntza Sailarekin sortuta dagoen lantalde bat da, eta hezkuntza-esparruan herritartasunarekin, kulturartekotasunarekin eta immigrazioarekin zerikusia duten hainbat konturi heltzea du helburu. Lantalde horretan Zuzendaritzako pertsona batek (zuzendariaren ordelaria) eta Biltzen eta Ikuspegiko ordezkariak parte hartuko dute. Talde horrek Zuzendaritzaren tresna garrantzitsua izan behar du, ekintza eraginkorrak lortzeko atzerriar etorki, jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonen hezkuntza-esparruan. Lantaldean parte hartuta lortu nahi diren urteko helburu espezifikoak erabaki eta partekatuko ditu Zuzendaritzak. Talde horretan, Zuzendaritzaren jardunak proaktiboa, konprometitua eta anbiotsua izan behar du.
Helburua	Mugarri espezifikoak lortzea hezkuntza-eremuan
Prozesuaren ebaluazioa	Helburu zehatzak ezartzea Lantaldearen parte-hartzea eta jardura
Emitzen ebaluazioa	Helburu zehatzak lortzea
Arduraduna	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2018ko bigarren seihilekoa

4.2. ANTOLAKETA-NEURRIAK

Ekintza	4.2.11. Lantalde bat sortzea, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak gidatu eta koordinatuta, Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiko langileekin, arrazoi ekonomikoengatik, politikoengatik, humanitarioengatik edo ingurumenari lotuta daudenengatik migratutako pertsonen esparru espezifikoan lana eta ekimenak indartzeko, asiloa eta aterpea eskatzen dituzten pertsonak ahaztu gabe.
Deskribapena	Zuzendaritzako lehentasunezko hiru lantaldeetako bat da, Eusko Jaurlaritzaren barruan, Hezkuntzakoarekin eta Lanbidekoarekin batera. Xedea lantalde bat antolatzea da Giza Eskubideen Idazkaritza Nagusiak lagunduta, herritartasunarekin, kulturartekotasunarekin eta immigrazioarekin zerikusia duten hainbat konturi heltzeko. Lantalde horrek estaldura politikoa behar du, hau da, bi zerbitzu edo instantzieta arduradunek babestu eta bermatutako talde bat da. Barne-funtzionamenduko protokolo bat ere izango du. Lantalde horretan Zuzendaritzako pertsona batek (zuzendariaren ordelaria) eta Biltzen eta Ikuspegiko ordezkariak parte hartuko dute. Taldeak azkenean izango duen formatua zertu bitartean, Zuzendaritzaren tresna garrantzitsua izango da, ekintza eraginkorrak lortzeko atzerriar etorki, jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonen giza eskubideen, asiloaren eta/edo aterpearen esparruan. Lantaldean parte hartuta lortu nahi diren urteko helburu espezifikoak erabaki eta partekatuko ditu Zuzendaritzak. Talde horretan, Zuzendaritzaren jardunak proaktiboa, konprometitua eta anbiotsua izan behar du.
Helburua	Mugarri espezifikoak lortzea giza eskubideen esparruan, asiloan eta/edo aterpean
Prozesuaren ebaluazioa	Lantaldea sortzea Helburu zehatzak ezartzea Lantaldearen parte-hartzea eta jarduera
Emitzen ebaluazioa	Helburu zehatzak lortzea
Arduraduna	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2018ko bigarren seihilekoa eta 2019ko lehen seihilekoa

4.2. ANTOLAKETA-NEURRIAK

Ekintza	4.2.12. Lantalde bat sortzea, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak gidatu eta koordinatuta, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako langileekin, atzeritar jatorriko biztanleen artean euskara ikasi eta erabiltzea sustatzearekin zerikusia duten ekimenak eta lana sendotzeko.
Deskribapena	Lantalde horretarako arrazoa da euskara zeharkako lan-ildotzat hartzea plan honetan jasotako jarduketa guztietan. Xedea lantalde bat antolatzea da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak lagunduta, herritartasunarekin, kulturartekotasunarekin eta immigrazioarekin zerikusia duten hainbat konturi heltzeko, bereziki hizkuntza-dibertsitatearen arloan. Lantalde horrek estaldura politikoa behar du, hau da, bi zerbitzu edo instantzie-tako arduradunek babestu eta bermatutako talde bat da. Barne-funtzionamen-duko protokolo bat ere izango du. Lantalde horretan Zuzendaritzako pertsona batek (zuzendariaren ordelaria) eta Biltzen eta Ikuspegiko ordezkariak parte hartuko dute. Bidezkoa dela ematen du beste erakunde batzuk parte-hartzaile izateko aukera aztertzea: UEMA, Euskaltzaindia, Topagunea... eta esparru honetan lan egiten duten beste erakunde batzuk. Taldeak azkenean izango duen formatua zertu bitartean, Zuzendaritzaren tresna garrantzitsua izango da, ekintza eraginkorrak lortzeko euskararen nahiz giza eskubideen esparruan eta euskarak kulturartekotasun-prozesuan egiten duen ekarpenean, bai eta hizkuntza-dibertsitatearen kudeaketari heltzeko eredu ere. Lantaldean parte hartuta lortu nahi diren urteko helburu espezifikoak erabaki eta partekatuko ditu Zuzendaritzak. Talde horretan, Zuzendaritzaren jardunak proaktiboa, konprometitua eta anbi-ziotsua izan behar du.
Helburua	Atzeritar jatorriko biztanleen euskararekiko jarrera hobetzea Euskararen ikasketa eta erabilera sustatzea atzeritar jatorriko biztanleen artean
Prozesuaren ebaluazioa	Lantaldea sortzea Helburu zehatzak ezartzea Lantaldearen parte-hartzea eta jarduera
Emitzen ebaluazioa	Helburu zehatzak lortzea
Arduraduna	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2018ko bigarren seihilekoa eta 2019ko lehen seihilekoa

4.2. ANTOLAKETA-NEURRIAK

Ekintza	4.2.13. Lantalde bat sortzea, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak gidatu eta koordinatuta, udaletako immigrazio eta gizarte-zerbitzuetako teknikariek, toki-esparruan atzerritar etorki, jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonentzat garatzen ari diren ekimenak eta lana sendotzeko.
Deskribapena	Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan Jarduteko V. Plana, 2018-2020 honek lehentasunezko hiru ekintza-esparru jasotzen ditu: hezkuntza-esparrua, lan-esparrua eta bizikidetza-esparrua. Azken horretan lan egiteak toki- eta udal-mailan jardutea dakar berekin. Horregatik, uste dugu udal-teknikariek (eta lurralde-teknikariek, hurrengo ekintzan ikusiko dugun bezala) egiten den elkarlana indartu behar dela. 4.2.1. ekintzan, langile horiekin bilerak egiteko protokolo bat ezartzen da: bi bilera urtean lurralde-mailan, Zuzendaritzak ere parte hartuta lurraldeetakoren batean udal-teknikarien eta diputazioen artean egiten direnetan (Gipuzkoako Foru Aldundiko Elkarbizi sareaz ari gara); eta beste bi bilera urtean, autonomia-mailan, udal- eta lurralde-teknikari guztiak bilduta. Hitz batean, xedea lantalde bat antolatzea da diputazioek eta udalek lagunduta, herritartasunarekin, kulturartekotasunarekin eta immigrazioarekin zerikusia duten hainbat konturi heltzeko. Lantalde horretan Zuzendaritzako pertsona batek (zuzendariaren ordelaria) eta Biltzen eta Ikuspegiko ordezkariak parte hartuko dute. Taldeak azkenean izango duen formatua zertu bitartean, Zuzendaritzaren tresna garrantzitsua izango da, ekintza eraginkorrak lortzeko bizikidetza- eta harrera-esparruan. Lantaldean parte hartuta lortu nahi diren urteko helburu espezifikoak erabaki eta partekatuko ditu Zuzendaritzak. Talde horretan, Zuzendaritzaren jardunak proaktiboa, konprometitua eta anbiotsua izan behar du.
Helburua	Mugarri espezifikoak lortzea bizikidetzaren eta udal-harreraren eremuan
Prozesuaren ebaluazioa	Lantaldea sortzea Helburu zehatzak ezartzea Lantaldearen parte-hartzea eta jardura
Emitzen ebaluazioa	Helburu zehatzak lortzea
Arduraduna	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2018ko bigarren seihilekoa eta 2019ko lehen seihilekoa

4.2. ANTOLAKETA-NEURRIAK

Ekintza	4.2.14. Lantalde bat sortzea Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren eta hiru aldundietako immigrazioko teknikarien artean, eskubideak eskuratzeko esparruan, kulturartekotasunean eta immigrazioan garatzen ari diren ekimenak eta lana sendotzeko.
Deskribapena	Ekintza honek erlazio zuzena du aurrekoarekin, 4.2.13. ekintzarekin, eta osatu egiten du, berekin dakarrelako lankidetzan eta ildo berean aritzea diputazioekin eta udalekin, lan koordinatua egiteko autonomia-, lurralde- eta udal-mailetan, bakoitzaren eskumenak errespetatuta. 4.2.1. ekintzan, langile horiekin bilerak egiteko protokolo bat ezartzen da: bi bilera urtean lurralde-mailan, Zuzendaritzak ere parte hartuta lurraldeetakoren batean udal-teknikarien eta diputazioen artean egiten direnetan (Gipuzkoako Foru Aldundiko Elkarbizi sareaz ari gara); eta beste bi bilera urtean, autonomia-mailan, udal- eta lurralde-teknikari guztiak bilduta. Hitz batean, xedea lantalde bat antolatzea da diputazioek eta udalek lagunduta, herritartasunarekin, kulturartekotasunarekin eta immigrazioarekin zerikusia duten hainbat konturi heltzeko. Lantalde horretan Zuzendaritzako pertsona batek (zuzendariaren ordelaria) eta Biltzen eta Ikuspegiko ordezkariak parte hartuko dute. Taldeak azkenean izango duen formatua zertu bitartean, Zuzendaritzaren tresna garrantzitsua izango da, ekintza eraginkorrak lortzeko bizikidetzaren eta harreara-esparruan. Lantaldean parte hartuta lortu nahi diren urteko helburu espezifikoak erabaki eta partekatuko ditu Zuzendaritzak. Talde horretan, Zuzendaritzaren jardunak proaktiboa, konprometitua eta anbiotsua izan behar du.
Helburua	Mugarri espezifikoak lortzea bizikidetzaren eta udal-harreraren eremuan
Prozesuaren ebaluazioa	Lantaldea sortzea Helburu zehatzak ezartzea Lantaldearen parte-hartzea eta jarduera
Emitzen ebaluazioa	Helburu zehatzak lortzea
Arduraduna	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2018ko bigarren seihilekoa eta 2019ko lehen seihilekoa

4.2. ANTOLAKETA-NEURRIAK

Ekintza	4.2.15. Lantalde bat finkatzea, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak gidatu eta koordinatuta, Segurtasun Saileko langileekin, segurtasun-indarretako eta udaltzaingoetako kideak kulturarteko ikuspegitik sentiberatzeko eta prestatzeko garatzen ari diren ekimenak eta lana sendotzeko.
Deskribapena	Segurtasuna, plan honetan bildutako jarduera-esparru osagarri edo lehentasunezkoen artean ez egonda ere, plan honek barruan hartu nahi duten lan-ildo bat da. Izan ere, badago lantalde bat Zuzendaritzaren eta Segurtasun Sailaren artean, eta finkatu nahi dugu. Lantaldeak segurtasunaren esparruan herritartasunarekin, kulturartekotasunarekin eta immigrazioarekin zerikusia duten hainbat konturi heltzea du helburu. Lantalde horretan Zuzendaritzako pertsona batek (zuzendariaren ordelaria) parte hartuko du. Biltzeneko eta Ikuspegiko ordezkariak ere parte hartu ahal izango dute, hala egokituz gero. Talde horrek Zuzendaritzaren tresna garrantzitsua izan behar du, ekintza eraginkorrak lortzeko atzeritar etorki, jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonen segurtasunaren esparruan. Lantaldean parte hartuta lortu nahi diren urteko helburu espezifikoak erabaki eta partekatuko ditu Zuzendaritzak. Talde horretan, Zuzendaritzaren jardunak proaktiboa, konprometitua eta anbiotsua izan behar du.
Helburua	Mugarri espezifikoak lortzea segurtasun-eremuan
Prozesuaren ebaluazioa	Helburu zehatzak ezartzea Lantaldearen parte-hartzea eta jarduera
Emitzen ebaluazioa	Helburu zehatzak lortzea
Arduraduna	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2018ko bigarren sei hilekoa

4.3.1. HEZKUNTZA-EREMUA

Ekintza	4.3.1.1. Zuzendaritzaren laguntza familiak prestatzearen eta ikastetxeetan inplikatzearen aldeko gune komunitarioen sorreran.
Deskribapena	Inklusio-, ekitate- eta bikaintasun-printzipioak errealitate bihurtuta ikasle guztien garapen osoa eta eskola-arrakasta bermatzeko helburuan oinarrituta, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza elkarlanean ariko da gune komunitario komunaren sorreran, atzerritar etorkiko familiak prestatzeko, eta ikastetxeekin nahiz ikastetxeetan inplikatzeko. Inplikazioa ez da beti posible, lan-ordutegiengatik edo beste arrazoi batzuegatik, eta bertako beste biztanle-sektore zabal-zabal batzuetara ere heda daiteke, eta, gainera, kapital sozialaren eta kulturalaren premia du, baina ez dago beti eskura. Horregatik, gune komunitarioek, eskola-esparruaren barruan eta prestatzeko eta laguntzeko sare moduan eratuta, nabarmenkiro lagun dezakete eskola-errendimenduan eta errealitate bihurtzen <i>2016-2020ko eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana</i> osatzen duten printzipioak. Harrera- eta lekukotze-dinamikak prozesu berean batzen dituzten horrelako esperientziak daude, eta beste zentro asko eta askotara zabaltzea da kontua. Mekanismo horien bitartez, bidea ematen da familiek esku har dezaten zentroaren bilakaeran, barrurago sar daitezen zentroaren dinamikan eta seme-alaben heziketan, eta horrek guztiak eragina izan dezan ikasle guztien eskola-arrakastan, sektore ahulenek eta, haien artean, bereziki atzerritar jatorri eta/edo etorkiko biztanleen ondorengo ikasleek, zenbait arrazoiengatik (prestasun txikiagoa, familietan berrelkartuta, kualifikaziorik eza), ezaugarri dituzten gapak gaindituta.
Helburua	Atzerritar etorkiko familiak ahalduntzea, eta ikastetxeetan duten partaidetza sustatzea
Prozesuaren ebaluazioa	Toki-esperientziak biltzea eta katalogatzea Eredu bat egitea
Emaitzen ebaluazioa	Zenbait udaletan ezartzea Toki-esperientzia berriak abian jartzea
Arduraduna	Hezkuntza Saila
	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
Lehenetasuna	Ertaina
Data	2019ko bigarren seihilekoa

4.3.1. HEZKUNTZA-EREMUA

Ekintza	4.3.1.2. Zuzendaritzak laguntzea, udalekin eta diputazioekin batera, eta Hezkuntza Sailaren adostasuna izanda, boluntariotza baten erakundearteko sustapenean, mentoretza moduan indar dezan eskolaz kanpoko jardueren eta hezkuntza-ekimen ez-formalen esparrua bere hurbileko ingurunean, aldi baterako hezkuntza- eta gizarte-beharrak dituzten ikasleen artean.
Deskribapena	Aurreko neurriko logika berarekin (4.3.1.2.), erakundearteko lankidetzak sustatzen da diputazioen, udalen, Familia Politikako Zuzendaritzaren eta Hezkuntza Sailaren artean, honako hauek gauzatzeko mentoreek (asoziazionismoari lotutako pertsonak, erretiroa hartu duten irakasleak, industriako profesionalak eta tutoretza-lanari balioa gehi diezaiokkeen eta prest dagoen pertsona orok) atzeritar jatorri eta/edo etorkiko ikasle kalteberekin egindako borondatezko lanaren bidez: harrera-lana luzatzea, administrazio-prozedurak kudeatzea eta, batez ere, eskola-errefortzuan laguntzea, bai ikasleen ikasketa-mailako edukiei dagokienez, bai hizkuntzari dagokienez. Xedea da diputazioek, normalean mugak izanda ere bizikidetzaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparru honetan, gidatzea eta diruz lagundu ahal izatea mentoretza- edo tutoretza-programak udalen laguntzarekin. Jarduera horrek premiazkoa du udal batzuk, elkarleen mundua eta hirugarren sektorekoa garatzen ari diren esperientziak jaso, aztertu eta laburtzea, eta beste udalerri batzuetara zabaltzea. Errefortzu hori, zeinak, jakina, eskola-jardunaren eguneroko lana osatzen baitu, derrigorrezkoaren ondorengo hezkuntzara arte luzatuko litzateke, eta batxilergoa eta lanbide-heziketa bilduko lituzke, eta, horretarako, boluntarioen giza kapitala (lotura egiteko soziala, eta prestatzeko kulturala, zubi izateaz gain) funtsezkoa da.
Helburua	Tutoretza/mentoretzen udal-sarea progresiboki ezartzea
Prozesuaren ebaluazioa	Tutoretzako azterketa eta bilketa Aplikazio-eredu malgu bat ezartzea Eredua udalerri gehiagotan zabaltzea
Emaitzen ebaluazioa	Mentoretzako edo tutoretzako udal-eredu bat sortzea, hedatzea eta finantzatzea
Arduraduna	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
	Diputazioak, Hezkuntza Saila
Lehenetasuna	Handia
Data	2020ko bigarren seihilekoa

4.3.1. HEZKUNTZA-EREMUA

Ekintza	4.3.1.3. Zuzendaritzak laguntzea 2016-2020ko eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana ezartzeko eta garatzeko, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko langileekin batera.
Deskribapena	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza, immigrazioaren eta dibertsitatearen esparruan dauzkan eskumenen arabera, eta kontuan hartuta atzerri-tar jatorri eta/edo etorkiko ikasleen eskola-arrakasta bermatzea kezka duela, elkarlanean ariko da Hezkuntza Sailarekin 2016-2020ko eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana ezartzeko, eta Hezkuntza Sailaren gidaritza onartuko du, bere egingo ditu planaren printzipioak eta herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta im-migrazioaren esparrua osatzen duen sistema osoan ezagutarazi eta zabalduko ditu, bere Immigrazio Foroko Hezkuntza Batzordean oinarrituta. Elkarlan horretan, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak, gainera, egokitzen jotzen dituen gaiak proposatuko ditu zuzendariak esku hartzen duen Hezkuntza Saileko batzorde politikoan, edo Zuzendaritzak eta Biltzeneko eta Ikuspegiko langileek esku hartzen duten batzorde teknikoan.
Helburua	2016-2020ko eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan ikasle etor-kinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana ezartzea eta garatzea
Prozesuaren ebaluazioa	Hezkuntza Saileko Batzordean parte hartzea Eztabaidak 2016-2020ko eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Planari buruz Immigrazio Foroko Hezkuntza Batzordean
Emitzen ebaluazioa	2016-2020ko eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan ikasle etor-kinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana ebaluatzeko txostena
Arduraduna	Hezkuntza Saila
	Foroko Hezkuntza Batzordea, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2018ko lehen seihilekoa

4.3.1. HEZKUNTZA-EREMUA

Ekintza	4.3.1.4. Zuzendaritzak laguntzea atzeritar etorki, jatorri eta/nazionalitateko adingabeen artean euskara ikastea sustatzeko neurrien ezarpenean.
Deskribapena	Hezkuntza-Sailak atzeritar jatorri eta/edo etorkiko ikasleek euskara ikas dezaten <i>2016-2020ko eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana</i> delakoan aurreikusitako jarduerekin batera, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak helburu bera lortzeko neurri osagarriak prestatzen lagunduko du. Ikasle horiek euskarari buruz zer iritzi eta jarrera duten aztertze lanez gain, neurriak abiaraziko ditu, eta bestelako neurriak diruz lagunduko, ikaste hori sustatzeko. Era berean, 4.3.1.1. eta 4.3.1.2 neurrietan bildutako bide ez-formalen eta antzekoen bidez, euskararen erabilera hurbildu eta sustatuko du atzeritar jatorri eta/edo etorkiko ikasleen artean.
Helburua	Atzeritar jatorri eta/edo etorkiko adingabeen artean euskara sustatzen laguntzea
Prozesuaren ebaluazioa	Egun dauden programak eguneratzea (AISA...) Toki-esperientzien azterketa Jardunbide egokiak katalogatzea
Eraitzen ebaluazioa	Ekimenean parte hartzen duten ikasleen kopurua
Arduraduna	Hezkuntza Saila
	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
Lehenetasuna	Handia
Data	2018ko bigarren seihilekoa

4.3.1. HEZKUNTZA-EREMUA

Ekintza	4.3.1.5. Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak laguntzea, prestakuntza-taldeak prestatzearen bidez, kulturartekotasunari buruzko gogoeta eta prestaketa sartzeko zuzendaritza-taldeak prestatzeko planean.
Deskribapena	Gaur egun arte gertatu bezala, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza, Biltzenen bitartez, elkarlanean ariko da Hezkuntza Sailarekin, prestatzaileak gaitzeko azken sail horren barruan, immigrazioaren eta kulturartekotasunaren esparruetan. Jarduera hori iraunkorra izan arren, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak prestatzaileak gaitzea du helburu, autoprestakuntza autonomoko kateko dinamika sortzeko gainerako sailetan; bereziki, Hezkuntza Sailean. Horretarako, prestakuntza-eskaintza bat egingo da zenbait xede-publikorentzat, oro har administrazio publikoetan lan egiten duten langileekin hasita, pertsona gehiagorengana heldu ahal izateko kulturarteko konpetentziei lotutako sentsibilizazioan eta prestakuntzan. Biltzenek, esperientzia metatua baitu prestakuntzaren esparruan, eta Ikuspegiaren laguntza izanda, prestakuntza-katalogoa egiteko ardura izango luke, Zuzendaritzaren jarraibideen arabera, bai eta prestakuntza horren edukien ardura ere, Berritzegune zentralaren eta zonetakoen laguntzarekin. Ikastaro horiek derrigorrezko eta derrigorrezkoaren ondorengo eskola-egiturako mailetarako izango dira, baina, plan honen barruan, zuzendaritza-taldeen prestatzaileak gaitzea izango da helburua, kulturarteko ikuspegia ezagutzera emanda.
Helburua	Prestatzaileak prestatzea kulturarteko ikuspegian
Prozesuaren ebaluazioa	Hezkuntza-katalogoa egitea Prestatzaileen prestakuntza kopurua
Eraitzen ebaluazioa	Prestatutako pertsonen kopurua
Arduraduna	Biltzen
	Ikuspegi, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza, Berritzegune
Lehentasuna	Handia
Data	2019ko lehen sei hilekoa

4.3.1. HEZKUNTZA-EREMUA

Ekintza	4.3.1.6. Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak laguntzea jardunaldi bat antolatzen ikasle guztien artean “kulturarteko konpetentzia” garatzeari buruz, sailen arteko lankidetzaren esparruaren barruan, <i>Euskal Autonomia Erkidegoko herritar etorkinen Integrazioa eta Partaidetza Sozialerako Foroan</i> parte hartzen dutenen laguntzarekin, jardunaldi irekia izanda eskola-komunitate osoarentzat, batez ere zuzendaritza-taldeentzat.
Deskribapena	Kulturartekotasuna ez dagokie bakarrik atzerritar jatorri eta/edo etorkiko ikasleei, eskola-komunitate osoari baizik, eta, zehazki, oro har, ikasle guztiei. Kulturarteko ikuspegiak kultura-dibertsitate osoaren elkartze-prozesua eta interakzioa eskatzen ditu, eta herritartasunaren eta integrazioaren logikak birplanteatzen ditu eskubideen esparruaren barruan. Horregatik guztiagatik, ezinbestekoa da kulturarteko konpetentzia garatzea, eta ikasle guztien artean zabaltzea, eskubideak eta betebeharrak gurutzatzen diren dinamika dialektiko batean. Gizarte-inklusioa ekitate-printzipioaren eta desparekotasuna antzekotasun-parametro batzuetan mantentzearen mende dago. Proposatzen den prestakuntza-ekintza kulturarteko konpetentziari helduko dion jardunaldi bat izango da.
Helburua	Ikasle guztiak kulturarteko konpetentzietan prestatzea
Prozesuaren ebaluazioa	Jardunaldia antolatzen laguntzea Gaiak eta parte-hartzaileak prestatzea
Emaitzen ebaluazioa	Jardunaldi bat egitea hezkuntza-komunitatearen eta erakundeen parte-hartzearekin
Arduraduna	Hezkuntza Saila
	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2019ko lehen sei hilekoa

4.3.1. HEZKUNTZA-EREMUA

Ekintza	4.3.1.7. Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren laguntza, familien prestakuntzan eta parte-hartzean jardunbide onak hautatu eta zabaltzeko.
Deskribapena	Familien parte-hartzeaz hobetzeko gakoetako bat dela pentsatzen da, eta, horregatik, hezkuntza-sistemaren funtsezko helburu bat da, eta sareetatik sustatzen diren programetan lehentasunezko estrategia pedagogikoetako bat. Adibidez, Hamaika Esku programako ikastetxeetan, familien parte-hartzeari, inplikazioari eta elkarlanari buruzko esku-hartze ildoak garrantzitsuenetako bat da. Familien inplikazioa sustatzeko, dauzkaten egiturazko zailtasunak gorabehera, funtsezkoa da familien prestakuntzaren eta parte-hartzearen arloko jardunbide onak hautatzea eta zabaltzea. Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza elkarlanean ariko da Hezkuntza Sailarekin hautaketa horretan Biltzenen eta Ikuspegiren bitartez.
Helburua	Atzerritar jatorri eta/edo etorkiko familien prestakuntzaren eta parte-hartzearen arloko jardunbide onak hautematea
Prozesuaren ebaluazioa	Hautaketa-prozesuan parte-hartzea
Emitzen ebaluazioa	Emitzen txostena
Arduraduna	Hezkuntza Saila
	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2018ko bigarren sei hilekoa

4.3.2. ENPLEGU- ETA PRESTAKUNTZA-EREMUA

Ekintza	4.3.2.1. Lanbideko eta lagundutako erakunde espezifikoetako orientazio-tek- nikariak sentiberatzea eta prestatzea, Eusko Jaurlaritzako Enplegu- ko eta Gizarte Politiketako Saileko prestakuntza-taldeen prestaketaren bidez, ikuspegi inklusibo eta kulturartekoari, herritar-eskubide eta -betebeharrei eta etorkin atzeritarren gizarte-inklusioari dagokie- nez.
Deskribapena	Azken urteetan ohi bezala, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak, ahal bada Biltzenen eta egoeraren arabera Ikuspegiren bitartez, elkarlanean jar- dungo du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin prestatzaileak gaitzen immi- grazioaren eta kulturartekotasunaren esparruan. Neurri hori iraunkorra izan arren, prestatzaileak gaitzea da Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren helburua, autoprestakuntza autonomoko kateko dinamika bat sortzeko gobernuko gainerako sailetan eta erakundeetan, bereziki Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan, Enplegu-ko eta Gizarte Politiketako Sailaren barruan. Lanbiden litezkeen prestatzaileak gaitzea da helburua. Eusko Jaurlaritzako gainerako arloetan esperientzia zabala metatu baitu pres- takuntzaren esparruan, Biltzenen ardura izango da bai kulturarteko ikuspegia- rekin prestatuntza-katalogoa egitea Zuzendaritzaren irizpideen arabera, bai prestatuntzaren edukiak zehaztea, Lanbide-ko esku hartzen duen arloetako be- harretan oinarrituta.
Helburua	Prestatzaileak prestatzea Lanbiden
Prozesuaren ebaluazioa	Prestakuntza-eskaintza egitea Ikastaro kopurua
Emitzen ebaluazioa	Prestatutako pertsonen kopurua
Arduraduna	Biltzen
	Lanbide, Ikuspegi
Lehentasuna	Handia
Data	2019ko lehen sei hilekoa

4.3.2. ENPLEGU- ETA PRESTAKUNTZA-EREMUA

Ekintza	4.3.2.2. Erreferente diren atzerritar etorki, jatorri eta/edo nazionalitateko profesionalei buruzko komunikazio- eta sentsibilizazio-kanpaina bat garatzea EAEko gizartean.
Deskribapena	Berebiziko garrantzia du atzerritar etorkiko biztanleek gidari, erreferentziazko talde, <i>influencer</i> batzuk izatea, nori erreparatu eta ibilbide arrakastatsuak egiteko akuilua izan dezaten. Erreferentziazko taldeak, izenak adierazi bezala, antzeratzeko erabiltzen ditugun erreferentziak dira, eta <i>autosozializazio</i> aurreratu moduan funtzionatzen dute: zer izan nahiko genukeen, hura imitatzen dugu. Etorkinek integrazio sozialaren erreferentziak izan behar dituzte gizarte-kohesioan, kulturartekotasunean eta herritartasun inklusiboan oinarrituta egon nahi duen gizarte honetan. Helburu horri begira, etsigarria izan daiteke herritar horiek pentsatzea gizartean gora egiteko bide jakin batzuk galarazita dauzkatela atzerritar jatorri eta/edo etorkiko biztanleek. Pertzepzio horri aurre egiteko, komunikazio- eta sentsibilizazio-kanpaina bat egingo da, gorantz mugitzea lortu duten eta gizartean barneratze eta integratzeko akuilu positiboa izan daitezkeen atzerritar jatorri eta/edo etorkiko pertsonak edo kolektiboak bilduta. Gizartean gora egitea lortu duten atzerritar jatorri eta/edo etorkiko biztanleei buruzko pertzepzioa eta atzerritarrek ekarpena egiten dutelako bertakoen pertzepzioa zenbat eta positiboagoak izan interakzioaren ikuspuntutik, orduan eta errazagoa izango da kulturartekotasuna berdintasunean lortzea prozesu moduan, eta ahulagoak izango dira eragozpen eta diskriminazio sotil zein agerikoak.
Helburua	Komunikazio-kanpaina bat egitea, eta erreferentziazko talde arrakastatsuetan oinarrituta sentsibilizatzea.
Prozesuaren ebaluazioa	Kanpainaren diseinua Erreferentziazko pertsonen hautaketa
Emaitzen ebaluazioa	Sentsibilizazio-kanpaina egitea
Arduraduna	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2019ko bigarren seihilekoa

4.3.2. ENPLEGU- ETA PRESTAKUNTZA-EREMUA

Ekintza	4.3.2.3. Zuzendaritzak laguntzea etorkin atzerritar helduen artean (HHE) hizkuntzen ikaskuntza berrikusi eta sustatzeko, integratu eta prestakuntza eta enplegua lortzeko bidea delako, arreta berezia jarrita emakumezko eta gizonezko gazteengan.
Deskribapena	Atzerritarrek bi hizkuntza ofizialak jakitea –euskara eta gaztelania–, komunikatzeko eta kulturartekotasuna bultzatzeko tresna izateaz gain, ezinbestekoa da integratzeko bide moduan, batez ere hizkuntzaren eta gizartearen ikuspuntutik urrunen dauden atzerritar jatorriak dituztenentzat. Ikuspegi horretatik, zaila da interakzioa izatea gutxieneko komunikaziorik izan ezean, eta kaltean ateratzen dira hizkuntza-konpetentzia lortzeko arazorik handienak dituzten taldeak: helduak. Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak laguntza emango du hizkuntza ofizialen sustapena gizartean integratzeko bide bat izateko, prestakuntza eta enplegurako sarrera bideratu ondoren. Hezkuntzak, prestakuntzak, enpleguak eta gizarteratze-prozesuak osatutako <i>continuum</i>a atzerritar jatorri eta/etorkiko kolektibo guztien ekitatearen oinarria da, bai eta EAEko gizartearen kohesioaren oinarria ere. Ezinbestekoa da hizkuntza ofizialetan prestakuntza biziagoa eta luzea izatea, egiturazko diskriminazioak ez luzatzeko eta, beroriei atxikita, belaunaldiarteko diskriminaziorik ez izateko. Zuzendaritza elkarlanean ariko da ikusteko nola sustatu hizkuntzak mintzaira horiek irakasteko egungo eredu berrikustearen bidez. Alde horretatik, Foroko enplegu-batzordeak ere laguntza handia eman dezake.
Helburua	Hizkuntza ofizialen ikasketa sustatzea kolektibo zaurgarrienetan.
Prozesuaren ebaluazioa	Ereduaren azterketa hizkuntza ofizialen prestakuntzan Ereduan aldaketak egiteko proposamena Arlo honetaz arduratutako taldean parte hartzea
Emitzen ebaluazioa	Emitzei buruzko txostena, hobetzeko gomendioekin
Arduraduna	Hezkuntza Saila (HHE)
	Lanbide, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2018ko bigarren seihilekoa

4.3.2. ENPLEGU- ETA PRESTAKUNTZA-EREMUA

Ekintza	4.3.2.4. Zuzendaritzak laguntzea lan-orientazioarako material informatiboak (enplegurako prestakuntza) zenbait hizkuntzatan egiteko.
Deskribapena	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza elkarlanean ariko da lan-orientazioarako material informatiboak argitaratzeko atzeritar jatorri eta/edo etorki-ko biztanleen artean ohikoenak diren hizkuntzetan, komunikazio eraginkorra eta prestakuntzan nahiz enpleguan sarbidea izatea bermatzeko, bai eta, azkenik, gizartean integratzeko mekanismo eta bide moduan ere. Biltzenek arlo honetan daukan esperientziaren esku utzi ahal izango du lankidetza Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak.
Helburua	Atzeritar jatorri eta/edo etorki-ko pertsonak lan-orientazioan benetan sar daitezzen erraztea.
Prozesuaren ebaluazioa	Dauden materialen bilketa Itzuli beharreko hizkuntzen zerrenda
Emitzen ebaluazioa	Lan-orientazioari buruzko materialak argitaratzea
Arduraduna	Lanbide
	Biltzen, Ikuspegi, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2019ko bigarren seihilekoa

4.3.2. ENPLEGU- ETA PRESTAKUNTZA-EREMUA

Ekintza	4.3.2.5. Zuzendaritzak laguntzea prestatzeko eta laneratzeko laguntzen deialdien berrikuspenean: gauzatze-epeak egokitzea, laneratzeko baldintzak eta abar.
Deskribapena	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza elkarlanean ariko da Lanbide-rekin prestatzeko eta laneratzeko laguntzen deialdien berrikuspenean: gauzatze-epeak egokitzea; laneratzeko baldintzak; eta, atzerritar etorkiko biztanleen beharren eta aukeren ikuspegitik, egokitzea jotako beste alderdi batzuk. Zuzendaritza, Biltzenen eta Ikuspegiren bidez, Lanbideren eta berorrek daukan prestakuntza- eta laneratzeko-taldean esanetara jarriko da, atzerritar jatorriko biztanleek prestakuntzan eta enpleguan sarbidea izateko eskatutako baldintzak betetzea eragotzi eta, horrenbestez, gizartean integratzeko bidea <i>sine die</i> atzera dezaketen arazoak gainditzeko helburu partekatuarekin. Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak, mendeko dituen eragileen bitartez –Biltzen eta Ikuspegi– daukan informazio aditua emango du.
Helburua	Koherentzia handiagoa ematea laguntza-deialdiei
Prozesuaren ebaluazioa	Berrikuspena abian jartzea Bilera monografikoen aktak
Emaitzen ebaluazioa	Berrikusitako deialdiak
Arduraduna	Lanbide
	Biltzen, Ikuspegi, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2019ko lehen seihilekoa

4.3.2. ENPLEGU- ETA PRESTAKUNTZA-EREMUA

Ekintza	4.3.2.6. Zuzendaritzak laguntzea ikasketa-tituluak atzerrian homologatzeko prozesua hobetzen eta arintzen: bigarren mailako ikasketak, profesionalak, unibertsitate-tituluak eta abar
Deskribapena	Zuzendaritza elkarlanean ariko da Lanbiderekin eta Hezkuntza Sailarekin titulu atzerritarrak homologatzeko prozesuetan hezkuntza-maila guztietan, eta prozesua hobetzea proposatuko du, alde batetik, eta, bestetik, homologazioa arintzea ahal denetan, orientazio-, prestakuntza-, enpleguan sartze- eta gizartean integratze-prozesuak bermatzeko. Asmo bikoitz horrek hezkuntza-maila guztietako tituluei eragingo lieke, Eusko Jaurlaritzak eskumenik izan gabe lege-esparru horretan. Horrelako egoerak konpondu edo, behintzat, batera zuzendu nahi dira Eusko Jaurlaritzak gobernu zentralarekin itundu beharko lukeen eskumen-berrikuspeneren bidez, eskumenak bereganatuta edo partekatuta. Horretarako, neurri estrategikoen artean, lege-esparrua aztertze lantalde bat eratzea proposatzen da (4.1.4. ekintza), nahitaez zeharkakoa eta sailartekoa izan beharko lukeena, zerikusia duten esparruak asko eta askotarikoak direlako. Nabarmenki kualifikatu gabekoa den immigrazio-esparru horretan, ezin da ahaztu, alde batetik, deskualifikazio-prozesuak daudela atzeritar jatorri eta/edo etorkiko biztanleen zati garrantzitsu batean (% 15), eta, bestetik, arazoak dituela biztanle horien artean behar adina titulu ez dituen beste zati batek. Zatirik kualifikatuenarten homologazioa EAEko eskumen-esparrua gainditzen duen gai bat da, baina baldintzak eta egoerak arintzeak homologazio-egoera anomaloetan dauden biztanleak laneratzea sustatu eta erraztuko luke.
Helburua	Tituluen homologazio-arazoen ondoriozko eragozpenak kentzea prestakuntzarako eta lan-aktibaziorako sarbidean.
Prozesuaren ebaluazioa	Homologazio-baldintzen zerrenda Gaia lan-mahaian sartzea (bileren aktak)
Eraitzen ebaluazioa	Aldaketak homologazio-prozesuetan
Arduraduna	Hezkuntza Saila
	Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila (Lanbide, Biltzen, Ikuspegi), lege-esparrua aztertze lantaldeak
Lehenetsuna	Handia
Data	2020ko bigarren seihilekoa

4.3.2. ENPLEGU- ETA PRESTAKUNTZA-EREMUA

Ekintza	4.3.2.7. Zuzendaritzak laguntzea konpetentziak aitortzeko plan bat egiten administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonentzat.
Deskribapena	Zuzendaritza elkarlanean ariko da Lanbiderekin eta Hezkuntza Sailarekin, konpetentziak aitortzeko plan bat egiteko administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonen kolektiboarentzat. Aurreko neurriarekin (4.3.2.6.) bat etorruta, “baldintzak arintzea” izendatu dugunean txertatzen da neurri hau, lege-linbo bikoitzean geratu diren egoerei dagokienez: 1) Eusko Jaurkitzak, eskumen-esleipenen ondorioz; ezin duelako esku hartu esparru honetan; eta 2) kolektibo horren egoera irregularragatik. Hala ere, neurri estrategikoen artean, lege-esparrua aztertze lan-mahai bat eratzea proposatzen da (4.4.4. ekintza), nahitaez transbertsala eta sailartekoa izan beharko lukeena, inplikaturako esparruengatik. Biztanle administratiboki irregularrak EAEn bizi dira, eta irregulartasuna gero eta handiagoa izango da hurrengo urteetan, immigrazio-fluxuak berraktibatzen diren neurrian, eta, horregatik, kontuan hartu beharrekoa da Herritartasun, Kulturartekotasun eta Immigraziorako EAEko Ereduan. Egoera administratibo irregularrean dauden biztanleak muga-egoeretan daude, baina nekez jasotzen dira eta jaso daitezke edozein legeditan; adibidez: 1. Derrigorrezko irakaskuntza: irakaskuntza horren xedea da helduaroko bizitzarako behar diren konpetentzia pertsonalak eta oinarrizkoak lortzea. Esaten da bigarren mailako hezkuntza helduaroko bizitzarako nahi izatekoa den gutxieneko maila dela. Normalean, etapa hori 16 urterekin amaitzen da. Adin horretatik aurrera, gazteek ikastetxeetan jarrai dezakete bigarren mailako irakaskuntza amaitzen. Hala ere, iritsi berriek muga asko dituzte bigarren hezkuntzan hasteko. Helduen hezkuntza 18 urtetik gorakoentzat da, eta, beraz, 16-18 urte arteko adin-tartean ez da guztiz unibertsala bigarren irakaskuntzan sartzea, funtsezkoa izan arren herritartasun- eta gizarteratze-prozesuan. 2. Derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntza: lanbide-irakaskuntza teknikoan eta batxilergoan gauzatzen da. Lehen bidean sartzeak, Oinarrizko Lanbide Heziketan, bi muga argi ditu: sartzeko adina eta gutxieneko baldintza, DBHko 2. maila eginda edukitzea. Oinarrizko lanbide-heziketa aspaldiko berme sozialeko programetatik dator, eta, hartara, berehalako beste aukerarik gabe, prestakuntza-aukera bihurtu da bigarren hezkuntza osatzen ez duten gazteentzat. Erdiko mailetara bigarren hezkuntzako edo oinarrizko lanbide-heziketako tituluaren bidez sartzen da, eta, horrenbestez, ezinezkoa da 16-19 urte arteko gazteentzat.

Deskribapena	Horregatik, adibide modura, hezkuntza-ibilbide bat sortu beharko litzateke gazteentzat, erdiko mailako prestakuntza-zikloetan sartu ahal izateko. Ibilbide horrek honako prestakuntza hauek izango lituzke: • Alfabetatzea: gizarteratzeko hasierako bidea izaki. • Oinarrizko konpetentziak: Bigarren Hezkuntzan eskola-graduatu titulua lortzeko. • Konpetentzia pertsonalak: pertsonen tresnak ematea helduaroko bizitza kudeatzeko. Ereduak, erreferentziak, komunitatea eta abar. • Hasierako konpetentzia teknikoak: produkzio- eta lan-munduarekin alderatuta. Bi neurriekin proposatzen da egoitzako herritartasunak, zeinean baitago isilbidez oinarrituta benetan dagoen immigrazioko EAEko eredua, ekitatea bermatzea ahalbidetzen duten prozesuak eta mekanismoak aztertzea (posizio-berdintasuna vs aukera-berdintasuna), abiapuntuko egiturazko posizio desberdinen trataera desberdina izan behar delako ideiatik abiatuta.
Helburua	Ekitatea berritzea, administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonentzako eskumenak aitortzea oinarri hartuta.
Prozesuaren ebaluazioa	Talde bat sortzea, administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonentzako eskumenak aitortzea aztertzeko. Egoeren katalogazioa
Emitzen ebaluazioa	Ezagutza-planaren prestaketa jasotzen duen txostena
Arduraduna	Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila (Lanbide, Biltzen, Ikuspegi)
	Hezkuntza Saila Lege-esparrua aztertzeko lan-mahaia
Lehentasuna	Handia
Data	2019ko bigarren seihilekoa

4.3.2. ENPLEGU- ETA PRESTAKUNTZA-EREMUA

Ekintza	4.3.2.8. Zuzendaritzak ekarpena egitea informazio-kanpaina bat egiteko profesionaltasun-ziurtagiriei, lanbide-esperientzia aitortzeari eta atzerriko tituluak homologatu eta baliozkotzeari buruz.
Deskribapena	Etorkinei LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuak ematen dituen orientazio-, bitartekotza- eta enpleguaren sustapen-zerbitzuetan sarrera izateko aukera bermatzea jasotzen du Eusko Jaurlaritzaren 2017-2020rako Enplegu Plan Estrategikoak. Asmoa da ekintzak egiten jarraitzea, gero eta atzerritar eta, oro har, herritar gehiagok jakin dezaten zer zerbitzu dituen EAEko administrazio publikoak honako hauek aitortzeko: - Lanbide-gaitasunak, bide hauek erabiliz: egiazta daitekeen prestakuntza/esperientziaren bidez aitortzea eta/edo prestakuntza ez-formala, LHko LOE zikloetako modulu profesionalak. - Unibertsitatekoak ez diren tituluak homologatzea eta baliozkotzea. Informazio-saioak dira (lagungarri dute egitea eta zenbait hizkuntzatarantz itzultzea, eta Lanbide, HHE eta hirugarren sektoreko erakunde bidez zabaltzea), EAEko hiru hiriburuetan egiten dira, eta honako hauei buruzko euskarri informatiboak dituzte: - Profesionaltasun-ziurtagiriak - Lanbide-kompetentziak aitortzeko euskal sistema - Atzerriko tituluen homologazioa - Aholku Sarea-Atzerritartasunaren alorreko Euskal Zerbitzu Juridikoa
Helburua	Atzerritar jatorriko biztanleen enplegarritasuna hobetzea
Prozesuaren ebaluazioa	Informazio-saioak egitea
Emaitzen ebaluazioa	Profesionaltasun-ziurtagirien urteko kopurua Titulu homologatuen urteko kopurua
Arduraduna	Lanbide
Lehenetasuna	Handia
Data	2019ko lehen seihilekoa

4.3.2. ENPLEGU- ETA PRESTAKUNTZA-EREMUA

Ekintza	4.3.2.9. Zuzendaritzak ekarpena egitea sentiberatze-modulu bat sartzeko enplegurako prestakuntza-ibilbideetan ez diskriminatzeari, tratu-berdintasunari eta dibertsitateari buruz
Deskribapena	Enplegurako aktibazio-estrategia orokorraren barruan, Lanbidek lanerako prestakuntza-eskaintza zabala sustatzen du prestakuntza-zentro eta -erakunde homologatuen bidez. Prestakuntza-ekintzak taldekakoak dira, eta zenbait profil biltzen dituzte: atzeritar jatorriko pertsonak, DSBE prestazioa jasotzen dutenak eta, orokorkiago, gizartean, pertsona moduan eta familian egoera zaurgarrietan daudenak. Prestakuntza-prozesuetan azaleratu ohi diren pertzepzio eta jarrera batzuek eragina dute bizikidetzaren arruntan, eta irakaskuntza-jarduna eta ikasleen probetxua baldintzatzen dituzte. Ohikoena da zalantzan jartzea atzeritar jatorriko pertsonen presentzia eta eskubidea prestakuntza-ekintzetan parte hartzeari dagokionez, are edozein laguntza mota jasotzeari dagokionez ere, eragile ahulen artean bitarteko urriak lortzeko dagoen lehia argi utzita. Zenbait talde-profiletara, ordu-baldintzatara, gunetara, ekipamendutara eta abarretara egokitutako esperientzia batzuen ondoren, Biltzenek 6-8 orduko modulu estandar bat prestatu zuen, taldeekin esku hartzeko lanerako prestakuntza-ibilbideetan (lan-inguruneetara begira), bil multzo handitan bildutako edukiak jasota: - Dibertsitatea, bizikidetzaren eta pertsonen arteko gatazken erregulazio positiboa. - Tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza. Modulua eskatzen duten prestakuntza-zentroei edo -erakundeei eskaintzen zaie, eta etorkizuneko aurreikuspena da egonkortasunez sartzeko prestakuntza-ibilbideetan, beste modulu batzuen antzera.
Helburua	Lan-inguruneetan atzeritar jatorriko pertsonengana bideratutako gatazkek gutxitzea
Prozesuaren ebaluazioa	Eskaintutako ikastaroen kopurua
Emaitzen ebaluazioa	Parte-hartzaileen kopurua
Arduraduna	Lanbide
	Biltzen
Lehentasuna	Handia
Data	2019ko lehen sei hilekoa

4.3.2. ENPLEGU- ETA PRESTAKUNTZA-EREMUA

Ekintza	4.3.2.10. Zuzendaritzak ekarpena egitea prestakuntza-espezialitate bat aktibatzeke dibertsitatearen kudeaketa-arloan, enpresen eskura dagoen etengabe prestatzeko katalogoaren barruan.
Deskribapena	Kontua litzateke prestakuntza-modulu bat aktibatzea enpresan dibertsitatea kudeatzeari buruz, Hobetuz-en prestakuntza-katalogoaren barruan. Prozedura hau litzateke: 1. Prestakuntza-programa bat diseinatzea (Biltzen) 2. Prestatzaileak gaitzeko prozesu bat diseinatzea, espezialitatea emango duten irakasle homologatuak izan ahal izateko (Biltzenek diseinatu, baldintzak jarri, eta prestakuntza emango luke). 3. Hitzarmena egitea Lanbidek homologatutako hiru prestakuntza-erakunde/zentroekin, onar dezaten prestakuntza-espezialitatea sartzea beren eskaintzan 2018ko ekaina/uztailetik aurrera. 4. Hiru erakunde izango genituzke, lurralde historikoko bana, autonomia-esparruko proba pilotua izateko. Edukietan, besteak beste, honako gai hauek jasoko lirateke: atzerritartasun-araudia, diskriminaziorik eza, dibertsitatearen kudeaketa, kulturarteko ikuspegia eta abar. EAEko enpresa-sarearentzat izango da. Zehazki, enpresen barruan giza baliabideak, zentzu zabalean hartuta, kudeatzearekin zerikusia duten lanpostuetan diharduten langileentzat. Gestoriek, aholkularitzek eta abarrek ere parte hartzeko aukera aztertuko dugu, lehen aipatu pertsona horien eginkizuna betetzen baitute autonomoei eta enpresa txiki eta ertainei dagokienez.
Helburua	Enpresa-sarea dibertsitatearen kudeaketan prestatzea
Prozesuaren ebaluazioa	Prestakuntza-eskaintza aipatu edukiarekin
Emitzen ebaluazioa	Prestakuntzan parte hartzen duten enpresen urteko kopurua
Arduraduna	Lanbide
Lehentasuna	Handia
Data	2019ko lehen sei hilekoa

4.3.2. ENPLEGU- ETA PRESTAKUNTZA-EREMUA

Ekintza	4.3.2.11. Zuzendaritzak laguntzea sarbidea bideratzeko atzerritar jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonentzako alfabetatze digitalerako prestakuntza-eskaintzan
Deskribapena	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza, atzerritar jatorriko eta/edo etorkiko biztanleen gizarteratzea bermatzeko, lankidetzan ariko da Lanbiderekin, alfabetatze digitalean prestatzeko eskaintzan sarrera izan dezaten. Etorkizuneko lan-gaitasunen barruan, ezinbestekoa da alfabetatze digitala, ez bakarrik arrakala digitala saihesteko, bai eta lan-aktibaziorako oinarritzko elementu moduan ere. Plan honetan, enplegua eta prestakuntza dira Zuzendaritzaren lehentasunezko ekintza-esparruetako bat, eta esparru horrekin dago lotuta neurri hau. Lanbidek arlo honetan zuzenean edo zeharka egiten duen prestakuntza-eskaintza zabala dela eta, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren xedea da alfabetatze digitalerako sarbidea bideratzea, alfabetatzeak arindu egin ditzakeelako atzerritar jatorri eta/edo etorkiko euskal herritarrek nabarmenki egiturazkoa den lan-merkatu dualean ia ezinbestean sartzeak eragindako ondorioak.
Helburua	Alfabetatze digitalerako prestakuntza-eskaintzan sartzen laguntzea
Prozesuaren ebaluazioa	Alfabetatze digitalerako prestakuntza-eskaintzaren katalogazioa Eskaintako ikastaroen kopurua
Eraitzen ebaluazioa	Parte-hartzaileen kopurua
Arduraduna	Lanbide
Lehentasuna	Handia
Data	2018ko bigarren seihilekoa

4.3.2. ENPLEGU- ETA PRESTAKUNTZA-EREMUA

Ekintza	4.3.2.12. Zuzendaritzak laguntzea atzeritar jatorri eta/edo nazionalitateko etorkinen prestakuntzaren eta birziklapenaren azterketan: enplegu-rako aktibatze-orientazioa eta prestaketa.
Deskribapena	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza, atzeritar jatorriko biztanleen gizarteratzea bermatzeko, elkarlanean ariko da Lanbiderekin, atzeritar jatorriko pertsonak orientaziorako eta enplegurako aktibaziorako prestatzearen eta birziklatzearen berrikuspenean. Atzeritar biztanleak hartzen dituzten gizarte-kezketako bat da lan-aktibazioa, pertsona horiek gizarteratzean laneratzeari begira, daukaten egoera estrukturalki zaurgarria delako. EAEko produkzio-eredua eta jarduera-egitura ez da beti porotsua produkzio-esparruan eta sektore industrialean kualifikazio txikia edo ertaina duten pertsonentzat; hala ere, irekita dago zerbitzuen, zaintzen eta etxeko lanen esparruan dihardutenentzat (EPIE2010 eta EPIE2014 eragiketa estatistikoak). Prestakuntza eta orientazioa erabakigarriagoak izanda ere jarduera-esparru batzuetan beste batzuetan baino, beharrezkotzat jotzen da prestakuntza-beharrei heltzea kasu bakoitzean, eta ad hoc prestakuntza-eskaintza proposatzea.
Helburua	Atzeritar etorkiko pertsonen prestakuntza eta birziklapena hobetzea, enplegu-rako aktiba daitezen
Prozesuaren ebaluazioa	Enplegurako aktibazioaren ikuspegitik zaurgarrienak diren atzeritar jatorri eta/edo etorkiko kolektiboak hautematea Aktibatze-orientazioaren oinarri objektiboak eta estrukturalen azterketa Laneratze-ibilbideak nahierara egitea, eta gizarteratze-ereduak proposatzea
Emaitzen ebaluazioa	Katalogoa prestakuntza-eskaintza berriarekin Eskaintza-ikastaroen kopurua Bertaratutako kopurua
Arduraduna	Lanbide
	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza, Ikuspegi
Lehen tasuna	Handia
Data	2019ko lehen seihilekoa

4.3.2. ENPLEGU- ETA PRESTAKUNTZA-EREMUA

Ekintza	4.3.2.13. Zuzendaritzak laguntzea prestakuntza-katalogo espezifikoak egiten arazo bereziak dituzten eta gizartetik baztertuta geratzeko arrisku handiena duten kolektiboentzat: adingabe atzerritar lagundu gabeak, emakumezko heldu musulmanak, kualifikazio txikiko Saharaz hegoaldeko gizonak, magrebtarren kolektiboa eta abar.
Deskribapena	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza, atzerritar jatorriko eta/edo etorkiko biztanleen gizarteratzea bermatzeko, elkarlanean ariko da prestakuntza-katalogo espezifikoak egiteko arazo bereziak dituzten eta gizartetik baztertuta geratzeko arrisku handiena duten kolektiboentzat: adingabe atzerritar lagundu gabeak, emakumezko heldu musulmanak, kualifikazio txikiko Saharaz hegoaldeko gizonak, magrebtarren kolektiboa eta abar. Neurri hori, aurrekoarekin batera (4.3.2.12.), gizarte-bazterketa jasateko arrisku handiena duten sektoreetan eta kolektiboetan zentratzen da, eta nahierarako gizarteratze- eta laneko aktibatze-ibilbideak antolatu nahi ditu. Aipatu kolektiboak zaurgarrienak dira Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren EPIE2010 eta EPIE2014 eragiketa estatistikoek emandako datuen arabera. Kontua da atzerritar jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonak segmentatzea, eta egoera zaurgarri berezian dauden pertsonen tipologia edo profilak lortzea, neurri bereziak edo ekintzak prestatu ahal izateko kolektibo horientzat. Neurri honek 4.3.8.1. ekintzarekin du zerikusia, atzerritar jatorri eta/edo etorkiko pertsonen kolektiboak segmentatzeko ikerketa bat egitea jasotzen baitu. Kolektibo bakoitzaren beharrak desberdinak dira, eta, horregatik, neurriaren osagarri, ikerketak egingo dira nahierara Ikuspegiren laguntzarekin, bai eta esku-hartzeak ere, horiek ere arreta bereziko kolektiboetara egokituta, eta prestakuntza-katalogo espezifikoetan oinarrituta.
Helburua	Prestakuntza-katalogoak egitea gizartetik baztertuta geratzeko arrisku handiena duten kolektiboentzat.
Prozesuaren ebaluazioa	Arazo bereziak dituzten eta gizartetik baztertuta geratzeko arrisku handiena duten kolektiboen segmentazioa Kolektibo bakoitzaren arabera prestakuntza-estrategiak egitea
Emitzen ebaluazioa	Prestakuntza-eskaintza abian jartzea: eskaintako ikastaroak Bertaratutakoen kopurua
Arduraduna	Lanbide
	OEE, Ikuspegi
Lehentasuna	Handia
Data	2019ko bigarren seihilekoa

4.3.3. BIZIKIDETZA-EREMUA

Ekintza	4.3.3.1. Sailarteko eta erakundearteko lantalde bat sortzea, etorkinei, nazioarteko babesaren eskatzaileei, iheslariei, emigrantei eta itzulitakoei arreta emateko eta harrera egiteko eskualde zerbitzuak aztertu eta ezartzeko, edo EAEko Harrera Eredua.
Deskribapena	Asmoa da lantalde bat sortzea, Zuzendaritzako arduradun batek gidatua, eta Giza Eskubideen Idazkaritza Nagusiko ordezkari bat eta hiru diputazioetako eta udaletako ordezkariak izango dituen, zertarako eta gogoeta egiteko nola eza- rri eskualdeko edo eskualdez gaidiko arreta- eta harrera zerbitzuak atzerritar etorkinentzat, bai eta nazioarteko babesaren eskatzaileentzat, iheslari entzat eta abarrentzat ere. Litekeen arreta- eta harrera-zerbitzu hori Harrerako EAEko Ereduaren hazia izan liteke. Lantalde horrek beste kide batzuk ere izan litzake: Ikuspegiko ordezkari bat; Biltzeneko beste bat; Hezkuntza Sailekoa; Hizkuntza Politikarako Sailburuor- detzakoa; legelariak; eta abar. Ahalegin berezia egingo da hizkuntza-dibertsitateko programak sustatzeko, euskara integratuta, euskararen errealitatea deskribatuta, eta ikasteko bitar- tekoak proposatuta. Hasieran, lan-esparru honetako jardunbide onei buruzko dokumentazioa bil daiteke (<i>bench marking</i> azterketa). Geroago, talde horrek txosten bat egingo luke jarduteko gomendio garrantzitsuenekin eta ondorioekin.
Helburua	Harrerako EAEko Eredurantz egitea
Prozesuaren ebaluazioa	Lantaldea sortzea
Emitzen ebaluazioa	Bere lanei buruzko amaierako txostena egitea
Arduraduna	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2018ko bigarren seihilekoa

4.3.3. BIZIKIDETZA-EREMUA

Ekintza	4.3.3.2. Etorkin atzerritarrei harrera egiteko laguntzak mantentzea, berrikus- tea eta berrantolatzea, planaren lehentasunezko ildoekin bat etorri- ta.
Deskribapena	Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailak, Gizarte Politiketako Sailburuordet- zak eta Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak diruz laguntzeko aginduen bidez ematen dituzten laguntza finantzarioei erreparatzen die ekintza honek. Laguntza izendunez, LOC laguntzez eta GIZ laguntzez hitz egiten ari gara. Asmoa da laguntza horiek bat egitea plan honen helburuekin eta lehentasu- nezko jarduera-ildoekin. Horregatik, mantendu egin behar dira, baina, beharba- da, berrantolatuta eta nola banatu birpentsatuta.
Helburua	Laguntza ekonomikoak planaren lehentasunen ildoan jartzea
Prozesuaren ebaluazioa	Laguntzen berrantolaketa, berrikuspina eta gogoeta jasoko dituen dokumentua Urteko esleipen ekonomikoa harreraren lan egiten duten eragileei
Emaitzen ebaluazioa	Plan honetako ildoekiko koherentzia
Arduraduna	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2019ko bigarren sei hilekoa

4.3.3. BIZIKIDETZA-EREMUA

Ekintza	4.3.3.3. Atzerritar gazteentzako gizarteratze-ibilbideak zabaltzea hirugarren sektoreko erakundeen bitartez.
Deskribapena	Ekintza hau gazte atzerritarrei harrera egiteko Hemen programarako laguntza ekonomikoari buruzkoa da, eta hirugarren sektoreko erakundeen bidez gauzatzen da. Laguntzak Bizkaiko Diputazioak diruz laguntzeko daukan lerroa osatzen du. Hortaz, programa horri eta erakunde horri lotuta dago. Laguntza ekonomiko horri eustea da asmoa, eta aztertzea nola zabaldu EAE osora.
Helburua	Bizkaiko Diputazioak arlo honetan egiten duenaosatzea Hemen programaren bitartez
Prozesuaren ebaluazioa	Hemen programarako urteko esleipen ekonomikoa
Eraitzen ebaluazioa	Programa honetan parte hartzen duten gazteen kopurua
Arduraduna	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
Lehentasuna	Handia
Data	2018ko lehen sei hilekoa

4.3.3. BIZIKIDETZA-EREMUA

Ekintza	4.3.3.4. Elkarlanean aritzea EAEko udalekin, atzerriko etorkinen gizarte-inklusioan eta herritar-eskubide eta -betebeharren esparruan lan egiteko udal-teknikarien sare bat mantentzeko.
Deskribapena	Xedea da mantentzea Udalei herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruan lan egiten duten udal-teknikariak kontratatzeko urtero ematen dizkien laguntzak.
Helburua	Langile kualifikatu eta profesionalez osatutako udal-mailako sare bat izatea EAEn, Eusko Jaurlaritzaren, Enpleguako eta Gizarte Politiketako Sailaren eta Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren politikekin elkarlanean aritzeko plan honen garapen eta ezarpenean.
Prozesuaren ebaluazioa	Kontzeptu honetarako urteko esleipen ekonomikoa
Emitzen ebaluazioa	Udal-teknikarien parte-hartzea Zuzendaritzaren politiketan Udal-teknikarien parte-hartzea lantaldeetan
Arduraduna	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
	Udalak, Eudel
Lehentasuna	Handia
Data	2018ko bigarren seihilekoa

4.3.3. BIZIKIDETZA-EREMUA

Ekintza	4.3.3.5. Laguntza ekonomikoa EAEko udalei, jarduerak gara ditzaten atzerriko etorkinen gizarte-inklusioan eta herritar-eskubide eta -betebeharren esparruan
Deskribapena	Kontua da mantentzea honako esparru hauetan jarduerak egiteko udalei urteko ematen dizkien laguntzak: herritarren eskubideak eta betebeharrak, atzerriar etorkinen gizarte-inklusioa; bizikidetza-planak egitea, sasoikako lanaren arreta eta abar; hau da, herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruekin zerikusia duten jarduerak. Laguntza horiek plan honetako lehentasunezko ildoekin lerrotuta egongo dira. Gainera, egokia dela ematen du laguntza horiek koordinatzea beste erakunde batzuek ere ematen dituztenekin; honako hauez ari gara: bateko, Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak duen laguntza-leerroaz; besteko, diputazio batzuek dutenaz, Gipuzkoakoak behintzat, zeinaren berariazko xedea baita gizarteratze-planak egitea herritartasunaren esparruko aukera-berdintasunean oinarrituta.
Helburua	Jarduerak babestea udal-mailan
Prozesuaren ebaluazioa	Kontzeptu honetarako urteko esleipen ekonomikoa
Emaitzen ebaluazioa	Jardueretan parte hartzen dutenen kopurua Plan honetako ildoekiko koherentzia
Arduraduna	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
	Udalak, Eudel
Lehentasuna	Handia
Data	2018ko bigarren sei hilekoa

4.3.3. BIZIKIDETZA-EREMUA

Ekintza	4.3.3.6. EAEko udalek herritartasunaren, kulturarteko bizikidetzaren eta immigrazioaren esparruan egiten duten lanean esku hartzeko eta laguntzeko hiru talde sortzea, bat lurralde historiko bakoitzeko, udaletako (udalak edo mankomunitateak) teknikarien laguntza izan dezakete (espezifikoak kulturartekotasunean, edo ez-espezifikoak gizarte-ekintzan), Zuzendaritzaren estrategia EAEko lurralde osora irits dadin.
Deskribapena	Xedea, 4.2.2. ekintzan aurreratzen den bezala, esku hartzeko eta udal-jardunari laguntzeko hiru talde sortzea eta antolatzea da. Asmoa da esku hartzeko hiru udal-talde sortzea, bi pertsonakoa bakoitza, lurraldeko bana, honako hauek egiteko: 1) elkarlanean aritzea udal-teknikari espezifikoekin, taldea sortuta dagoen udalerrietan edo mankomunitateetan; 2) udal-teknikari espezifikorik ez dagoen udalerri, mankomunitate, eskualde eta inguruetara iristea, plan hau EAEko lurralde osora hel dadin. Ekintza horretan aurreratu bezala, esku hartzeko taldeok Ikuspegiren laguntza izan lezakete, pertsona bat izendatuta talde bakoitzerako, laguntza-, dokumentazio-, ikerketa lanak eta abar egiteko. Esku hartzeko taldeon lana urtero planifikatu beharko da, udal-teknikariekin koordinatuta eta Zuzendaritzak gainbegiratuta. Asmoa da taldeen bitartez, udalekin eta mankomunitateekin koordinatuta, eta tokian tokiko elkartearen sarearekin (kultura-, gizarte-, auzo-, kirol-, erlijio-, aisialdi-erakundeak, eskualde-agentziak, enpresen sarea eta abar) elkarlanean jardunda, plana hedatzea kulturarteko bizikidetzaren esparruan tokian-tokian garatzea aurreikusitako ekintzei dagokienez. Kontua, besteak beste, honako hauek egitea da: udal-teknikariek egiten duten lanean laguntzea, elkarlanean arituta udalerri eta auzoetako pertsonen artean parte hartzeko, elkartzeko eta interakzioa izateko guneen sorreran; atzeritar jatorriko pertsonenganako estereotipo eta aurreiritzien aurkako borrokaren esparruan lan egitea; bitartekari izatea eta esku hartzea auzokideen arteko kulturarteko gatazketan (erlijiosoetan, adibidez); islamofobiaren aurkako borrokan laguntzea; laguntza ematea udal-teknikariei familia-berrelikartzearekin zerikusia duen orotan; eta abar. Asmoa da EAEko udalerrietan dauden elkartearen sarea kontuan hartzea, lankide izatea; lankidetzan jardutea auzo-elkarteekin, sindikatuarekin, elkarte profesionalekin; eta abar.
Helburua	Plan honen filosofiak, helburuek eta lehentasuneko jarduerak eragina izatea EAE osoan
Prozesuaren ebaluazioa	Esku hartzeko taldeak sortzea: kideak izendatzea
Emaitzen ebaluazioa	Urtero egindako jarduerak Jardueretan parte hartzen dutenen eragina, kopuru aldetik
Arduraduna	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
	Biltzen, Ikuspegi
Lehentasuna	Handia
Data	2019ko lehen seihilekoa

4.3.3. BIZIKIDETZA-EREMUA

Ekintza	4.3.3.7. Laguntza ekonomikoa Euskadiko udalei (EUDEL), itzulpen- eta interpretazio-lanak egin daitezen komunikazioa errazteko hizkuntza-arazoak dituzten atzerriko etorkinekin.
Deskribapena	Gaur egun ematen den laguntza ekonomiko bat da: Zuzendaritzak zuzenean ematen dio Eudel-i, EAEko udalek osagarri bat izan dezaten, itzulpen- eta interpretazio-lanak egitea beharrezkoa bada, udalek bi hizkuntza ofizialetan, euskaraz edo gaztelaniaz, hitz egiteko arazoak dituzten etorkin atzerritarrek lan egiten dutenean. Ez litzateke alferrikakoa izango Zuzendaritzak aztertzea laguntza horien eragin-eremua handitzea, eta lan egitea beste sail batzuek ere dirua eman dezaten lan horietarako, bai baitirudi beste esparru batzuetan ere beharrezkoa izan daitekeela, hala nola hezkuntzan, osasun-arretan, arreta juridikoan eta abar.
Helburua	EAEko udalek gai-alor honetan egiten dituzten ahaleginak osatzea
Prozesuaren ebaluazioa	EUDELi laguntza ematea
Emaitzen ebaluazioa	Udalen esku-hartzeen kopurua
Arduraduna	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2018ko bigarren sei hilekoa

4.3.3. BIZIKIDETZA-EREMUA

Ekintza	4.3.3.8. EAEko gizartea eta kolektiboak, elkarteak eta abar sentsibilizatzea eta prestatzea hitzaldien, mintegien, komunikabideetan esku hartzearen eta abarren bidez, ikuspegi inklusibo eta kulturartekoari, herritar-eskubide eta -betebeharrei eta etorkin atzerritarren gizarte-inklusioari dagokienez.
Deskribapena	Ekintza honetan Biltzen eta Ikuspegi duela zenbait urtetatik egiten ari diren jarduerak biltzen dira; nagusiki hauek dira: - parte hartzea hitzaldietan, solasaldietan, debateetan, mintegietan, mahai-inguruetan eta abarretan, udalek berek udal-mailan herritar guztientzat antolatuak izan zein beste kolektibo batzuek antolatuak; besteak beste, auzo-elkarteek, zahar-egoitzek, ikastetxeek, erretiro-dunen elkarteek, kirol-elkarteek, sindikatuek, elkarre profesionalak, enpresa-elkarteek, eskualde-agentziek, aisialdi-, kultura- eta gizarte-elkarteek eta abarrek. - kasu egitea Biltzen eta Ikuspegiren laguntza eskatzen duten komunikabideei, telebista-estudioetara joanez, elkarriketa pertsonalak eginez, irati-saioetan erantzunez edo parte hartuz, idatzizko prentsaren eskaerak kontuan hartuz, prentsaurrekoak eginez gai zehatz batzuei buruz, egindako ikerketak eta/edo esku-hartzeak aurkeztuz eta abar. - Hizkuntza-dibertsitatearen eginkizuna eta euskararen rola nabarmentzea, kulturarteko elementuak direlako. Asmoa da jarduera horiek hurrengo urteetan egiten jarraitzea, Biltzen eta Ikuspegiren bitartez, nagusiki, baina Zuzendaritzaren beraren bitartez ere bai.
Helburua	Atzerritar immigrazioarekiko iritzi eta jarrera positiboak sortzea
Prozesuaren ebaluazioa	Egindako jarduera kopurua
Emaitzen ebaluazioa	Jarrerren bilakaera Ikuspegiren Barometroaren bidez
Arduraduna	Biltzen eta Ikuspegi
Lehenetasuna	Handia
Data	2018ko lehen sei hilekoa

4.3.3. BIZIKIDETZA-EREMUA

Ekintza	4.3.3.9. Migratzaileen elkarteen sarea prestatzea hitzaldien, mintegien, komunikabideetan esku hartzearen eta abarren bidez, ikuspegi inklusibo eta kulturartekoari, herritar-eskubide eta -betebeharrei eta etorkin atzerritarren gizarte-inklusioari dagokienez.
Deskribapena	Ekintza honetan Biltzen eta Ikuspegi ere duela zenbait urtetatik egiten ari diren jarduerak biltzen dira; nagusiki hauek dira: • hirugarren sektoreko erakundeek antolatzen dituzten hitzaldietan, mintegietan, solasaldietan, debateetan, mintegietan, mahai-inguruetan eta abarretan parte hartzea, haietan agertzea premiazkoa den neurrian. • kasu egitea Biltzen eta Ikuspegiren laguntza eskatzen duten migratzaileen kolektiboen komunikabideei, telebista-estudioetara joanez, elkarrizketa pertsonalak eginez, irrati-saioetan erantzunez edo parte hartuz, idatzizko prentsaren eskaerak kontuan hartuz, prentsaurrekoak eginez gai zehatz batzuei buruz, egindako ikerketak eta/edo esku-hartzeak aurkeztuz eta abar. • prestakuntza- eta ahalduentze-ikastaro espezifikoak egitea migratutako pertsonen erakundeekin, besteak beste gai hauei buruz: eskubideak eta betebeharrak osasun-arretan; eskubideak eta betebeharrak etxebizitza eskuratzean; DSBE prestazioa edo beste laguntza sozial batzuk jasotzeko eskaerak egiteko prozedurak, eskubideak eta betebeharrak; migratuen herritar-eskubide eta -betebeharrak esparru juridikoan; eta abar. Asmoa da jarduera horiek hurrengo urteetan egiten jarraitzea, Biltzen eta Ikuspegiren bitartez.
Helburua	Elkarteen sarea indartzea migratutako pertsonen erakundeen esparruan
Prozesuaren ebaluazioa	Egindako jarduera kopurua Erakunde parte-hartzaileen kopurua
Emaitzen ebaluazioa	Sektoreko erakunde aktiboen kopurua Sektoreko erakundeei lotutako pertsonen kopurua
Arduraduna	Biltzen eta Ikuspegi
Lehentasuna	Handia
Data	2018ko lehen sei hilekoa

4.3.3. BIZIKIDETZA-EREMUA

Ekintza	4.3.3.10. Zuzendaritzak diskriminazioaren aurka eta eskubideak eta zerbitzuak lortzean pertsona guztiek, atzerritar etorki, jatorri eta/edo nazionalitatea dutenak barne, tratu-berdintasuna izatearen alde egiten duen lana finkatzea, gogoetaren, azterketaren eta Eraberean sareak betetzen duen eginkizuna hobetzearen bidez.
Deskribapena	Kontua da gogoeta egitea Eraberean sarearen etorkizuneko ibilbideaz, helburuez eta ekintzez, diskriminazioaren aurkako borrokaren esparruan lan egiten baitu hiru ikuspegitatik: orientazio sexuala eta generoaren askatasunaren alde; ijitoen parekotasunaren alde; eta pertsona guztien parekotasunaren alde, jatorria edozein izanda ere. Azken garaiotan, diskriminazioaren aurka eta tratu-berdintasunaren alde ere egin nahi duten zenbait ekimen sortzen ari dira euskal lurraldeetako batzuetan. Komeniko litzateke zubiak ezartzea, ahaleginak osatu eta funtzioak ez bikoiztu ahal izateko. Eraberean sareak gida litzakeen ekimen berriak ere proposatzen dira alor honetan: Diskriminazioaren aurkako Behatokia sortzeaz ari gara. Eraberean sarea diskriminaziorik ezaren bermatze-eginkizuna bete lezake, bereziki diskriminazio instituzionalari dagokionez. Gogoeta- eta berrorientatze-prozesua guztiz ondo egin daiteke Eraberean sarean bertan, Zuzendaritzak zuzenduta.
Helburua	Gogoeta egitea eta Eraberean sarearen lana kokatzea
Prozesuaren ebaluazioa	Gogoeta-prozesua (dokumentuak)
Eraitzen ebaluazioa	Eraberean Sarearen kokapen berria, helburuak eta jarduerak
Arduraduna	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
	Eraberean Sarean
Lehentasuna	Ertaina
Data	2019ko lehen sei hilekoa

4.3.3. BIZIKIDETZA-EREMUA

Ekintza	4.3.3.11. EAEko segurtasun-arloko langileak (Ertzaintza eta udaltzaingoak) sentiberatzea eta prestatzea, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko prestakuntza-taldeen prestaketaren bidez), ikuspegi inklusibo eta kulturartekoari, herritar-eskubide eta -betebeharrei eta etorkin atzeritarren gizarte-inklusioari dagokienez.
Deskribapena	EAEko segurtasun-langileak (Ertzaintza eta udaltzaingoak) sentsibilizatzeko eta prestatzeko lana egiten ari da duela zenbait urtetatik. Gaur egun, jada, hizpide dugunarekin zerikusia duen gai batek curriculum-presentzia du langile horien prestakuntzan. Badirudi une egokia dela Segurtasun Sailak bere gain hartzeko sailean lan egiten duten pertsonen kulturarteko sentsibilizazio- eta prestakuntza-lana, eta Biltzen arduratzeko Segurtasun Saileko prestatzaileak trebatzeaz eta eguneroko lanean behar duten laguntza emateaz.
Helburua	Segurtasun Saileko prestaketa-taldeei prestakuntza eta laguntza ematea
Prozesuaren ebaluazioa	Urtero egindako prestakuntzen kopurua
Emaitzen ebaluazioa	Kulturarteko kompetentzietan prestatutako prestatzaileen kopurua
Arduraduna	Biltzen
Lehentasuna	Ertaina
Data	2019ko lehen sei hilekoa

4.3.3. BIZIKIDETZA-EREMUA

Ekintza	4.3.3.12. Laguntza ekonomikoa ZAS Zurrumurrueen Aurkako Sarearentzat, borroka egiten baitu atzeritar etorki, jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonen kolektiboetako buruzko gezurrezko estereotipo eta aurreiritzien aurka, bai eta diskurtso arrazista, xenofobo eta diskriminatzaileen aurka ere, eta gizartea berdinzaleagoa izatearen alde egiten baitu.
Deskribapena	Ekintza oso zehatza da, eta ZAS Zurrumurrueen Aurkako Sarearekin kontratu bat izenpetzeari dagokio, sareak udal eta hirugarren sektoreko erakunde asko biltzen baititu, Biltzen eta Ikuspegiren presentziarekin batera, etorkin atzeritarrei buruzko estereotipo eta aurreiritzi negatiboen aurkako borrokan. Akordio horrek sarean, koordinatuki lan egiteko aukera ematen dio erakundez osatutako kolektibo horri. Normala denez, sareak zer jarduera egiten duen eta sareak eta Zuzendaritzak urtero egiten dituzten jarduteko akordioak nolakoak diren, horren arabera emango dira jarduera honetarako laguntzak.
Helburua	ZAS sarearen lana indartzea
Prozesuaren ebaluazioa	Kontratua izenpetzea
Emitzen ebaluazioa	ZAS sarearen jardueren kopurua ZAS sarea osatzen duten erakundeen kopurua
Arduraduna	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
Lehen tasuna	Ertaina
Data	2018ko bigarren seihilekoa

4.3.3. BIZIKIDETZA-EREMUA

Ekintza	4.3.3.13. Kulturartekotasunaren ikuspegia bistaratzea eta txertatzea Zuzendaritzaren, Sailaren eta Eusko Jaurlaritzaren komunikazio instituzionalan.
Deskribapena	Lana Zuzendaritzak berak egin beharrekoa da, Saileko Komunikazio Zerbitzuarekin batera, azken horren komunikazioak behar bezala adieraz dezan EAEko kultura-dibertsitatea. Era berean, Zuzendaritzaren lana da aliantzak egitea Saileko Komunikazio Zerbitzuarekin, Eusko Jaurlaritzaren komunikazio instituzionalak ere behar bezala jaso dezan EAEko kultura-dibertsitatea. Garrantzitsua litzateke, halaber, puntu honetan gehitzea kulturarteko ikuspegiak bai Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak bai Eusko Jaurlaritzak egingako plan eta programa guztietan agertu behar duela.
Helburua	Behar bezala adieraztea EAEko kultura-dibertsitatea sailaren eta Eusko Jaurlaritzaren komunikazio instituzionalan.
Prozesuaren ebaluazioa	Jardutako protokolo bat ezartzea Komunikazio Zerbitzuarekin
Emaitzen ebaluazioa	Sailaren komunikazio-jardunari buruzko txostena
Arduraduna	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
Lehenetsuna	Ertaina
Data	2020ko lehen seihilekoa

4.3.3. BIZIKIDETZA-EREMUA

Ekintza	4.3.3.14. Jardunbide onen katalogo bat egitea, euskara eta hizkuntza-aniztasuna lotzen dituztenei buruzkoak barne, udal-esparruan, auzo-mailako esperientzia positiboekin, eta eragina izanik herrietako eta herrietako kulturarteko bizikidetzaren hobekuntzan.
Deskribapena	Kontua da han-hemen jasotzea EAEn eta Espainiako Estatuan udal- eta/edo auzo-mailan egin diren eta kulturarteko bizikidetzan eragin onuragarria izan duten jardunbide onak, bereziki nabarmendutako euskara eta hizkuntza-dibertsitatea lotzen dituztenak. Katalogoan, bigarren fasean, Europako beste herrialde batzuetako esperientziak bil daitezkeen arren, uste dugu ezen, hasieran, migrazio-prozesuen kasuistikagatik, orientagarriagoa eta eraginkorragoa izan daitekeela gure ingurune hurbilean izan diren jardunbideei edo Espainiako Estatuan antzeko testuinguru-ezaugarriak izanda gertatu diren beste batzuei erreparatzea. Arreta berezia jarriko da bizikidetzaren eta hizkuntza-aniztasunaren arloko jardunbide onetan, bai eta euskarara eta euskara atzerritar jatorri eta/edo etorkiko biztanleengana hurbiltzearekin zerikusia dutenetan. Katalogoa, hasieran, bigarren mailako informazio-iturriak bilduz egin daiteke, azterketa dokumental bat eginez. Geroago, udal-teknikariek beren esperientziak egindako ekarpenarekin osa daiteke, bai eta Biltzen eta Ikuspegiko langileek esparru honetan egindako lanari esker metatu ahal izan duten esperientziarekin ere.
Helburua	Jardunbide onen multzo bat eskaintzea udal-teknikariei
Prozesuaren ebaluazioa	Bildutako bibliografia Udal-teknikariek izandako elkarrizketak
Emitzen ebaluazioa	Katalogoa egitea
Arduraduna	Biltzen
	Ikuspegi
Lehentasuna	Ertaina
Data	2019ko bigarren seihilekoa

4.3.3. BIZIKIDETZA-EREMUA

Ekintza	4.3.3.15. Jardunbide onei buruzko akordio bat sinatzea komunikabideekin, generoaren gaian egindakoaren antzera mugak ezar daitezen herri-tartasunaren, kulturarteko bizikidetzaren eta immigrazioaren esparruan, iritzi publiko informatua, begirunezkoa eta eskubide eta bete-beharren berdintasunean oinarritua eraikitzeari dagokionez.
Deskribapena	Ekintza honek Zuzendaritzaren eta Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren lan politikoaren beharra du. Kontua litzateke jardunbide onen akordio-zirriborro bat egitea, EAEko idatzizko eta ikus-entzunezko komunikabide garrantzitsuenek eztabaida eta sina dezaten beren erakunde profesionalen bitartez. Genero-gaiak lortutako akordioa izan daiteke abiapuntua.
Helburua	Bizikidetzaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruaz egiten den trataera informatiboa hobetzea.
Prozesuaren ebaluazioa	Esparru-akordioaren zirriborroa egitea
Emaitzen ebaluazioa	Akordioa sinatzea
Arduraduna	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
Lehentasuna	Ertaina
Data	2019ko bigarren seihilekoa

4.3.3. BIZIKIDETZA-EREMUA

Ekintza	4.3.3.16. Zuzendaritzaren ekarpena, gorenko agintari publikoak egon daitezen atzerritar etorki, jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonen kolektiboentzat seinalatuak diren egunetan, kultura-, kirol-, gizarte-adierazpideetan eta abarretan.
Deskribapena	Agintari publikoek (lehendakariak, diputatu nagusiek, alkateek, sailburuek, diputatuek, parlamentariak eta abarrek) EAEko ohiko egutegiko egun seinalatuak, kultura-, kirol-, gizarte-adierazpenak eta abar nabarmentzeko ekitaldi publikoetan esku hartzen duten bezala, beste kultura batzuen egun garrantzitsuak ospatzen ere egon litezke. Urte berri txinatarraz, urteberri juduaz, musulmanentzat garrantzitsuak diren egunez mintzatzen ari gara, bai eta, beharbada, juduen, ebanjelikoen, musulmanen... erlijio egunez ere. Ekintza honek ere premiazkoa du esku-hartze zuzena izatea Zuzendaritzako eta Saileko kide politikoei, bai eta Giza Eskubideen Idazkaritza Nagusikoek ere. Kontua litzateke egunak identifikatzea (Biltzeneko langileak izan daitezke erreferente egokia), egutegi bat egitea, Zuzendaritzarekin eta Sailarekin ituntzea, eta Lehendakariatzako Kabinetearen agendan sartzeko estrategia prestatzea.
Helburua	EAEko gure gizartea osatzen duten kultura guztien egun seinalatuak aintzat hartzea
Prozesuaren ebaluazioa	Egutegia ezartzea
Emaitzen ebaluazioa	Lehendakaria, sailburuak, sailburuordeak eta zuzendariak egotea aipatu egunetan
Arduraduna	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza// Biltzen
Lehentasuna	Ertaina
Data	2019ko bigarren seihilekoa

4.3.3. BIZIKIDETZA-EREMUA

Ekintza	4.3.3.17. Udalerrietan edo auzoetan osatzen dituzten kolektiboen arteko interakzioa sustatzen eta eremu partekatuak sortzen dituzten ekintza proaktiboak hautematea, zerrendatzea eta sustatzea, euskara atzeritar etorkiko biztanleengana hurbiltzen duten eta hizkuntza-aniztasunaren eta bizikidetzaren inguruan gizarte-elkarguneak sustatzen dituzten ekintza guztiak barne.
Deskribapena	Esparru honetako 4.3.3.14. ekintzaren osagarri bat da, auzoan eta/edo udalerrian gune fisiko bera partekatzen duten kulturetako pertsonen arteko interakzioan eragin espezifikoak duten jardunbide onak hautematea eta dokumentu batean (ekintza hori aipatzen duen katalogoaren eranskin batean) biltzea delako kontua. Era berean, bilaketa trinko bat egingo da ikasteko euskalgintzako sektoreen eta hizkuntza-dibertsitatearen arteko zer laguntza- eta lankidetzaren harremanek sendotu duten euskaldunen eta beste jatorri, kultura eta hizkuntza batzuk dituzten kolektiboen arteko elkar ezagutza, eta zer harremanek sustatu dituzten topaketak hizkuntza-dibertsitatearen eta bizikidetzaren inguruan. Katalogoaren eranskin hori, hasieran, bigarren mailako informazio-iturriak biltuz egin daiteke, azterketa dokumental bat eginez. Geroago, udal-teknikariek beren esperientziaz egindako ekarpenarekin osa daiteke, bai eta Biltzen eta Ikuspegiko langileek esparru honetan egindako lanari esker metatu ahal izan duten esperientziarekin ere.
Helburua	Interakzioa sustatzeko jardunbide onen multzo bat eskaintzea udal-teknikariei
Prozesuaren ebaluazioa	Bildutako bibliografia Udal-teknikariekin izandako elkarrizketak
Emitzen ebaluazioa	Katalogoa egitea
Arduraduna	Biltzen
	Ikuspegi
Lehentasuna	Media
Data	Segundo semestre 2019

4.3.3. BIZIKIDETZA-EREMUA

Ekintza	4.3.3.18. Zuzendaritzaren ekarpena, atzerritar etorki, jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonak alderdi politikoen, administrazioen, erakunde publiko eta pribatuen, kirolaren, euskal kulturaren, osasun-langileen, hezitzaileen eta abarren ordezkartza publikoan egon daitezen, e.a.
Deskribapena	EAEko bizitza publikoak EAEko gizarte gero eta askotarikoagoa barruan hartzea eta ordezkartzea da helburua. Genero-gaian esparruak irabazi diren bezala, emakumeak postu jakin batzuetara iristen agertzen baitira jokaleku publikoaren barruan, bai eta ageriko jartzen ere duten presentzia eta EAEko gizarteari egiten dioten ekarpena, atzerritar etorki, jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonak ere eskatzen dute ordezkartza publiko hori. Ekintza nekez gauza daiteke epe laburrean, baina ezinbestean zertuko da epe ertain eta luzean. Beharbada Diskriminazioaren aurkako Behatokia, zeina esparru honetako 4.3.3.10. ekintzan aipatzen baita Eraberean sarearen agindu moduan, ekintza hau nola garatzen den zaintzeko ardura duen erakundea izan liteke, zaintza- eta eskari-lana eginda. Ekintza abian jartzeak Eraberean sarearen helburuen norabidea aldatuko luke, kontuan hartuta ekintza proaktiboak sartuko lituzkeela jada dauzkanen artean, eta azken horiek errektiboagoak direla benetako diskriminazio-egoerei dagokienez. Nolanahi ere, ekintza honek, Eraberean sareari dagozkion beste batzuek bezala, zentzua hartuko du, bidezkoa bada, sarearen barruan plan honetako ildo gidarien bide berean jartzeko gogoeta-prozesu bat eginez gero.
Helburua	Beste jatorri eta kultura batzuk dituzten pertsonak EAEko ordezkartza publikoan benetan sartzen laguntzea
Prozesuaren ebaluazioa	Helburu hau sartzea Eraberean Sarearen lanean
Emitzen ebaluazioa	Dibertsitate kulturala EAEko ordezkartza publikoan
Arduraduna	Eraberean Sarean
Lehentasuna	Ertaina
Data	2020ko bigarren seihilekoa

4.3.3. BIZIKIDETZA-EREMUA

Ekintza	4.3.3.19. Erlijio-dibertsitatea kudeatzeko araudiak, dokumentuak eta tresnak berrikustea eta egituratzea.
Deskribapena	Berriz ere katalogoaren antzeko dokumentu bat egiteaz mintzatzen ari gara, dokumentuak erlijio-dibertsitatea kudeatzeko tresnei buruzko dokumentazioa eta informazioa jasotzeko. Kontuan hartuta lan-esparru hau Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Idazkaritza Nagusiarekin partekatua dela, bidezkoa dela ematen du pentsatzea ekintza hau 4.2.11. ekintzan aipatzen den lantalde bateratuak egin beharreko lanetako bat izango dela.
Helburua	Erlijio-dibertsitatearen esparruko jardunbide onen eta gomendioen katalogoa eskaintzea
Prozesuaren ebaluazioa	Informazio-bilketa
Emitzen ebaluazioa	Txosten bat egitea
Arduraduna	Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
	Biltzen, Ikuspegi
Lehentasuna	Ertaina
Data	2020ko bigarren sei hilekoa

4.3.4. OSASUN-EREMUA

Ekintza	4.3.4.1. Osasun-arloko nahiz osasunetik kanpoko langileak sentsibilizatzea eta prestatzea, Osakidetzako prestakuntza-taldeen prestaketaren bidez, ikuspegi inklusibo eta kulturartekoari, herritar-eskubide eta -betebeharrei, kulturarteko konpetentziei eta etorkin atzerritarren gizarte-inklusoari dagokienez.
Deskribapena	Osakidetzako langile sanitarioen eta ez-sanitarioen sentsibilizazio- eta prestakuntza-lana egiten ari da duela zenbait urtetatik. Badirudi honako hau une egokia dela Osakidetzak berak bere gain hartzeko bere langileen kulturarteko sentsibilizazio- eta prestakuntza-lana, eta Biltzen arduratzeko Osakidetzako prestatzaileak trebatzeaz eta eguneroko lanean behar duten laguntza emateaz. Alde horretatik, online prestatzeko moduluen garapena osagarri ona izan daiteke.
Helburua	Osakidetzako prestaketa-taldeei prestakuntza eta laguntza ematea
Prozesuaren ebaluazioa	Urtero egindako prestakuntzen kopurua
Emaitzen ebaluazioa	Kulturarteko konpetentzietan prestatutako prestatzaileen kopurua
Arduraduna	Biltzen
Lehentasuna	Ertaina
Data	2019ko lehen sei hilekoa

4.3.4. OSASUN-EREMUA

Ekintza	4.3.4.2. Osasunaren zientzien arloko ikasleak (medikuntza, odontologia, erizaintza, fisioterapia, farmazia eta abar) sentsibilizatzea eta prestatzea, Osakidetza-zako prestakuntza-taldearen prestaketaren bidez, ikuspegi inklusibo eta kulturartekoari, herritar-eskubide eta -betebeharrei, kulturarteko kompetentziei eta etorkin atzerriarren gizarte-inklusiari dagokienez.
Deskribapena	Kasu honetan, osasun-zientzien arloko unibertsitarioentzako prestakuntza-proba pilotu bat garatzea planteatzen dugu. Biltzen izan liteke ekintza hau egiteko ardura duen tresna, eta, berorren lan-estrategia aurrez finkatu gabe, izan liteke unibertsitateko ikasleentzako moduluz moduluko prestakuntza-programa bat egitea Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren laguntzarekin (Foroak osasun-batzorde espezifiko bat dauka). Ondoren, Ikuspegiren laguntzarekin, azken batean unibertsitate-behatoki bat baita, unibertsitateko arduradunekin negoziatuko litzateke nola sartu unibertsitateko ikasleentzat eskaintzen den prestakuntza-eskaintza osagarrian. Ekintza honek ez du nahi izan aipaturako formazioa graduiko ikasketa eskaintzan ez eta postgraduiko ikasketa planetan sartzea: aukera errealistena da, aipaturako alorretako ikasleriari ikastaro osagarriak eskaintzeko, beraien kulturarteko kompetentziak hobetzeko bidean.
Helburua	Aurrera egitea kulturarteko kompetentzien arloko prestakuntza osasun-arretan sartzeko bidean
Prozesuaren ebaluazioa	Urtero egindako prestakuntzen kopurua
Emitzen ebaluazioa	Kulturarteko kompetentzietan prestatutako unibertsitateko ikasleen kopurua
Arduraduna	Biltzen
	Osasun Saila, Ikuspegi
Lehentasuna	Ertaina
Data	2020ko bigarren seihilekoa

4.3.4. OSASUN-EREMUA

Ekintza	4.3.4.3. Elkarlanean aritzea Osasun Sailarekin, elkarteen sarearekin eta unibertsitateekin, atzeritar jatorri eta/edo etorkiko pertsonen osasun-arretan sartzeko aukera bera dutela adierazten duten datuak aurkitzeko, edo, bestela, horretarako neurri zuzentzaileak aztertzea.
Deskribapena	Kontua da ikerketa bat diseinatzea egiaztatu ahal izateko atzeritar etorki, jatorri eta/edo nazionalitateko pertsonen sarbide-berdintasuna dutela osasun-arretan, Osasun Sailak osasun-arretarako emandako jarraibideetatik haratago. Honek datuak badauzka, sarbidearen arduraduna da, ekipo tekniko eta profesional egoki bat dauka, metodologia ezagutzen du... eta agian, Ikuspegik metodologia kualitatiboa emanez kolabora dezake diseinu kuantitatiboagoa duten ikasketen osagarri. Ideia da, Ikuspegik, Osasun Sailak erabiltzen dituen datuen, baldintza berdinetan osasun-arretarako sarbiderako bidean sor daitezkeen traben aurrean ikuspegi kualitatiboago bat ematea. Arau- eta lege-ikuspuntutik, egoera irregularrean dauden etorkin atzeritarrek zailtasunak eta oztopoak dituzte osasun-arretan maila berean sartzeko. Osasun Sailean neurri egokiak hartzen ari dira, pertsona guztiek, praktikan, berdintasunezko sarrera izan dezaten osasun-arretan. Ekintzak begi-bistan utzi nahi du ahaleginak emaitza onak dituela, edo, bestela, neurri zuzentzaileak gomendatu nahi ditu berdintasunezko osasun-arreta eragozten duten oztopoak arindu eta gainditzeko. Normala denez, Ikuspegi uneoro Osasun Saileko arduradunekin koordinatuko da. Ikerketa honetan oso interesgarria litzateke hirugarren sektoreak ere esku hartzea ikerketaren diseinuan eta garapen onean laguntzeko.
Helburua	EAEko biztanle guztien artean, aurrera egitea berdintasunezko osasun-arretan
Prozesuaren ebaluazioa	Ikerketa abian jartzea
Emaitzen ebaluazioa	Emaitzen txostena
Arduraduna	Ikuspegi
	Osasun Saila, elkarteen sarea
Lehentasuna	Ertaina
Data	2020ko bigarren sei hilekoa

4.3.5. ETXEBIZITZA-EREMUA

Ekintza	4.3.5.1. Zuzendaritzak ekarpena egitea EAEko etxebizitzari buruzko egungo araudien azterketan, eta kulturarteko ikuspegia jaso dezaten al-daketa egokiak egiteko proposamena aurkeztea leku egokietan.
Deskribapena	Kontua da ikerketa bat egitea Etxebizitza Sailaren eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzaren Behatokiaren laguntzarekin, EAEn etxebizitzaz egun dauden araudiak kulturarteko ikuspegitik aztertzeko. Emaitzei buruzko txostenetik gomendioak aterako dira araudi horiek hobetzeko eta kulturarteko ikuspegia eransteko. Kontuan hartuta ikerketaren zer-nolakoa, zentzuzkoa dela ematen du ikerketa-taldean nola edo hala esku hartzea Biltzeneko, Etxebizitzaren Behatokiko, Ikuspegiko eta elkartearen sareko profesionalak.
Helburua	Aurrera egitea kulturarteko ikuspegia Etxebizitza Sailak egindako araudietan sartzeko bidean.
Prozesuaren ebaluazioa	Ikerketa abian jartzea
Emaitzen ebaluazioa	Emaitzen txostena
Arduraduna	Biltzen
	Etxebizitzaren Behatokia, elkartearen sarea, Ikuspegi
Lehentasuna	Ertaina
Data	2020ko bigarren seihilekoa

4.3.5. ETXEBIZITZA-EREMUA

Ekintza	4.3.5.2. Higiezinaren sektoreko profesionalak sentiberatzea eta prestatzea, ikuspegi inklusibo eta kulturartekoari, herritar-eskubide eta -betebeharrei, kulturarteko kompetentziei eta etorkin atzerritarren gizarte-inklusiari dagokienez.
